

GERO BAT GUGAN_2030

HEZKUNTZA ERALDAKETARAKO MARKO PEDAGOGIKOA

AURKIBIDEA

00. ERALDAKETA HEMEN DA.	3
01. ERALDAKETAREN IPARRA: PERTSONA EREDUA	4
02. ERALDAKETARAKO PALANKAK	18
1. HAUTU PEDAGOGIKOA: KONFIANTZAREN PEDAGOGIA	19
A.1. KONFIANTZAREN PEDAGOGIAREN OINARRI TEORIKOAK	19
A.2. KONFIANTZAREN PEDAGOGIA GARATZEKO BALDINTZA PEDAGOGIKOAK	23
A.3. OINARRIZKO HEZIKETA LERROAK	76
2. LIDERGO PARTEKATUA	78
3. KUDEAKETA AURRERATUA	82
4. EBALUAZIO PROZESUA	88
03. ERALDAKETARAKO GURPILAK	89
A) AUKERA METODOLOGIKOAK	89
B) EDUKI MAILAKO AUKERAK	97
04. EZINA EKINEZ EGINA	99
05. BIBLIOGRAFIA	100

00. ERALDAKETA HEMEN DA

Hezkuntza mundua krisi sakonean murgildua dagoela eztaba daezina da. XIX. mendean sustraitutako hezkuntza sistema honek nekez erantzun diezaioke XXI. mendeko gizartearen beharrei. Gizartean aldaketak abiada bizian gertatzen diren heinean, hezkuntzak ez du bere sistema egokitzen jakin. Halaber, gaur gure ikastolan sartzen diren ikasle berriek, 15 urteko ibilbidea egin ondoren, topatuko duten lan mundua eta bere bizi proiektua eraikitzeko topatuko duten gizartea nolakoa izango den irudikatzea oso zaila zaigu. Ezjakintasuna, desegonkortasuna, etengabeko aldaketak, irautza teknologikoa... Horixe da aurreikus dezakeguna eta horrelako mundu batean bizitzeko tresnak eskaintzea da hezkuntzaren egitekoa, dagokion erantzukizun sozialarengatik.

San Fermin Ikastolak, hezkuntza eraldaketaren beharraz ohartuta, gogoeta sakona abiatu zuen. 50 urte baino gehiago ditu ikastolak, baina ezerk ez du ziurtatzen beste 50 urte egingo ditugunik, ikastolaren sorreran parte hartu zutenen amets eraldatzaileen mailako apusturik egin ezean. Konfiantzaren pedagogiaren paradigmaren aldeko apustua egin genuenetik, HHTik gainontzeko etapetara zabaltzeko bidea garatzen hasi ginenean, gero eta argiago ikusten zen eraldaketa sakonaren beharra. Mikroesperientzietatik haratago, eraldaketa disruptibo bat. Azken finean, hezkuntza sistema industrializatu batetik sistema organiko baterantz jo nahi dugu, pertsonen eraikia eta pertsonen garapen integralerako egina.

2019an abiatu genuen gogoetatik, etorkizunari begira, galdu nahi ez genituen alderdiak eta hobetu nahi genituenak identifikatu genituen ikastolako irakasle eta profesionalok. Ondoren, Gero bat gugan proiektuaren lehen fasean, eskola komunitatea osoarekin gure amets setako ikastola irudikatu genuen, etorkizunerako begirada horrek oraina aldatzeko gakoak emango dizkigulakoan. Ametsek eraldaketarako bidea marraztu dute, eta orain gure hezkuntza proposamena birformulatzeraz goaz.

Horretarako, San Fermin Ikastolak hezi nahi duen pertsona eredua hartu dugu ipar, gure ikastolan ikasleek, bere eskola ibilbidea bukatzean, topatuko duten mundu horretan bere bizi proiektua garatu ahal izateko tresna sorta gisa ulertuta. Ikastolak bere hezkuntza proiektuan jaso izan dituen balore eta printzipioak dira bertan, XIX. mendeko gizarte eta hezkuntza sistema berri batean beharko diren ezaugarriekin eraberritua.

Eraldaketa hemen da eta zentzuzkoena eraldaketa horretan lidergoa hartzea da. Ekin diezaiogun, bada, denok elkarrekin.

01. ERALDAKETAREN IPARRA: PERTSONA EREDUA

Pertsona eredua San Fermin ikastolan hezi nahi dugun pertsonaren dimentsio eta ezaugarriak biltzen dituen profila da. Berau, eraldaketaren funtsa da, horren garapenera bideraturik baitaude eraldaketaren elementu guztiak.

Arestian esan bezala, pertsona eredua ikasleek, bere eskola ibilbidea bukatzean, topatuko duten mundu horretan bere bizi proiektua garatu ahal izateko tresna sorta gisa ulertzen dugu eta, beraz, pertsona ororen izaera anitza barne hartzen duen eredua da.

Jarraian, San Fermin ikastolako pertsona eredua osatzen duten dimentsio eta ezaugarriak taula batean jasota irakurri daitezke. Dimentsio eta ezaugarri bakoitzaren definizioa emateaz gain, horien lorpena identifikatu eta neurtu ahal izateko, inpaktuak ere definitu ditugu. Izan ere, ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuaren bitartez, ikasleengan aldaketak eragin nahi ditugu, garatu nahi diren ezaugarri horien eskuratze aldera eta eragin horiek inpaktu izendatu ditugu. Inpaktuen bitartez, ezaugarri bakoitzaren adierazle diren jokabideak, ulermen mailako ekintzak eta marko mental mailako eraginak xehatu ditugu.

1. EUSKALDUNA: Euskal hiztun osoa da, euskal identitate propioa eraiki du eta euskara erabiltzeko hautu kontzientea egiten du. Euskara, euskal kultura eta euskal nortasuna egunerokoan bizi ditu eta horiek bizirik mantentzeko konpromisoa erakusten du. Aldi berean, beste hizkuntzen ezagutzaz eta erabileraz aberasten da.

- **1.1. Euskal hiztun osoa** (kontzientea, koherentea eta konpetentea): Euskaraz bizitzea erabaki du kontzienteki eta euskararen erabilera-eremuak zabaltzeko konpromisoa hartu du. Hizkuntzaren, kultura edo identitate aldetik gutxitze-egoeran dauden herrien garapena bermatzeko ikastolan antolatzen diren ekitaldi, ekintza eta proiektuetan parte hartzen du.
- **1.2. Euskal identitatea eta kultura ezagutu eta bizi dituen:** Euskal identitatearen eta kulturaren bereizgarriak eta ezaugarriak ezagutzen ditu, hainbat agerpen/errepresentazio sinboliko (nazio-lurraldetasuna, historia eta ohiturak) ezagutu eta bizi dituelako. Horrez gain, Iruñerrian euskal identitatea, hizkuntza eta kultura gordetzeko, biziberritzeko eta zabaltzeko jarrera eta konpromisoa du, euskaingintzako ekimenetan parte hartuz eta euskal kultura eta identitatearen inguruko adierazpide berriak sortuz. Defendatzen du badela euskal identitate soziala eta horren baitan askotariko identitate euskaldunak eraiki daitezkeela, eta horrekin guztiarekin bere sintesi propioa sortzen du.
- **1.3. Eleanitza:** Beretzat hizkuntzek balio identitarioa eta komunikatiboa dute eta mundu-ikuskera bat jaso eta zabaltzen dute. Horregatik, Euskal Herrian bizi diren hizkuntzekiko begirunezko-jarrera inklusiboa du. Hizkuntza guztiak aukera gisa ulertzen ditu beste errealitate batzuk ezagutzeko eta horrekin bere burua eta gizartearen aberasteko bide ematen diotelako. Eta hizkuntza majoritario batzuk baliatzen ditu gizarte mailan betetzen duten funtzio komunikatiboez jabetzen delako.

EZAUGARRIAK	Jarrera mailako eragina	Ulermen mailako eragina	Marko mentalenganako eragina
1.1. Euskal hiztun osoa	- Lehen hitza euskeraz egiten du eta testuinguruak ahalbideratzen duenean, euskaraz egiten jarraitzen du. - Euskara biziberritzeko dinamiketan parte hartzen du ikastolan, herri mailan, ikastolen jaiak eta maila nazionalean (Euskaraldia, Euskarabentura, Korrika... esaterako). - Gutxitze egoeran dauden beste hizkuntza eta kulturak ezagutu eta bultzatzeko ikastolan antolatzen diren proiektutan parte hartzen du. -	- Gaur egun euskaraz bizitzeko hautua egin beharra dagoela ulertzen du. - Euskara erabiltzen duen heinean, euskara eremu berrietara zabaltzen duela ulertzen du. - Hizkuntza gutxituetako hiztunek hizkuntza hautuak egitearen garrantziaz eta hizkuntz politikan eragiteko beharraz jabetzen da.	Euskara hizkuntza propietzat hartzen du eta euskal kulturaren funtsa dela defendatzen du eta norbere erabakiek euskararen hedapenean eta erabileran eragina dutela sinisten du. Hizkuntzek balio identitarioa eta komunikatiboa dutela sinisten du eta hortik testuinguru bakoitzerako hautu linguistikoa egiten du.

1.2. Euskal Euskal identitatea eta kultura ezagutu eta bizi dituen	- Euskal kultura eta identitatearen agerpen/ errepresentazio sinbolikoen inguruko ezagutza erakusten du lurraldetasun, ohitura eta ikuspegi historikotik. - Euskal kulturari lotutako ekimenetan parte hartzen du.	- Ulertzen du badela euskal identitate sozial bat, hainbat adierazpide eta errepresentazio sinbolikoetan oinarrituta eta horiek gorde, biziberritu edota zabaltzeko konpromisoaren beharra arrazoitzen du. - Ulertzen du ez dagoela euskaldun izateko modu bakarra eta euskaldun izateko bere modu propioa eraikitzen ari dela adierazten du.	
1.3. Eleanitza	- Testuinguru bakoitzean behar duen hizkuntza erabiltzen du. - Ikastolan dauden hizkuntza guztiek bere tokia izan dezaten jarrera inklusiboa erakusten du, interesa eta errespetua agertuz.	-Hizkuntza guztiak aukera gisa ulertzen ditu.	

2. OREKATUA: Bere buruaz duen irudia bat dator benetan denarekin, bere ezaugarri eta izatearekin. Bere burua ezagutzea eta onartzea barne askatasuna eta heldutasun afektiboa lortzeko gako garrantzitsuak dira. Horrek guztiak eta bere buruarenganako, besteenganako eta bizitzarenganako konfiantzak erresilientziaz erantzuten laguntzen diote bizitzak planteatzen dizkion erronka eta galdera nagusien aurrean.

- **2.1. Konfiantza duena:** Bere burua ezagutzen du (ezaugarriak, ahalmenak, beharrak eta mugak) eta honen irudi doitua duenez, gai sentitzen da besteen aurrean den bezalakoa izateko eta berari dagozkion erabakiak hartzeko. Konfiantza du bere buruarengan, besteengan, eta oro har, bizitzarengan eta akatsak ikasteko bide bezala ikusten ditu. Bere bizitza proiektua eraikitzeko, bere bide propioa egiten du eta barne konfiantza hori duelako aurre egin nahi izaten die bere ardurapeko erronkei. Era berean, besteen gaitasunak ikusten eta baliosten ditu eta sentitzen du besteekin konta dezakela aurrera eraman behar dituen eginkizun eta erronketarako.
- **2.2. Heldutasun afektiboa eta malgutasuna duena:** Momentu konkretuetan emozioak indar bereziaz pizten zaizkionean, emozioen kontzientzia nahiko argia dauka eta emozio horiek nola kudeatu ikasten ari delako badaki horiekiko beharrezko distantzia hartzen. Erresilientziaz eta malgutasunez erantzuten die egokitzen zaizkion egoera zailei; izan ere, onartu egiten du errealitatea, eta hortik ateratzen du indarra, egoera eta pertsona bakoitzari erantzun neurrizko eta egokia emateko.
- **2.3. Ongizate fisikoa zaintzen duena:** Bizitza orekatua izatearen garrantziaz jabetzen da (loreka emozionala bilatzea, harreman sozialak eraiki eta zaintzea, neurriko jarduera fisikoa egitea, mundu digitaletik deskonektatzea, elikadura zaintzea, atseden hartzea...) eta modu arduratsuan jarduten du.

EZAUGARRIAK	Jarrera mailako eragina	Ulermen mailako eragina	Marko mentalenganako eragina
2.1. Konfiantza duena	-Bere ezaugarriak, ahalmenak, mugak eta beharrak sakon ezagutzen ditu eta horrela adierazten du. -Besteen gaitasunak baliosten ditu eta adierazten du besteekin kontatzen duela aurrera eraman behar dituen eginkizun eta erronketarako. -Bere buruarengan duen konfiantzatik erantzuten die bere ardura pekoak diren erronkei eta bere erabakiak hartzen ditu.	- Ulertzen du norberaren funtsezko izaera eta gaitasunak ezagutzea eta hauen arabera bizitzeak, lagundu egiten duela norberaren ongizatean eta bizitza proiektua eraikitzen. - Ulertzen du norberarenganako eta besteenganako konfiantza direla harreman eta proiektu ororen euskarri nagusiak.	-Bere bizi proiektua garatzeko eta egoerei erantzun egokia eman ahal izateko, bere buruarenganako, besteenganako eta bizitzarenganako konfiantzan bizitzea ezinbestekoa dela defendatzen du, bere buruaren ezagutzari eta zaintzari lehentasuna emanaz.

2.2. Heldutasun afektiboa eta malgutasuna duena	- Badaki identifikatzen zer egoera emozional ari den bizitzen eta bizipen hori kudeatu egiten du. - Egoera konplexuetan, zailetan, ez du ihes egiten, ez du etsitzen, eta aurrera egiteko bideak eta moduak bilatzen saiatzen da.	-Azaltzen du norberaren emozioekiko distantzia hartzeak eta hauek egoki kudeatzeak, errealitatea ulertzen eta hobeki aurre egiten ahalbideratzen duela.
2.3. Ongizate fisikoa zaintzen duena	- Bere burua zaintzeko neurriak arduraz hartzen ditu (oreka emozionala bilatzea, harreman sozialak eraiki eta zaintzea, neurriko jarduera fisikoa egitea, mundu digitaletik deskonektatzea, elikadura zaintzea, atsedeen hartzea...)	-Badaki bere ongizatea zaintzeko osasungarria zer den eta egiten dituen hautu eta jokabideak arrazoitzen ditu.

3. EKINTZAILEA: Arazo, egoera eta erabakien aurrean, konponbidea bilatzeko galderak egiten dituen, informazio iturri fidagarrietara jotzen duena, kritikotasunez gogoeta egiten duena eta jarrera proaktiboa erakusten duena. .Ausardiaz, arduraz eta konfiantzaz erabakiak hartzen dituen eta ekintzetan gauzatuko dituen. Azkenik, ekintzen ondorioak ebaluatzen eta hobekuntzak aurrera eramaten dituen.

- **3.1. Erreflexiboa:** Errealitatea ulertzeko eta etengabe ikasten jarraitzeko, galderak sortzen zaizkio eta galdera horiei erantzun ahal izateko informazioa bilatzeko prozesuetan aktiboki inplikatzeko da. Gainera, egoerak aztertzeko edota erabakiak hartzeko informazioa eraginkortasunez eta modu analitiko-kritikoan aztertzen du, iturri eta informazioaren fidagarritasuna zainduz eta hortik bere iritzia proposatu sortzen du. Hartutako erabakien inguruko azterketa egiten du eta beharrezko doikuntzak proposatzen ditu.
- **3.2. Eraginkorra:** Egoera-arazo-erronkei aurre egiteko konponbideak eraginkortasunez, modu proaktiboan eta erantzukizunez bilatzen eta ezartzen ditu, ikuspegi malgu eta irekiarekin..
- **3.3. Sortzailea:** Momentuan sortu edota gizarteko egoerei lotutako arazo zein erronkei, irtenbide originalak emateko errealitatea ikuspuntu desberdinetatik aztertzen du. Konbentzioetatik haratago, ohiz kanpoko eremu originaletara bide berriak urratzen ditu eta ideiak sortzen ditu.

EZAUGARRIAK	Jarrera mailako eragina	Ulermen mailako eragina	Marko mentalenganako eragina
3.1. Erreflexiboa	- Galdera irekiak eta pertinenteak egiten ditu eta asebetetzen duen erantzun osatuaren bila pertseberantzia jarduten du askotariko iturriak erabiliz eta hauen fidagarritasuna eta objektibotasuna aztertzen du. - Analisia (identifikatu, deskribatu, erlazionatu, interpretatu, sintetizatu, baloratu, arrazoitu , ondorioak atera, ...) egin ondoren, iritzia eraiki eta argudiatzen ditu.	-Azaldu eta argudiatzen du norberaren iritzia eraikitzea garrantzitsua dela, horretarako informazio-iturri fidagarriak hautatuz.	-Ikaskuntza prozesu jarrai eta aberasgarritzat baloratzen du eta Defendatzen du egoera-arazo-erronkei aurre egin ahal izateko, konponbideak bilatzeko prozesua abiatzea garrantzitsua dela, egoera berri, aldakor eta ustekabekoetan bere jokabidea edo pentsaera egokituz, ikuspegi ireki batekin.
3.2. Eraginkorra	-Egoera-arazo-erronkei aurre egiteko, erabakiak hartzen ditu eta konponbideak eraginkortasunez eta ausardiaz aurrera eramaten ditu..	-Azaltzen du erabakiak eraginkortasunez hartzea eta ekitea beharrezkoa dela edozein prozesuk aurrera egin dezan.	

3.3. Sortzailea	-Konbentzioetatik harago doazen ideia berri eta originalak proposatzen ditu.	-Ulertzen du, konponbide originalak eta ohiz kanpokoak proposatzea lagungarria dela egoerei edo erronkei hobeto erantzuteko eta horretarako ekina izan beharra dagoela.	
-----------------	--	---	--

4. MUNDURA ZABALIK: Koherentzia eta ekintzaren bidez giza duintasunaren, bere komunitatearen eta gizarte osoaren garapen justu, demokratiko eta iraunkorraren alde konprometitzen da.

- **4.1. Konprometitua:** Norbanakoaren, gizartearen edo ingurumenaren arazo, beharrian edo erronkez jabetzen da. Horiekiko konpromisoa agertzen du, ekarpen aktiboa eginez, beste norbaitek eskatuta edo gabe. Interes propioak soilik lehenetsi gabe jarduten du, elkarri lagunduz eta babestuz eta kooperazioan arituz.
- **4.2. Errespetuzkoa:** Giza duintasuna, askatasuna, elkartasuna, justizia eta berdintasuna oinarritzko printzipio etikoak direla pentsatzen du eta pertsonen arteko eskubide berdintasuna (klasea, sexua, arraza, adina, ekonomia,...) bereizkeriarik gabe errespetatu eta defendatzen du.

EZAUGARRIAK	Jarrera mailako eragina	Ulermen mailako eragina	Marko mentalenganako eragina
4.1. Konprometitua	-Pertsonen, gizartearen edo ingurumenaren inguruko arazo, beharrizan edo erronken aurrean konprometitu egiten da bere gaitasunak, denbora eta bestelako baliabideak eskainiz, beste norbaitek eskatuta edo gabe.	- Ulertzen du bizitzan zehar denok elkarren beharra izango dugula eta pertsonen, gizartearen edo ingurumenaren inguruko arazo, beharrizan edo erronken aurrean konprometitu beharra dagoela gutako bakoitzarengan badagoelako erantzunkizunaren zati bat.	Guztiok osotasun bateko parte garela eta mundua guztiontzako bizileku duin eta desiragarria izan dadin elkartasuna ezinbestekoa dela sinisten du eta denon aukera berdintasuna eta oinarritzko printzipio etikoak bermatu daitezen konprometitzen da.
4.2. Errespetuzkoa	- Norbanakoen edo/eta taldeen desberdintasunak onartzen ditu eta begi onez ikusten ditu. - Desberdintasunek eragindako injustizia egoeren aurrean esku hartzen du.	- Badaki giza eskubideetan oinarritutako printzipioak balio absoluto eta unibertsalak direla ulertzen du. - Aniztasunaren balioa aberastasun iturri gisa ulertzen du.	

5. KOOPERATIBOA: Arretaz entzuten du, elkarrizketa eraikitzailea bultzatzen du eta elkar ulertzeko eta helburu komuna lortzeko lan egiten du. Iritziak errespetatzen ditu eta aldi berean, bere iritzi propioak ematen ditu sortze prozesua aberasteko ekarpenak eginez, bakoitzak beretik emanaz osotasun partekatua eraikitzea balio handikoa dela pentsatzen duelako.


- **5.1. Lankidea:** Adostu eta partekatutako helburu bat lortzeko elkarrekintza eta gaitasun sozial eta kognitiboen garapena ezinbestekotzat jotzen ditu: taldekideetaz arduratzen da, bakoitzaren beharren arabera laguntza eskaintzen du eta bere beharrak asetzeko ere laguntza eskatzen du, taldekideen arteko konfiantza eraiki eta talde pertenezia sustatzeko.
- Taldearen arrakasta norbanakoaren erantzunkizunaren baitan dagoela dio. Bakoitzak bere ardurak hartuz eta bere egitekoak betez ekoizpen aberatsago eta hobea lortuko dutela eta osotasunari erantzun ahal izango diotela ulertzen du.
- **5.2. Enpatikoa:** Aktiboki entzuten du, parekoak sentitzen duen emozioa jasoz eta ulertuz eta besteen emozioak epaitu gabe baldintzarik gabe onartzen ditu. Ez ditu errudunak bilatzen, kaltea edo sufrimendua eragiten duten ekintzen aurrean erantzukizunean eta konponketan jartzen du begirada.
- **5.3. Komunikatzaile asertiboa:** Modu sinesgarri eta eraginkorrean ematen ditu ezagutza bere pentsamentu, ideia eta emozioak, zenbait komunikazio tresna eta lengoia erabiliz eta testuingurua eta hartzailerik kontutan hartuta. Horrez gain, uste du guztiok errespetua merezi dugula eta horregatik errespetuz komunikatzen da eta besteak ez mintzeko komunikazio estrategiak baliatzen ditu.

EZAUGARRIAK	Jarrera mailako eragina	Ulermen mailako eragina	Marko mentalenganako eragina
5.1. Lankidea	- Taldekideen ongizateaz arduratzen da eta behar duten horretarako laguntza eskaintzen du eta berak behar duenean ere eskatzen du. - Taldeko arduren banaketan parte hartzen du eta bereari dagozkionak bete egiten ditu. - Era aktibo eta eraikitzailean parte hartzen du, proposamenak eginez eta ideiak osatuz	- Lankidetzan aritzeko harreman osasuntsuak eraikitzea garrantzitsua dela pentsatzen du eta ikaste prozesu zein ekoizpen aberatsagoak lortzen direla ulertzen du . - Ulertzen du taldearen arrakastarako ezinbestekoa dela nork bere egitekoak betetzea.	- Bizitzako eremu guztietan talde lanean aritzea lehenesten du pertsonen zein gizartearen garapen eta ongizateari erantzukizun kolektibotik eta elkarrekiko enpatia eta komunikazio asertibotik erantzuten zaiola uste duelako.

5.2. Enpatikoa	-Hitzez zein jarrerazko ekintzen bitartez (aurpegi eta gorputz-adierazpenak) arretaz entzun eta bestearekin konektatzea bilatzen du. - Gatazken aurrean ez du errudunik bilatzen, erantzukizunean eta konponketan jartzen du begirada.	- Azaltzen du kaltea edo sufrimendua eragiten duen egoera baten aurrean, egon badagoela arrazoi bat asetu gabeko behar bati lotua eta horregatik errudunak bilatu beharrean konponketan jartzen du begirada. - Ulertzen du bizikidetzarako eta harreman sendoagoak eta aberasgarriagoak izateko, besteak epaitu gabe entzun eta ulertu behar direla
5.3. Komunikatzaile asertiboa	- Komunikazioaren xedea eta hartzailea kontutan hartuz, bere ideia, behar, emozio eta iritziak, besteak ez mintzeko komunikazio-estrategiez (hitzezkoak, ez hitzezkoak eta ahotsari lotutakoak) eta estiloak (zintzoa, irekia, zuzena, gertukoa, ez bortitza, ...) baliatuz adierazten ditu.	- Ulertzen du bere ideia, behar, emozio eta iritziak adierazteko, besteak errespetatzen dituzten komunikazio-estrategiak eta estiloak erabiltzea garrantzitsua dela konfiantza giroa sortzeko, hartzailearenganaino iristeko eta eraginkorrak izateko.

02. ERALDAKETARAKO PALANKAK

Pertsona ereduaren dimentsio eta ezaugarriak iparreetan, eraldaketarako palankak deritzogunak birformulatu behar ditugu. Alde batetik, ikastolako hautu pedagogikoa berdefinitu beharra daukagu, pertsona eredu horren garapena sustatuko duela bermatzeko. Bestetik, ikastolak ikasleen ibilbide osoan zehar, kudeaketa aurreratua garatu beharra du, pertsona erdigunean jarriko duen sistema eraginkor bat aurrera eramanez. Gainera, benetako eraldaketa batean, komunitate kide bakoitzak dagokion erantzukizuna hartzea garrantzitsua da, lidergo partekatua sustatuz. Eta azkenik, eraldaketa beraren ebaluaziorako oinarriak zehaztu beharra dira, etengabeko eraberritze eta hobetze plan bat diseinatuz.



A) HAUTU PEDAGOGIKOA: KONFIANTZAREN PEDAGOGIA

Gure ikastolan Konfiantzaren pedagogiaren aterkipean garatu dugu gure hautu pedagogikoa. Paradigma honen helburua pertsonari bere hezkuntza ibilbidean bere buruarengan, besteengan eta testuinguruarengan konfiantza izan dezan laguntzea da, bere gaitasunak ahalik eta ondoen garatzeko.

A.1. KONFIANTZAREN PEDAGOGIAREN OINARRI TEORIKOAK

Konfiantzaren pedagogiaren marko pedagogikoa eraikitzeko, psikologia korrante ezberdinek eskaintzen dituzten teoriak aintzat hartu ditugu. Garapenaren psikologiaren inguruan, historian zehar garatutako hainbat teoria ezagutzen ditugu eta korrante bakoitzak eskaintzen dituen berezitasunak oso aberasgarriak dira pedagogiaren marko hau eraikitzeko. Hala, teoria batzuek besteak osatu edo aberasten dituztela ulertzen dugu, zientziak berezkoa baitu etengabe, ikerketa berrien bidez, ezagutza eraikitzea. Halaber, azken urteetan sortutako ikerketei arretaz erreparatzen badiegu ere, beste teoria zaharragoek eskaintzen dutena ez dugu gutxietsi nahi.

Honako taulan ageri dira Konfiantzaren pedagogiaren markoa eraikitzeko aintzat hartu ditugun garapenaren teoriak:

Garapenaren teoriak	Fokua	Azpiteoria	Egilerik nabarmenenak
Teoria biologikoak	Giza jokabideen azterketa	Teoria etologikoa	Lorenz eta Tinberg
Teoria psiko-dinamikoak	Nortasunaren garapena	Teoria psikosexuala	Freud
		Teoria psikosoziala	Erikson

Teoria konduktistak	Giza jokabideen azterketa	Baldintzapenaren teoria	Baldintzapen klasikoa: Pavlov, Watson. Baldintzapen operantea: Skinner
		Ikaskuntza sozial kognitiboaren teoria	Bandura
Teoria kognitiboak	Adimenaren garapen eta funtzionamendua	Garapen kognitiboaren teoria	Piaget
		Garapen moralaren teoria	Kohlberg
		Teoria soziohistorikoa	Vygotsky
		Informazioaren prozesamenduaren teoria	Gagne
		Neurozientzia	Mora
		Adimen Anitzen Teoria	Howard Gardner
Teoria humanistak	Gizakia modu globalean	Autodeterminazioaren teoria	Ryan, Deci

Etologiak egin digun ekarpenik handiena, zalantzarik gabe, senek giza jokabidean duten garrantzia ezagutzea izan da. Haurra zein gaztea ikusteko beste modu bat ekarri digu honek, izan ere, haurra ez hutsik datorren izaki bat, potentzialtasun handiko hazi bat baizik, zeinak bere osotasunean garatzeko testuinguru egokiak eta aberatsak beharko dituen. Gizakiok estimuluei erantzutean estrategia erabiltzeak gainontzeko animalien gaitasun bereizten gaitu eta, honela, senetatik abiatuta, ikaskuntza prozesua nola ematen den ulertzen lagundu digu etologiak. Hezkuntza prozesuan, honenbestez, eragin zuzena dute sen sozialek; atxikitze sena oinarri izanik, gainontzeko guztiak garatzen dira: miazteko sena, ihes egiteko sena, kide izateko sena, erasotzeko sena, hierarkia-sena, zaintza-sena eta sexu sena. Sen horiei egoki erantzutea eta horiek garatzeko baldintza pedagogikoak eskaintzea izango da gure xedeetako bat.

Freuden teoria psikoanalitikoak, haurtzaroko esperientziek (plazer nahiz gatazka egoerek) inkontzientean, gure jokabidea baldintzatu dezaketela jaso dugu. Eriksonen teoria psikosozialetik bestetik, gizakiak, bere garapenaren potentzialitate osoa lortzeko bidean, bere bizitza osoan zehar zenbait barne gatazka ebatzi behar dituela ikasi dugu.

Teoria konduktisten aldetik, Pavlov-en baldintzapen klasikoaren teoriak, estimulu natural eta neutroen artean egiten ditugun asoziazioek gure jokabidean duten eragina ikasi dugu. Bestetik, Skinner-en, bere baldintzapen eragilearen teoriarekin, errefortzuen eta zigorren bidez, ekintzak finkatu edo desagerrarazi daitezkeela ikasi dugu. Hortaz, errefortzu positiboaren erabilera egokiak ikasleen jokabidean eragiten lagundu diezaguke. Aipagarria da, gainera, Banduraren ikaskuntza bikarioaren kontzeptua, norbanakoak besteak behatuz ere ikasten duela frogatu baitzuen. Are gehiago, besteengandik ikusten ditugun portaera eta ondorioen behaketaren bitartez, gure portaeren ondorioak aurreikusteko gaitasuna dugula baieztatu zuen.

Teoria kognitiboek adimenaren garapena hobeto ulertzen lagundu digute. Piageten konstruktibismoak, ikaskuntzaren izaera eraikitzailea azaldu zuen. Piagetek zehaztutako etapetan, ezagutza nola eraikitzen den deskribatu zuen. Teoria honen arabera, ezagueraren sorrera objektuekin haurrak mantentzen dituen ekintzetan oinarritzen da eta ezagutza eskemak berregituratzen ditugu, ezagutza berriak integratzeko eta kanpoko estimulu berriei erantzuteko. Asimilazio eta akomodazio prozesuen bitartez, norbanakoak inguruan egokitzea lortzen du. Horrek gure jardun pedagogikoaren baitan, ezagutzaren eraikuntza nola bultzatu behar dugun ulertzen lagundu digu.

Vigotskyren teoria sozioeraikitzaileak, Piageten teoriari testuinguru sozial eta kulturalaren garrantzia erantsi zion. Honela, testuingurua soziokulturalaren eraginpean eta beste pertsonekin elkarrekintzan ikasten dugula erakutsi digu. Elkarrekintza hori gainera, hizkuntzari esker ematen da eta hizkuntza pentsamenduaren garapenerako giltza da. Hortik, ikaskuntza modu kooperatiboan egitearen garrantzia eta elkarrekin ezagutza partekatzearen garrantzia ondorioztatu dugu. Teoria honek gainera, “garapen hurbileko zona”-ren kontzeptua ekarri digu: haurraren garapen erreala eta garapen potentziala elkartzen diren eremua; hau da, haurrak bere kabuz egiten duena eta

hezitzaileon laguntzaz lor dezakeenaren arteko eremua. Hortik, ikasle bakoitzaren gaitasunei erreparatuta, bakoitzari bere mailako erronkak jartzearen garrantzia ikasi dugu.

Bestetik, Kohlbergekek garapen moralaren teoria sortu zuen, Piageten heteronomia eta autonomia moralaren kontzeptuak sakonduz. Honek, hezitzaileok arau demokratikoen defentsan eta giza harremanen eraikuntzan eredu izatearen garrantzia erakutsi digu.

Informazioaren prozesamenduaren teoriak, gizakiaren adimena ordenagailuaren funtzionamendurekin konparatu zuten. Honela, ikaskuntza egoeretan arretak, pertzepzioak eta memoriak duten papera deskribatu zuten eta haiek egindako lanari esker, ikaskuntza aktiboaren beharraz jabetu gara, ikaslearen erritmoetara egokituz eta testuinguru esanguratsuak sortuz.

Adimen anizkunen teoriak, zientifikoki behar beste babesik ez duen arren, ikasleen indarguneak antzeman eta horietatik abiatuz, modu inklusibo batean, ikaskuntza egoera anitzak sortzeko beharra erakutsi digu, ikasleek gailentzen zaien adimen hori (linguistikoa, espaziala, logiko matematikoa, zinestesikoa, musikala, naturalista, pertsona artekoa edota pertsona barrukoa) balia dezaten erronka ezberdinei aurre egiteko.

Bestetik, neurozientziek nerbio sistemaren egitura, funtzionamendua eta garapenari buruzkoa ezagutza sakondu dute, eta garapen kognitiboari buruzko ebidentzia zientifiko ugari eskaini dituzte. Garunaren plastikotasuna, sare hebbiarren mielinizazio prozesua edota emozioek ikaskuntza prozesuetan duten garrantzia neurozientziek pedagogia arloari egin dioten ekarpenik nabarmenetarikoak dira. Honela, ikasleen ikaskuntza prozesua bultzatzeko, motibazioa piztearen garrantzia eta diziplinen arteko lotura horizontalak sortzearen garrantzia ondorioztatu dugu.

Teoria humanisten artean Ryan eta Deciren Autodeterminazioaren teoria aipatu nahi genuke. Teoria honek hainbat azpiteoria hartzen ditu barne. Alde batetik, Oinarrizko behar psikologikoen teoria, zeinetan gizakiaren oinarrizko hiru behar psikologikoak (ekiteko beharra, harremana izateko beharra eta autonomia beharra) definitzen diren. Golden 5 paradigma pedagogikoari jarraikiz, behar horiek asetzeko lan egiten ari gara, ikasleen kompetentzia sentimendua elikatuz, haien arteko harremanak kudeatuz eta beren erabakiak hartzen lagunduz. Bestetik, Heider-en Atribuzioaren teoria dago, zeinetan ikasleei feedback eraginkorrak emateko irizpideak jaso ditugun; labur esanda, ikaslea epaitu gabe, bere ikaskuntzan aurrera egin ahal

izateko argibideak ematea dugu helburu. Gainera, inguruarekiko harremanean etengabe oreka bilatzen ari garela azaltzen du. Orekaren teoriak eta hortik, audientzia efektuaren indarraz jabeturik, ikasleen aurrean egiten ditugun mezuak zaintzearen beharra argi geratu zaigu. Azkenik, Motibazioaren teoriarekin, motibazio intrintsekoa indartzeko beharra ikasi dugu eta horretan eragiten duten faktoreak identifikatzen lagundu digu.

A.2. KONFIANTZAREN PEDAGOGIA GARATZEKO BALDINTZA PEDAGOGIKOAK

Konfiantzaren pedagogia garatzeko baldintza pedagogikoak, hiru esku-hartze eremutan egituratzen dira. Batetik, pertsonaren garapenerako eta zaintzarako baldintzak ditugu. Bertan, ikasleak bere buruarengan konfiantza har dezan kontuan hartzen ditugun alderdiak biltzen dira. Bestetik, testuinguruaren baldintzak ditugu, hain zuzen ere, ikasleak bere inguruko pertsonengan eta testuinguru fisiko zein sozialean konfiantzaz jardun dezan bete beharreko baldintzak. Hirugarrenik, ikasi eta irakasteko baldintzak ditugu, ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuan eragiten duten elementu ezberdinen baldintzak jasotzen direlarik.

1. Pertsonaren garapenerako eta zaintzarako baldintzak

- 1.1. Pertsonaren garapen integrala
- 1.2. Aukera berdintasuna printzipio gisa.
- 1.3. Gaitasunak identifikatzea, balioestea eta garatzen laguntzea.
- 1.4. Zailtasunak garaiz hautematea eta kudeatzen laguntzea.
- 1.5. Zaintzaileak zaintzea.

2. Testuinguruaren baldintzak

- 2.1. Komunitatearekin lotura egitea: familia eta gizartea
- 2.2. Baliabideak, espazioa eta denbora ikaskuntzaren zerbitzura.
- 2.3. Gelan giro atsegina sortzea: harremanak eta komunikazio-moduak
- 2.4. Taldekatze eraginkorrak egitea.

3. Irakatsi eta ikasteko baldintzak.

- 3.1. Ikaskuntza aktiboa ardatz izatea.
- 3.2. Konpetentzietan oinarritua
- 3.3. Hizkuntzen trataera
- 3.4. Ebaluazio hezigarria

1. PERTSONAREN GARAPENERAKO ETA ZAINTZARAKO BALDINTZAK

Galdera gidaria: Zer baldintza eskaini behar ditu ikastolak eta hezitzaileak ikasleak bere buruarengan eta besteengan konfiantza izan dezan?

1.1. Pertsonaren garapen integrala

Ikastolaren xedea ikasleak pertsona gisa modu orekatu eta zoriontsuan garatzea bada, gure jardun pedagogikoak xede hori lortzeko baldintzak bermatu behar ditu. Ikaslearen garapen integrala lortzearen, pertsona bere osotasunean hartzen dugu aintzat, alderdi afektiboa, soziala, kognitiboa eta fisikoa kontuan izanik.

Pertsonaren alderdi ezberdinak aztertzen dituen psikologia korrante ugari dago eta teoria ezberdinetatik edan behar dugu haurra bere osotasunean aintzat hartzeko. Hala nola, etologiaren ikuspegitik, senak lantzearen garrantzia ikasi dugu eta autodeterminazioaren teoriatik oinarritzko behar psikologikoak asetzeko beharra. Bi teoriak ezberdinak izanik ere, ez dira kontrajarriak eta gure jardun pedagogikoan islatzen dira. Bestetik, Gardner-en adimen anizkunen teoriak edo neurozientziaren ekarpenek, gure hautu pedagogikoari oinarri zientifikoa eta objektiboa eman diote.

Senaren kontzeptua Etologiari zor diogu. Senak gure genoman erregistratua ditugu eta ezinbestekoak dira gizabanakoaren eta espeziearen iraupenerako. Barruko edota kanpoko estimulu batek eraginda pizten dira eta horrekin batera, tentsioan eta deseroso sentiarazten gaituen zerbait pizten da: desira, nahia edo beharra. Nahi edo behar hori da ekintzara bideratzen gaituena, gure motibazioa, gure motorra.

Pertsonaren garapen indibidualaren eta sozialaren ikuspegitik, interesgarrienak diren senak hauek dira: Atxikitze sena, miatzeko sena, ihes egiteko sena, kide izateko sena, erasotzeko sena, hierarkia sena, zaintza sena eta sexu sena.

Pedagogiaren ikuspegitik, funtsezkoa da haurrari pizten zaizkion senei modu sentikor eta egokian erantzutea. Esate baterako, jakin-mina pizten zaionean, behar hori asetzeko espazioak eskaintzea; beldurra pizten zaionean, babeslekua eskaintzea edota erasotzeko sena pizten zaionean, gogo hori kudeatzen laguntzea.

Argi izan behar dugu, oinarritzko senak ezin direla irakatsi, landu bai, ordea. Ikasleari testuinguru egokia eskainiz, behar horiei erantzutea dagokigu, garapen harmonikoa izan dezan. Sortzen diren behar eta gogo horiek asetzeko, ikasleak ekintza kate bat martxan jartzen du eta guri dagokigu ekintza kate hori asmatzen, indartzen, aldatzen edo amaitzen laguntzea. Hori da irakatsi daitekeena.

Beste modu batera esanda, pertsona bati ezin zaio irakatsi atxikitze sena ez sentitzen, sen hori pizten zaionean behar hori asetzeko moduak kudeatzen baizik.

Senen lanketak harreman zuzena du emozioen lanketarekin eta adimen emozionalak lehentasunezko tokia du guretzat; izan ere, gaitasun emozionalak garatzeak, ongizate pertsonala areagotzen du eta, honenbestez, hezkuntza prozesuetan arrakasta handiagoa izateko aukera handitzen du.

Sen bakoitzak pizten dituen emozioak ulertzen laguntzeko eta horien aurrean modu egokian esku-hartzeko, hezkuntza etapa bakoitzean orientabide pedagogikoak garatu beharko ditugu eta etapa edo ziklo bakoitzari zuzendutako marko pedagogikoan jasoko ditugu.

Hezkuntza emozionala prozesu jarrai eta etengabea da eta konpetentzia emozionalak garatzeko, honako alderdiak hartu behar dira kontuan (Bisquerra, 2003):

- Kontzientzia emozionala: nork bere emozioak identifikatzea eta besteenak ulertzea..
- Erregulazio emozionala: emozioak adimenean eta jokabidean duen eraginaz jabetzea, emozioen adierazpena, emozioak erregulatzea, emozio negatiboak aurre egitea eta nork bere ongizatea kudeatzea.
- Autonomia pertsonala: autoestimua, auto-motibazioa, jarrera positiboa, erantzukizuna, arau sozialekiko jarrera kritikoa, laguntza behar denean baliabideak bilatzea eta auto-efikazia emozionala.
- Adimen interpertsonala: oinarritzko trebetasun sozialak garatzea, besteekiko errespetua, komunikazio errezeptiboa eta adierazkorra, emozioak partekatzea, jokabide pro-sozial eta kooperatiboak eta asertibitatea.
- Ongizaterako eta bizitzarako gaitasunak: arazo edo arriskuak hautematea, helburu errealak jartzeko gaitasunak, gatazken ebazpena, negoziazio gaitasuna eta ongizate kontzienteak.

Autodeterminazioaren teoriak, gizabanakoaren oinarritzko hiru behar psikologiko identifikatzen ditu: ekiteko beharra, harremana izateko beharra eta autonomia beharra.

- **Ekiteko beharrak** konpetente edo gai sentitzeko beharrari egiten dio erreferentzia. Gizakiok berezkoa dugu gure ingurunean ekitea eta erronkak lortu nahi izatea, gure gaitasunak

garatzeko. Konfiantzarekin eta esaguratsua izatearekin oso lotua dago. Gure ekintzaren eragilea, berez, ez da saria edo zigorra lortzea.

- **Harremanak izateko beharra** integrazio sozialarekin lotuta dago; hau da, talde baten parte izateko behararekin, pertinentzia sentitzearekin. Harreman onak izateko prest jaiotzen gara, berez. Besteak zaintzeko eta gu zainduak sentitzeko beharra berezkoa dugu.
- **Autonomia beharra**, norberak erabakitzeko behararekin dago lotuta. Gure inguruarekin eta gure bizitzako baloreekin harro eta ase sentitzeko beharra..

Oinarrizko behar hauek, gure bizitza gidatzen dute. Unibertsalak dira, eta garapen integralerako eta osasun psikologikorako ezinbestekoak dira. Behar hauek ez dira ikasiak, berezkoak ditugu, eta gure bizitza osoan zehar eragina dute. Behar hauek asetzen ez direnean, gainera, arazoak sortzen zaizkigu: ezinegona, osasun arazoak, arazo mentalak...

Gure gaitasunak garatzeko beharra berezkoa dugunez, hazkunde-pentsamoldea, etengabeko heziketa edo bizitza osoko ikaskuntza da ikasleengan elikatu beharrekoa. Hazkunde-pentsamoldearen arabera, gure trebetasun guztien oinarria haiekiko denbora eta esfortzua eskaintzen dugunean gara daitekeela sinestea da. Honek, ikasteko eta sendotzeko ilusioa sortzen du erronkak edota zailtasunak sortzen direnenan, eta horrek arrakasta dakar epe

luzera. Pentsatzeko modu malgua duten pertsonak beti daude huts egiteko prest, irtenbide berriak bilatzeko irekita daude eta beren erosotasun gunea uzteko prest daude beren garapenaren mesedetan. Ikasleari lagundu egiten zaionean ez egingarritzat jotzen dituen zereginen aurrean, haien ahaleginaren garrantzia goraipatzen zaionean, pentsamendu malguak osatzen hasten da eta zereginetan aurrerapausoak emateko edo zeregin korapilatsuagoei aurre egiteko pres agertu ohi da.

1.2. Aukera-berdintasuna printzipio gisa

Ikaslearekiko gure begirada eta jardun pedagogikoa, haurren gaitasunetan oinarritzen dela esateak, pertsona guztiek gaitasunak dituztela onartzea dakar. Honela, pertsona guztiak bakarrak eta errepikaezinak gara aitortuz, aniztasuna gure gizartearen ezaugarritzat jotzen dugu.

Gainera, Garapen Ekonomikorako Lankidetzarako Antolakundeak (ELGA, OCDE gaztelaniaz) adierazten du kalitatezko hezkuntza "gazte guztiei helduen bizitzarako ezagutza, gaitasun, trebetasun eta jarrerak bereganatzea bermatzen diena" dela (ELGA, 1999). Kalitatezko heziketa, ikasle guztien eskubidea da.

Aniztasunari erantzutea, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleekin lotu izan da tradizionalki. Baina aniztasunaren begirada zabaldu beharra daukagu. Denak gara desberdinak, denok ditugu ezaugarri anitzak eta denok ditugu beharrak. Aniztasunak iturri anitzak ditu: soziala, kulturala, emozionala, sexuala, kognitiboa, funtzionala... Eta aniztasun horrek egiten gaitu desberdin, baina gure bizitza proiektua garatzeko aukera berdintasuna izatea denon eskubidea da. Garapen horretan, sortuko zaizkigun beharrak desberdinak izango dira, batzuk iragankorrak, beste batzuk bizitza guztian zehar irauten dutenak. Edonola ere, denok dugu gure egoera kontuan hartuko duen hezkuntza erantzuna jasotzeko beharra.

Eskola inklusiboa izateak, inklusiorako printzipioak gure gain hartzea suposatzen du ikastetxeko alderdi guztietan: ikastetxeko kulturen, antolaketan, metodologian, curriculumaren lanketan eta baliabideen kudeaketan.

Kulturalki, gure komunitateko kide guztien parte-hartzea bermatu nahi dugu, ikastolako ikasleek, familiek eta profesionalek komunitate sentimendua bizi dezaten. Horretarako, kide guztiei harrera egiten zaie eta esperientzia aberasgarriak eskaini nahi dizkiogu ikastolako partaide orori, pertsona bakoitza den bezala onartuz eta tratatuz. Horrekin batera, balio inklusiboak ezarri nahi ditugu, inor baztertzen ez den ikastola bat nahi dugulako; izan ere, erabiltzen ditugun hizkerek, idatzi gabeko arauak eta ingurutik jasotzen ditugun ereduak eragin zuzena dute jarrera inklusiboen hedapenean.

Inklusioaren alde jardutea, beraz, hezkuntza-komunitate osoari dagokio. Ezinbestekoa dugu aniztasuna egitatetzat hartzea, aniztasuna bere dimentsiorik zabalenean interpretatzea eta berdintasuna printzipio gisa barneratzea. Berdintasuna ez dugu helburutzat ulertzen, printzipio gisa baizik. Izan ere, pertsonarekiko begiradak bermatzen du berdintasunezko tratua; bakoitzaren diferentziak onartuz pertsona oro parekide gisa begiratzea. Begirada hori hastapenetik bermatzen ez bada, pertsona guztien berdintasuna ezinezkoa izango da. Honenbestez, begiratzeko moduak, harremanak sortzeko modua baldintzatzen duenez, berdintasunean hezte, begirada onez tratatzea da.

Horregatik, ikastolan inklusioa gure hezkuntza proiektuaren giltzarrietako bat da eta ezartzen diren antolaketa, metodologia eta curriculum neurri guztien helburua erantzun inklusibo bat eskaintzea da, ikasleak eskola ibilbide arruntean daudela sustatzen duena.

Antolaketari dagokionez, gure ikastola pertsona guztientzat irisgarri izateko lan egin behar dugu (ikastolako esparru guztiak, gela barneko jarduna, eskolaz kanpoko ekintzak...) ikasleak maila guztietan garatu daitezen eta aukera-berdintasuna izan dezaten. Hortaz, hori eragozten duten oztopoak kentzeko neurriak hartu beharko dira.

Aldi berean, berrikuntza- eta hobekuntza-kultura sendotu nahi dugu; ikastolako antolaketa maila ezberdinetan aldaketak eta hobekuntzak egiteko gaitasuna garatu nahi dugu, diagnosi-ebaluazioen bitartez eta hobekuntza planen bitartez, sor daitezkeen egoerei aurre egiteko eta irisgarritasuna bermatzeko.

Metodologia eta curriculum neurriei dagokienez, ikastetxe mailan, aniztasunari erantzuteko, ikastolako Hezkuntza Proiektuak biltzen diren Oinarrizko Heziketa Lerroak bermatu behar dira. Bestetik, ikasketa-proiektuak lantzerakoan eta edukiak aukeratzekoan, oinarrizko gaitasunak hartu behar dira kontuan; izan ere, azken finean, bizitzan erabilgarri diren gauzak ikastea da helburua.

Ilde honetatik, bestetik, curriculumaren planifikazio eta pertsonalizazio prozesuak eraldatu nahi ditugu. Unesco erakundeak ere, hala adierazi zuen: eskolaren eraldaketak, material eta teknologi berrien erabileratik haratago joan beharko du, aniztasunari erantzuten dion curriculumarekin, ikasle guztientzat ikaskuntza esperientzia esanguratsuak eskainiko dituen (UNESCO, 2001).

Era berean, denek ezberdintasunak onartzean, ikasle estandarrik ez dagoela ondorioztatzen da; normaltasuna ukatzea eta normala omen den horren kontrako etengabeko borroka da gaur egungo pedagogiaren erroka nagusietako bat. Aniztasunari erantzuteko, beraz, irakasteko moduetan aldaketa egin beharra dago. Ikasleen artean ikasteko modu anitzei erantzuteko, irakasteko modu anitzak bilatu behar ditugu.

Denei irakastea, denek ikas dezaten, alde batetik, komunean duguna bermatzea da eta aldi berean, irakaskuntza eta ebaluazioa pertsonalizatzea; hau da, edozein aukera metodologiko edo estrategia hautatzen dugunean, ikasle ezberdinen ezaugarrietara doitzen den hezkuntza erantzuna eskaintzea da helburua.

Pertsonalizatzea ez da, ordea, indibidualizatzea. Indibidualizatzek, pertsona taldearengandik bereiztea suposatzen du. Ikaskuntza, baina, talde heterogeneoetan ematen da, eta taldearen baitan pertsonalizazioa egin daiteke, bakoitzari bere beharren arabera erantzuna emanez, proposamen berdinen barnean. Pujolasek azaltzen duenez, "Hezkuntzaren bidez ikasleen garapen pertsonal eta sozial osoa lortu nahi badugu, ez bata ez bestea ezin dira garatu berdinen taldearen laguntzarik gabe: gaitasun eta trebetasun sozial batzuk taldean, komunitatean, gizartean baino ezin dira garatu". (Pujolás, 2002)

Gaitasunak ditugun bezala, zailtasunak ere baditugu, eta horien guztien jabe izanik eta autoestimua erreal batetik abiatuz, ikaslea bere ikaskuntza prozesuan laguntzea eta ikasteko eta hobetzeko grina edukitzea dugu helburu. Hezitzaileon ardura, ikasleen aniztasun horri erantzuteko, aukera eskaintza malgua eta irekia antolatzea da, irisgarritasun kognitiboa bermatzeko. Horregatik, aniztasun osoa kontuan hartuko duen programazioak, maila anitzekoa

izan beharko du, maila horizontalean nahiz bertikalean, aberaste eta zabaltze neurriak jasoko dituen.

Edonola ere, aniztasunari erantzuna, prozesu gisa ulertzea garrantzitsua da, baita prozesu horretan baliabide anitzak kontuan hartzea ere. Beti ere, ikaslea bere osotasunean aintzat hartu behar da, bere interes eta motibazioak ezagutuz, bere ikasteko estiloan arakatzuz, bere maila curriculurra aztertuz eta garapenaren alderdi ezberdinetan izan ditzakeen beharrak kontuan harturik

Hortaz, ikasle guztien beharrei erantzuna emanen zaie irakasle guztien parte-hartzearekin eta tutoreak koordinatzen duen erantzun arruntetik. Baliabide arrunt horiek guztiak modu inklusiboan antolatu eta gero, kasu batzuetan espezialisten esku-hartzea (pedagogo terapeutikoa, logopeda edota zaintzailea) beharrezkoa izaten da. Laguntza hau ohiko ikasgelaren barnean eta ikuspuntu inklusibotik gauzatzea hobesten da. Horrela, zenbait helburu sendotzeaz gain, ikaskuntza prozesu komunean parte hartzea bermatzen da.

Hau guztia aurrera eraman ahal izateko, ezinbestekoa da irakasleek eta gainontzeko profesionalek elkarlanean jardutea eta irakasleek etengabe prestakuntza jasotzea hezkuntza-jarduna gero eta inklusiboagoa izan dadin.

1.3. Gaitasunak identifikatzea, balioestea eta garatzen laguntzea.

Heziketa emozionalak pertsonaren ongizatean eragiteaz gain, garapen kognitiboan ere eragina du eta gure ikasleek hezkuntza prozesuan zehar arrakasta izan dezaten nahi badugu, ezinbestekoa dugu ikaslearen gaitasunak identifikatzea, horiek baloratzea eta garatzen laguntzea.

Pertsona guztiek dauzkagu gaitasunak eta berezko potentzialitatea eta horiek garatzeko testuinguru egokia izanik, gure zailtasunei aurre egiteko baliabide bihur ditzakegu. Indarguneetatik abiatzean eta ikaslearen interesetatik abiatzean, haurren trebetasunak garatzeari ekingo diogu eta bere zailtasunak arrakastaz gainditzen lagunduko dioten aldaketak sortzeko aukera eskainiko dugu. Horixe da hezitzailearen egiteko nagusietako bat. Jakina da, ikasleek dituzten gaitasunak eta garatu ditzakeen beste hainbat gaitasunak identifikatzen jakiteak eragin zuzena duela haien autokontzeptuan, autoestimuan eta bokazioen aurkikuntzan.

Gaitasunak aztertzean, ikaslearen alderdi anitzi erreparatu behar zaie; hala nola, garapen emozional, sozial eta moralari, garapen fisikoari, adimen gaitasunei, ikaskuntza-estiloari, motibazio eta interesari eta sormen gaitasunei.

Garapen emozional, sozial eta moralari dagokionez, ikaslearen gaitasunak honako alderdietan beha ditzakegu, Bisquerraren eskemari jarraituta:

- Kontzientzia emozionala: emozioak identifikatzeko gaitasuna eta besteenak ulertzeko gaitasuna.
- Erregulazio emozionala: emozioak adierazteko gaitasuna, emozioak eta bere jokabidea erregulatzeko gaitasuna, emozio negatiboen aurrean hartzen duen jarrera, egoera berrietara moldatzeko malgutasuna,
- Autonomia pertsonala: autoestimua positiboa ala negatiboa duen, autoirudi erreala duen, jarrera positiboa ala negatiboa erakusten duen, bere burua motibatze gaitasuna, erantzukizuna eta ardurak hartze gaitasuna, egoerak antolatze gaitasuna, arauetiko jarrera, laguntza eskatzeko eta eskaintze gaitasuna, zentzu kritikoa eta bere iritzietan independentea izateko gaitasuna, bere bururarenganako konfiantza, balio etiko eta justiziarekiko ikuspegi eta jokabideak...
- Adimen interpertsonala: oinarritzko trebetasun sozialak, lidergoa hartze gaitasuna, besteekiko errespetua, berdinekiko edota helduekiko harremanak garatzeko joera, komunikazio errezeptiboa eta adierazkorra, emozioak partekatzea, jokabide pro-sozial eta kooperatiboak eta asertibitatea.
- Ongizaterako eta bizitzarako gaitasunak: arazo edo arriskuak hautemateko gaitasuna, helburu errealak jartzeko gaitasunak, gatazken ebazpenerako gaitasuna, negoziazio gaitasuna, umorea eta ongizate kontzientea.

Garapen fisikoari dagokionez, gorputzaren kontrola eta gorputzaren kontzientziarekin lotutako gaitasunak (erlaxazioa, arnasketa, sentsopertzepzioak, lateralitatea, tonua, oreka, gorputz-jarrerak), gaitasun motriz orokorrak (lokomozio motak), manipulazio gaitasunak (motrizitate fina eta lodia, koordinazio ikusmotorea), denbora eta espazioarekiko harremana (legitura eta orientazio tenporala eta espaziala), erreflexuak, gorputz adierazpenerako gaitasunak, jokoarekiko jarrerak, higie-ne ohiturak... beha ditzakegu.

Adimen gaitasunei dagokienez, funtzio exekutiboei erreparatu beharko diegu: oroimena, malgutasun kognitiboa, inhibizio gaitasuna, atentzioaren kontrola, jariotasuna, prozesamendu abiadura, antolaketa gaitasuna eta erabakiak hartzeko gaitasuna. Bestetik, adimen anizkunen teoriatik, ikasleen adimen profila arakatu dezakegu: linguistikoa, logiko-matematikoa, espaziala, musikala, kinestesikoa, naturalista, intrapertsonala eta interpertsonala.

Adimen gaitasunekin batera, **ikasteko era eta estiloei** ere erreparatu behar diegu. Ikaskuntza-estiloiei buruzko azken azterketek (Silvio Cabrerorenak, besteak beste) proposatzen duten ikuskera holistikoa, estiloak honela defini daitezke: "ikasteko pertsonen forma egonkor samarrak, zeinen bidez adierazten baita nortasunaren izaera bakarra eta errepikaezina, ezagutza- eta afektibitate-arloaren batasuna, eta, besteak beste, zer lehentasun dituen informazioa hautematean eta prozesatzean, denbora antolatzean eta ikaskuntzan pertsonen arteko harremanetan orientatzean. Ikaskuntza estiloak nahiko egonkorak badira ere, ikasleak estrategiak eta trebetasunak lortu ahala, aldatzen eta garatzen joaten dira.

Pertsona bakoitzaren ikaskuntza-estiloak lau dimentsioko elkargunearen ondorio dira nagusiki. Honako irudian, ikaskuntza-estiloen izaera multidimentsionala dator irudikatuta:

- Informazioa jasotzeko bideei dagokienez:
 - Ikasle bisualak: ikasle hauek behatzaileak dira, informazioa irudi bidez azkarrago eta hobeki jasotzen dute. Ikasle hauentzat egokiak dira mapa kontzeptualak, laburpenak, eskemak, diapositibak, grafikoak...
 - Entzumenezko eta hitzezko ikasleak: ahozko azalpenak jasotzen dituztenean hobeki ikasten dute eta bere ideiak adierazteko ere hitza nahiago dute. Debateak, audioak... egokiak dira bere ikaskuntza errazteko.
 - Ikasle kinestesikoak: Ikasle hauek ikasteko materiala ukitu eta manipulatu beharra dute eta mugimendua behar dute. Material manipulatioa, proiektuak, laborategiko lanak... egokiak dira bere ikaskuntza errazteko.

- Informazioa prozesatzeko moduei dagokienez:
 - Ikasle globalak: ikasle hauen pentsatzeko joera holistikoa izan ohi da, osotasuna begiratzuz eta intuizioz jokatzuz. Ideia nagusia ulertu ondoren, ekintza konkretuetara jotzen dute. Sortzaileak izan ohi dira eta kontzentratzeko inguruan musika edukitzea gustuko izan dezakete. Haien lagungarria izan daiteke azken produktua ikustea adibide gisa erabiltzeko edo kontzeptu mapak erabiltzea.
 - Ikasle analitikoak: ikasle hauek sekuentziak eta urratsak jarraituz ikasi ohi dute hobekien. Logika erabiltzen dute. Ekintza konkretuetatik, kontzeptualizaziorako bidea egiten dute. Erreflexiboak izan ohi dira eta aurea hartzea gustuko dute, denboraren kontzientzia handia izan ohi dute eta kontzentratzeko isiltasuna eta lasaitasuna behar izaten dute.
- Sozialki orientatzeko moduei dagokienez:
 - Ikasle kooperatiboak: besteekin batera ikastea nahiago dute, besteekin esperientziak partekatuz asko gozatzen dutelako. Adostasunetara heltzea eta ondorioak elkarrekin praktikan jartzea gustuko dute.
 - Ikasle indibidualak: Bakarkako lana gustuko dutenak dira, maiz erreflexiboak. Beren interesak selektiboak izan daitezke.
- Denboran orientatzeko moduei dagokienez:
 - Ikasle planifikatzaileak: ikasle hauek lana antolatua izan ohi dute, sekuentzia baten arabera ordenatua eta detaile askori erreparatzen diote. Ikasle hauek erosoago sentitzen dira egitura oso markatua duten jardueretan edota errutinetan.

- Bat-bateko ikasleak: ikasle hauek inprobisazioa eta malgutasuna nahiago dute, egitura zehatzik gabeko jardueretan erosoago sentitzen dira.

Ikaslearen gaitasunekin batera, bere **motibazio iturriak eta interesak** aztertzea interesgarria da. Hala nola, gustuko gaiak eta pertseberantzia jarduteko duen gaitasuna, jakinmina, automotibatze gaitasuna, motibazio intrintsekoa eta estrinsekoa, ariketa errepikakorrekiko motibazioa eta perfekzionismo izaerarekin lotutako ezaugarriak.

Azkenik, **sormen gaitasunak** ditugu. Arlo honetan, pentsamendu dibergenterako gaitasunak, galdera onak egiteko gaitasuna, arazoak ebazteko modu berriak bilatzeko gaitasuna, arazoak planteatzeko gaitasuna edota ekoizpenetan irudimena agertzeko gaitasuna baloratu daitezke.

Gaitasunak gaitasun, horienganako norberaren konfiantza gakoa da eta hezitzailearen papera horren ispilu izatea da. Rafael Cristobalek esan zigun moduan, haurrak guregan ikusten du bere burua, guk itzultzen diogun ispilu horretan isladaturik. Hortik, begirada onaren beharra. Ikaslea onartua eta baloratua sentitzen den heinean, bere buruarengan konfiantza garatuko du eta, ikaskuntza prozesuan suertatzen diren erronkei aurre egiteko bere burua gai ikusiko du. Horrek, halaber, besteekiko konfiantza sentitzen lagunduko dio, ingurukoekin harreman onak eraikiz.

María Rosario Fernandez Dominguez-ek azaltzen duen moduan, “Haurrak bere ezaugarri nagusiak eguneratzeko zailtasunak dituenean, hots, nolakotasun periferikoak (eskuzkoak eta adeitasunaren ingurukoak) soilik aintzat hartzen zaizkionean, zauri sakonak sor daitezke, eta, ondorioz, dohain periferikoak garatzera muga daiteke, ingurukoaren arreta eta aitorpena lortzeko. Arazoak sor daitezke, halaber, hezitzailearen asmoa bada haurrak berak nahi duen modukoa izatea, ikaslea bere buruan sortu duen irudiaren arabera otzantzea, haurraren ahalmenak ikusi orde. Hezitzaileen eginkizuna funtsezkoa da haurren hazkunde pertsonalean. Hezitzaileak ikasleen barruko izatea esna dezake, beraien ezaugarri eta balio sakonak ikusten lagun diezaieke, esaten duenarekin baino gehiago, bizi eta egiten duenarekin. Hezitzailea jatorra, benetako, bada eta izatean oinarrituan bizi bada, ikasleen barrua pizteko moduko giro indargarria eta mesedegarria

sortuko du. Gainera, nortasuna garatzen lagunduko die, baldin eta dituzten ahalmenak baliatzeko aukera ematen badie eta haien oinarrizko beharriaz erreparatzen badie”:

“Golden 5” paradigmak ere, begirada horri garrantzi handia ematen dio, ikasleak “golden” edo disdiratsu sentitzeko eta bere konpetentzia- edo gaitasun-sentimendua elikatzeke eta horretarako hainbat tresna zehatz eskaintzen dizkio hezitzaileari; hala nola, zurrumurru positiboak, urrezko momentuak...

Begirada hori, gainera, ezinbestekoa da balio inklusiboak hedatzerakoan. Izan ere, pertsonarekiko begiradak bermatzen du berdintasunezko tratua; bakoitzaren diferentziak onartuz, pertsona oro parekide gisa begiratzea. Begirada hori hastapenetik bermatzen ez bada, pertsona guztien berdintasuna ezinezkoa izango da. Honenbestez, begiratzeko moduak, harremanak sortzeko modua baldintzatzen duenez, berdintasunean hezteak, begirada onez tratatzea da. Ezinbestekoa dugu aniztasuna egitatetzat hartzea, aniztasuna bere dimentsiorik zabalenean interpretatzea eta berdintasuna printzipio gisa barneratzea. Berdintasuna ez dugu helburutzat ulertzen, printzipio gisa baizik.

Bestetik, gaitasunak bete-betean lotzen dira bokazioekin eta norberaren bizitza-proiektuarekin. Ezagutzen eta praktikatzeko dituzten gaitasunen artean, zeintzuk dira benetan betetzen nautenak? Ni zer eginez sentitzen naiz ni neu? Galdera horien erantzunek gure bokazioez hitz egiten digute, baita guran funtsezkoena den jardunaz eta gaitasunaz ere, eta horiek ezagutzea garrantzitsua da gure zoriontasunerako eta gure bizitza proiektuan arrakasta izateko. Honela, hezitzaileok gure bokazioa bizitzen eta elikatzen dugun heinean, gure ikasleen bokazioak esna eta gara daitezke eragingo dugu.

1.4. Zailtasunak garaiz hautematea eta kudeatzen laguntzea

Gaitasunekin batera, zailtasunak garaiz antzematea eta horiek gainditzeko esku-hartze eraginkorra aurrera eramatea ere funtsezkoa izango da ikaslearen garapen integrala bermatzeko. Zailtasun horiek alderdi ezberdinetan eman daitezke: osasunean, alderdi afektiboan, familia eremuan, lagun-artean, ikaskuntzaren eremuan...

Zailtasunak daudenean, gainera, sufrimendua egon ohi da eta hezitzaileok, ikaslea entzunez eta egoera epaitu gabe, sufrimendua ahal den heinean arintzen lagunduko dugu. Horretarako, ikuspegi global eta objektiboa hartzea komeni da, esku-hartze hori alderdi ezberdinetatik jorratzeko eta ikasle, familia, orientatzaile nahiz hezkuntza komunitateko beste pertsonekin elkarlana bideratzeko.

Ikastolako etapa eta ziklo bakoitzean, orientazio mintegiaren laguntzaz, zailtasunak hautemateko protokoloak eta jarraibideak zehaztu behar dira eta idatziz jaso.

Zailtasunak hautematearekin batera, horietan esku-hartu ere egin behar da, baita zailtasun hori bizi duen pertsona horri egoera kudeatzen lagundu ere. Horretarako, estrategia eta bitartekoak definitu beharko ditugu etapa eta ziklo bakoitzean.

1.5. Zaintzaileak zaintzea

Ikaslea da gure jardun pedagogikoaren ardatz, baina ikaslearen garapenean bidelagun diren beste pertsonak (hezitzaile, familia eta komunitate osoa) zaintzeko eta garatzeko baldintzak ere bermatu egin behar dira.

Amaia Anterok, Arizmendi Ikastolako berrikuntza pedagogikoko zuzendariak, adierazten duen moduan, “Konfiantzaren pedagogian haur eta gazteekiko proposatzen dugun esku-hartzea norberaren buruarekiko esku-hartzetik hasten da”; izan ere, “zaila izango zaigu beste bat errespetuz, goxotasunez eta askatasunetik zaintzea, geure burua horrela zaintzen ez badugu”. Are gehiago, hezitzaileok gure indargune eta zailtasunen jabe bagara, gai izango gara gure ikasleen gaitasunak eta zailtasunak identifikatu eta baloratzeko. Gainera, gure lanarekiko ilusioa eta bokazioa elikatu beharra daukagu, eguneroko jardunean, gure gaitasunak praktikan jarritz, lorpenak azalaraziz eta etengabeko garapena eginez. Horrek gure buruarekiko konfiantza garatzea dakar eta ingurukoekiko harreman orekatu eta zorientsuak garatzea ahalbidetuko du.

“Nolako egurra, halako ezpala” dio euskal esaerak. Halako ikaslea hezi nahi badugu, nolako hezitzaileak beharko ditugu? Ondorioa argia da: eredu izanik, ikasleari ispilua itzuliko dion heldu ziurra behar dute haur zein gazteek. Ezagutzaren transmisio hutsetik, ezagutzaren eraikuntza partekatuta pasa behar dugu, hezitzaileok dugun rola birformulatuz eta hezitzaileek elkarrengandik ikasteko eta praktika gogoetatsua egiteko tarteak bultzatu behar dira (kudeaketa aurreratuari buruzko atalean gai honi buruzko azalpen gehiago irakur daitezke.)

Hezitzaileaz ari garenean, ordea, ez gara soilik irakasleetaz ari. Ikastolan lan egiten duen profesional orok, ikasleekin harremana izango du eta ikaslearentzat ikastolako edozein esparru ikaskuntza esperientzia esanguratsurako espazio bilakatu nahi dugu. Hortaz, jantoki, jolastoki, idazkaritza, liburutegi, garraio zein mantenuko langileek ere, hezitzaile gisa, ikasleentzako eredu izan behar dute. Errespetuzko harremanak eraikitzea eta ezagutzaren eraikuntza partekatua bultzatzea denon ardura izango da, beraz.

Familia eta hezitzaileen arteko elkarlana, bestetik, elkarrekiko konfiantza eta nork bere erantzukizunen ardura hartzetik gauzatuko da. Ikaslea/sem-alaba erdigunean jarrita, heziketari buruzko ikuspegia elkarbanatu eta komunean ditugun helburuak lortze aldera jardun beharko dugu.

2. TESTUINGURUAREN BALDINTZAK

Galdera gidaria: **Zer baldintza eskaini behar ditu ikastolak eta hezitzaileak ikasleak inguruarengan konfiantza izan dezan?**

2.1. Komunitatearekin lotura egitea: familia eta gizartea.

Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean (NBE, 1984), familiari bere seme-alaben heziketan lehentasuna eta erantzukizun nagusia aitortzen zaio. Eskolaren papera, beraz, familiari zeregin horretan laguntza ematea da.

Ikastola familien kooperatiba izanik, familiekin elkarlana behar-beharrezkoa da; izan ere, familia eta eskolaren arteko harreman onak komunitate osoari onurak dakarzkio. Alde batetik, ikaslearen motibazioan eragin positiboa izango du eta epe luzean heziketa helburuen lorpenean eragin zuzena duela frogatu dute adituek (NOU, 1995 eta Wentzel, 1998). Bestetik, familiarengan ere, bere seme-alaben heziketan eragiteko gaitasun sentimendua areagotzen da eta, horrekin batera, eskolaren laguntza sentitzeak inplikazio maila areagotzen du. Ikastolako profesionalak ere, harreman onen onuradun dira, ikasleekiko harremanak aberasten direlako eta bere jardunaren kalitatea areagotzen delako.

Harreman on horiek sustatzea, halaber, denon ardura da, ikastolako profesionalek eta familiek helburu bera dugulako: ikaslearen heziketa integrala. Horregatik, familiak eta ikastolak norabide berean arraun egitea garrantzitsua da, bata besteari bere lana eta ekarpena aitortuz.

Familiaren aldetik, eskolarekiko jarrerak eta iritziak zaindu behar dira eta bere eskolako bizipen propioekin lotutako emozioak landu behar dira, seme-alaben heziketarekiko itxaropen errealak eraikitzeko. Bestetik, ikastolako profesionalen jardunari errespetua erakustea eta heziketa alorrean erabakiak hartzeko eskumena aitortzea oinarritzkoa izango da. Horrez gain, ikastolako funtzionamenduan eta jardueretan parte hartzea eta inplikatzeko ere funtsezkoa da; izan ere, ikasleak bere familiaren eta ikastolako profesionalen arteko konfiantza eta elkarlana ikusten duenean, honakoa pentsatuko du: "etxekoek ikastolako profesionalengan konfiantza baldin badute, niretzat ere konfiantzazkoak dira".

Ikastolako profesionalek, bestetik, ardura handia dute familia eta ikastolaren arteko harreman onak sustatzerakoan eta beren jarrera giltza da zeregin horretan. Familia, pertsona bakoitzaren sustraia eta jatorria da eta bere aniztasunean ulertu eta onartu behar dugu, elkarrekiko errespetuz eta konfiantzaz, hartu-eman bi norabideetan eman dadin bermatu behar dugulako. Horretarako, familiak epaitu gabe entzuteak eta ikasleen heziketan duten papera aitortzeak berebiziko garrantzia du. Ikaslearen familia baino hobeak edo okerragoak ez garela pentsatuz, apaltasun jarrera horrekin, familia eta gure arteko elkar ulertzea bultzatzen dugu eta, ikaslearen egoera pertsonalari buruz eta bere testuinguru sozialari eta kulturalari buruz jasotzen dugun informazioa oso lagungarria zaigu, ikaslearen heziketaren gainean erabakiak hartzeko garaian. Helburua, honenbestez, onarpenetik eta errespetutik lan egitea da, bai eta zaintzatik ere.

Zaintza bezala ulertzen dugu familiarekin gure lanari buruzko informazioa gardentasunez eta profesionaltasunez azaltzeko jarrera irekia izatea, ikaslearen garapenaz eta helduon erantzukizunaz dugun ikuspegia partekatzea, euren heziketa-lanerako orientabideak ematea, sortzen zaizkien zailtasunetan bidelagun izatea, euren seme-alabez ditugun elkarriketetan pertsona ikusteko eta ulertzeko dugun ikuspegitik komunikatzea.

Familairen eta ikastolaren arteko harreman onak eraikitzeke zeregin horretan, familia edo guraso eskolak garrantzitsuak dira. Izan ere, familiari pertsona ulertzeko eta modu egokian esku-hartzeko orientabideak eskaintzen dizkiete. Halaber, familiak eta ikastolak modu koherentean aritzea ahalbidetzen dute eta heziketaren inguruko irizpideak eskaintzen zaizkie. Horiekin batera, familiei prestakuntza, gogoeta eta elkarriketa eskaintzen dituzte guraso eskolek. Era berean, ikastola proiektua sendotzeko eta biziberritzeko bitarteko oso egokia da.

Familia eta ikastolaren arteko kooperazioa, gure identitatearen parte da eta ikastolak bere ibilbide osoa, auzolanean eta elkarlanean egin du, maila instituzionalean nahiz maila pedagogikoan, elkarrekin lan egiteko antolaketa egiturak eta prozedurak garatuz.

Azkenik, ikasleek adinean aurrera egin ahala eta herria haren sozializaziorako espazio bilakatzen den heinean, gero eta garrantzitsuagoa da ikastola inguruko eragileekin eta espazioekin harremanetan jartzea. Horregatik, herriko eragileekin eta taldeekin elkarlanean egitasmoak bideratzea dagokio ikastolari, ikasprozesu erreal eta esanguratsuaren bitartez.

Juanjo Vergarak dioten moduan, "Ikaskuntzaren alderdirik garrantzitsuena da ikasleek aurrean duten errealitatea hobeki ulertzen lagunduko duten begirada berriak marrazteko izan dezakeen gaitasuna, baita barrurantz begirada bat eragiteko gaitasuna ere, pertsona gisa nola aldatu diren eta horrekin zer egitea erabakitzen duten galdetzeraz gonbidatuz". Ikasteak eraldaketa pertsonala bat eragiten duen heinean, inguruarekiko konpromisoa garatzen da eta bere inguruan eragiteko gai dela sinisten du ikasleak.

Honela, ikasleak, familiak, langileak, ikastola bera erakunde gisa eta gizarteko eragile ezberdinak, denok elkarlanean, elkarrekin ikasten jartzea, bane eraldaketarako bidaia bat da, eta, elkarrekin, gizarte-justiziarako hezkuntzarekin konpromisoa hartzera eramaten gaitu.

Nancy Fraserren aburuz, gizarte-justizia hiru ardatzetan oinarritzen da: birbanaketa, errekonozimendua eta parte-hartzea.

- Lehen mailako ondasunen birbanaketaren bitartez, historian zehar generoa, gizarte-klasea, kultura, jatorria eta abar direla-eta sortutako desberdintasunak konpentsatzea bilatzen da.
- Errekonozimenduak, pertsona guztiekiko errespetua bilatzen du, pertsona horiek izateko, bizitzeko edo pentsatzeko dituzten moduak edozein direla ere. Kultura-menderatzerik ez izateko, desberdintasuna ezagutu eta errespetatu behar da.
- Gizarte-justiziak, parte-hartzetzat hartuta, parte-hartze sozial eraginkorra izateko beharrezko baldintzak sortu nahi ditu, inor baztertu gabe.

Paulo Freireren hitz ezagunak ekarriko ditugu gogora oraingoan: “hezkuntzak ez du mundua aldatzen, mundua aldatuko duten pertsonak baizik”; izan ere, ukaezina da hezkuntzak duen erantzukizun soziala eta, horretarako, inguru fisiko eta sozialarekin konpromisoa garatuko duten ikasleak hezi behar ditugu.

2.2. Baliabideak, espazioa eta denbora ikaskuntzaren zerbitzura.

Espazioa ikas-prozesua eraikitzeko erabiltzen dugun egitura da, asmo pedagogikoei erantzuten diona.

Ikasteko prozesuari dagokionez, berrikuntza pedagogikoetan aditua den María Acasok egindako ekarpenei jarraituz, espazioak hiru elkarrizketa motari erantzuteko pentsatuak egon beharko lirateke. Batetik, irakaslea eta talde handiaren arteko harremana ahalbidetuko duen

espazioa, bestetik, ikasleen arteko harremana ahalbidetuko duena (kooperaziorako, taldeetarako...) eta, azkenik, bakarrik egoteko edo bakarkako lana ahalbidetzeko baliagarria dena. Irakas- eta ikas-prozesuekin lotutako espazio horiez gain, ikasleari lasaitasunerako, bere baitan biltzeko espazioak ere eskaini nahi dizkiogu.

Halaber, ikasleen irteera profila kontuan hartuz, horretara iristeko baliatu beharreko metodologiak ahalbidetzeko espazioak diseinatu ditugu. Adibidez, taldekatze egoera ezberdinak kontuan hartu beharko dira, erreferentziazko taldea eta komunitate osoarekin aritzeko espazio malguak sortu nahi baititugu. Norbanakotik sozializaziorako jauzia eman dezaten, egoera anitzetara ongi moldatuko diren espazio malguak.

Horrez gain, lanerako eta ikasteko leku argitsu, zabal eta atseginak sortu nahi ditugu, gardentasunari berebiziko garrantzia emanez. Izan ere, gardentasuna, segurtasuna eta konfiantza areagotzen dituela jakina da. Bidenabar, akustikak giro lasai eta atsegina sortzeari begira duen garrantziaz ohartuta, arlo honi ere bere tokia eskaini zaio bai izandako gogoetan eta baita hartutako erabakietan ere.

Azken finean, eraikinak eta espazioek azpimezu ugari igortzen dituztela uste dugu, batez ere jarrera eta jarduera positiboak bultzatzen dituztenak eta, zalantzarik gabe, gure ikasleen jarreran eragiten dutenak.

Altzariei dagokien ere, lanerako eta harremanetarako aukerakotasun zabal horri erantzun nahian, malgutasuna, mugikortasuna eta autonomia ahalbidetzen dutenak aukeratuko ditugu.

Espazioei buruzko gogoeta honetan kanpoko espazioa ere kontuan hartzen dugu; izan ere, jolasa garapenerako oinarritzko jardueratzat ulertuta, jolasteko garaia ikastolako hezkuntza-jardueretan integratua egon behar duela sinisten dugu.

Horretarako, jolastokia eta ikasgelen artean lotura eta harremana egotea ezinbestekoa da; bata bestearen jarraipena edota osagarri izatea, alegia. Honela, barneko espazioetan bezala,

kanpoko espazioek haur eta gazteen behar kognitibo, sozial, fisiko eta afektiboak erantzun behar diete. Espazioek ekintzarako grina pizteko gaitasuna izan behar dute eta ikasleen izaera anitzak kontuan hartu behar dituzte, aukera malgutasuna eskainiz.

Halaber, kanpoko espazioek ikastolaren oinarritzko baloreekin bat egiten dute. Izan ere, hezkidetzan oinarriturik, eskaintza anitza egiten duten espazioak sortu ditugu: joko sinbolikorako proposamenak, motrizitate naturalerako proposamenak, kirol mota ezberdinetarako espazioak, biltzeko guneak, material naturalekin sortutako proposamenak... Gainera, gune osasungarriak, jasangarriak eta ekologikoak sortu ditugu, naturarekiko errespetua eta konpromisoa adieraziz, dauzkagun baliabideekin bateragarriak diren espazioak nahi ditugulako.

Denborari dagokionez, Amaia Anterok, Arizmendi ikastolako berrikuntza pedagogikoko zuzendariak, ikastola horrek argitaratutako “Konfiantzaren Pedagogia” liburuan bildutako aldagaiak hartu behar dira kontuan:

- Norbanakoaren erritmo biologikoa: esnaldi eta loaldien arteko txandakatze erregularra.
- Norbanakoaren erritmo kognitiboa: arretarako gaitasuna. 4-9 urteko haurren arreta gaitasuna altuagoa da goizez. 10-12 urteko ikasleek, berriz, arreta-gaitasun bera dute goiz zein arratsaldean.

Erritmo kognitibo horiek ezagutzea eta kontuan hartzea garrantzitsua da eta erritmoekin batera, ikasteko estiloak eta ikaslearen egoera kognitibo-emozionala.

Zentzu honetan, adin ezberdinetako nahasiz antolatzen diren jarduerak interesgarriak dira, bakoitzari bere erritmo kognitiboen arabera jardutea ahalbidetzen diotelako.

- Arretaren iraupena: pertsonaren arreta-gaitasuna ez da mugagabea eta saioak antolatzerakoan hezitzaileak hori kontuan hartu behar du. Adinaren arabera orientabide hauek ditugu:

Adina	Arretaren iraupena gehienez
3-5 urte	5-8 min
5-11 urte	8-12 min
12-18 urte	12-15 min
18tik aurrera	15-18 min

Arreta, gaitasun mota bat izanik, landu egin daiteke eta horretako estrategiak lantzea dagokio hezitzaileari. Mindfulness-a, erlaxazio-teknikak... zeregin horretan lagungarriak dira.

- Aktibazio eta desaktibazio motorra: Badira aktibitate psikomotor handiko neska-mutilak eta badira desaktibazio psikomotorreko uneetan egoten direnak. Batzuen zein besteen erritmoak errespetatzea garrantzitsua da. Metodologia aktiboak eta espazioen berrantolaketa irtenbide onak dira erritmo desberdinei erantzuteko.

Erritmoa errespetatzeak, baina, ez du esan nahi umea bere kasa uztea, bere beharrak eta ezaugarriak kontuan hartzea baizik. Aktibazio motor handia duen ikasle bati bere ezaugarrietara hobeki egokitzen zaizkion proposamenak egin diezazkiogu, baina bere aktibotasun horrek bere garapena edo taldearen garapena oztoka baldin badezake, helduak neurriak hartu behar ditu ikasle horri laguntzeko.

Gauza bera gertatzen da erritmo motelagoa duen ikaslearekin. Zenbait lan egiteko denboran malgutasuna eskaintzea positiboa izango da ikaslearentzat, baina moteltasun horrek inizatibarik eza ekarri edo garapena oztopatuko balu, hezitzaileak estrategiak bilatu beharko lituzke ikaslearen erritmoan eragiteko.

Espazio eta denboraren antolaketan, egitura argiak eskaintzea oso garrantzitsua da ikaslearen segurtasun emozionalerako. Eta ildo honetatik, aipamen berezia behar dute trantsizio

garaiek. Jarduera batetik bestera pasatzean edo espazio batetik bestera mugitzerakoan, ikasleari eskaintzen zaion egitura antolatuta eta argi egoteak berebiziko garrantzia du, ziurtasun ezak ihes egiteko senak berehala aktibatzen dituelako.

Egunerokoaz gain, ziklo edota etapen arteko trantsizio garaiak ere zaindu behar ditugu, aldaketa horiek ikaslearen bizitzan eta ibilbidean oso esanguratsuak direlako eta sarritan beldurra eta urduritasuna eragiten dituztelako. Ziklo edo etapa baten hastapenetan, norberaren girotze-erritmoa errespetatu beharko dugu, eperik jarri gabe, bakoitzaren egoera emozionala nolakoa den behatuz eta poliki-poliki ikaslea ikas-ekintzetan edo jardueretan integratuz. Girotze prozesu hau modu egokian egiten bada, ikasleak konfiantza hartuko du eremu guztietan.

Hori dela eta, ikastolak ziklo edo etapa bakoitzeko hastapenetarako eta, honenbestez, ziklo aldaketen trantsizio-prozesuetarako girotze-prozesua diseinatuko dugu.

Digitalizazioa, gizartea eraldatzeko duen gaitasuna dela eta, egunean-egunean gure bizitzetan eta aldi berean hezkuntza sisteman sartu den aldagai garrantzitsua da. Gai honi dagokionez, askotan, hezkuntza komunitatea osatzen dugunok planifikatu gabeko erabakien multzo nahasi moduan bizi izan dugu orain arteko ibilbidea.

Horregatik, digitalizazioaren edo teknologia berrien rola gure hezkuntza proiektuaren oinarrian ongi zehaztuta egotea ezinbestekotzat jotzen dugu. Rolak ez du instrumentala izan behar, izan ere, digitalizazioa ez da ikastetxeak ordenagailuak edota tresnak eskaintzea ikasle zein irakasleei. San Fermin Ikastolan, teknologia berriak hezkuntzan funtzio soziala indartzera bideratzeko tresnak direla ulertzen dugu.

Digitalizazio zabal eta osoa bermatzeko ikasleen jarduna ekosistema hertsietara mugatzeak ez du zentzurik. Herritar erantzule eta kritikoak hezi nahi baditugu mundu digitalaren ulermen zabala beharko dute etorkizuneko ikasleek. Bizi diren munduaren parte garrantzitsua den mundu digitalaren ezaguera kontsumitzaile paperera mugatzen badugu, honen funtzionamendua ulertzea ukatuz, jakintza hori hankamotz geratuko da.

Digitalizazioak badu ekarpen interesgarria egiterik hezkuntza eraldatzeko edo hezkuntzan berrikuntzak egiteko eta, horrenbestez, hezkuntzarekin uztartzeko orduan, biziki garrantzitsua da

aintzat hartu eta ongi aztertzea zeintzuk diren elkartze horrek erabiltzaileen rolean eta harremanetan nola eragiten duen. Aztertze-lan hori abiapuntu, ikasleen artean testuinguru digitalean duten rolaren gaineko hausnarketa bultzatzea eta rol-ereduak eraikitzen laguntzen izango da xedeetako bat. Digitalizazioak gazteen arteko harremanetan nola eragiten duen hausnartzea eta gaitasun digital kritikoa garatzea.

Digitalizazioaren eginkizuna zein eta nolakoa izatea nahi dugun diseinatzean, zaintza da beste oinarrizko zimenduetako bat: "Azken urteetan bereziki ikusi da zein garrantzitsua den testinguru digitaletan gabiltzanean horien zaintza egitea, ez bultzatzea ikasleak pragmatismo palanka batekin helburu bat lortzera eraginkortasunaren bila. Momentuak eta prozesuak ongi zaintzea da garrantzitsua. Covid garaian, ikerketa batek erakutsi du bakarrik irakasleen % 51 egon dela egunero ikasleekin harremanetan. Zaintzaren arte digitala zaindu behar da eta guk geuk modelajea egin behar dugu horren aurrean". (Nagore Ipiña, Arrasateko Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakasle)

Konexioa digitalizazioaren beste zutarrri garrantzitsuetako da. Testuinguru digitaletan ere, ikasleei nor bere buruarekin eta besteekin konektatzeko eta elkarrekintzan jarduteko aukerak eskaini behar zaizkie. Informalak ez ezik, informalak ere izan daitezke testuinguru digitaletik eraiki behar ditugu espazio horiek.

Testuinguru digitalek XXI. mendeko gaitasunak (hala nola, pentsamendu kritikoa, sormena, lankidetzak, komunikazioa, ikasten ikasteko gaitasuna...) garatzeko aukera ematen digute. Hezkuntza-komunitateko esperientziak eta proposamenak, denak batera jarri, kapitalizatu eta horren gaineko proposamenak partekatzea ahalbidetzen dute. Baina ezbairik gabe, erantzunkidetasunetik eraiki beharra dago digitalizazioa.

Bestalde, digitalizazioaren rola instrumentala izan behar ez duen arren, konpetentzia digitalari edo formazioari dagokion tokia ematea beharrezkoa ikusten dugu. Egunetik egunera tresna berriak sortzen dira eta begien aurrean eduki behar ditugu. Horiek ezagutzea eta erabiltzea aberasgarri izango zaigu gure proposamenetan ekarpenak egiteko baliagarriak izan daitezkeen

heinean. Aitzitik, tresna bakar batzuetara ohitzeak begirada berrikuntzetatik aldentzea ekar dezake eta ekarpen esagunguratsuak izan daitezkeenak alde batera uztea.

Orobat, hezkuntzaren ardatz euskara izatea izatea nahi dugun heinean, arlo digitalean ere euskara bermatzea ezinbestekoa da.

Zama teknologikoa arintzearen beharra ere azpimarratzekoa den alderdia da digitalizazioari gagozkiolarik. Ikasle eta irakasleei begira, bereziki garrantzitsua da zama teknologikoa arintzea, ahalik eta ikusezin geratzea. Eskaintza zabala egitearren, proposamen digitalen diseinuetan tresna digital ugari agerrarazteko joera dago batzuetan. Alabaina, zama teknologikoa irakasle zein ikaslearen prozesua malgutzeko, aberasteko kaltegarri da. Hortaz, paisaia digital garbiak eskaini behar dira, neurriz gaineko estimulazioa eta nahasmena ekiditen dituztenak.

Finean, ikasle, irakasle eta ikastolako komunitate osoarentzat jasagarria, esanguratsua eta osasuntsua izango den eredua bilatzen du gure hezkuntza oinarrietako digitalizazioak.

Ikasmaterialak, digitalak eta analogikoak, ikasle guztien konpetentzia-garapenean lagungarri izango dira eta hezkuntza-eredu integral baten zerbitzupean egongo dira. Ildo horretatik eta ikaslearen irteera-profiletik abiatuta, San Fermin Ikastolaren hezkuntza marko pedagogikoan bildutako printzipioekin, planteamendu didaktikoarekin eta metodologikoarekin koherenteak diren ikasmaterialen eta hezkuntza-edukien erabilera susatuko dugu San Fermin Ikastolan.

2.3. Bizikidetza

Bizikidetza pertsonen elkarrekin bizitzeko duten gaitasuna da; horretarako, pertsonen arteko errespetua eta elkartasuna, aniztasuna aitortzea eta errespetatzea eta diferentziak eta besteen ikuspegiak baloratzea eta onartzea ezinbestekoa da.

Jakin badakigu, pertsona batek bere bizitzako erronkei eta zailtasunei erantzuteko gaitasuna izateko, bere buruarengan eta besteengan konfiantza izan behar duela eta horretarako, testuinguru fisiko eta sozial segurua eskaini behar zaio. Horregatik, ezinbestekoa da gure ikastolako eremu guztietan giro atsegina sortzea (gelan, atsedendietan, jantokian, autobusean...) eta hori hezkuntza komunitate osoaren ardura da.

Filosofia honek komunitate osoa eragile orokor gisa ulertzea dakar; ikastetxeko bizi-kulturaren, ohituren, arauen eta baloreen eraikitzaile gisa, alegia. Hezkuntza-komunitateak ikastetxean gertatzen den ororen erantzukizunaren jabe izan behar du eta komunitate horren barruan dauden mikro-sistema sozial bakoitzak (zuzendaritza, orientazio mintegia, irakasleria, ikasleria, familiak eta langile ez dozentek) bere leku eta zeregin propioa izan behar du, bizikidetza onaren eragile eta onuradun gisa.

Gure ikastolako Bizikidetza Planak, baloreen heziketa sustatzea, pertsonaren duintasuna bermatzea eta berdintasunean oinarritutako harremanak eraikitzea du xedetzat. Honela, elkartasuna, laguntasuna, errespetua, berdintasuna, erantzukizuna, jarrera erasotzaileen prebentzioa eta gatazken ebazpenerako trebetasunen garapena bultzatzeko, gure Bizikidetza Planak bi lan ildo nagusi ditu: prebentzioa eta esku-hartzea.

Prebentzioari dagokionez, gure elkarbizitza-dinamika diziplina positiboan oinarritzen da. Komunitateko kide ezberdinen arteko elkarbizitza on eta seguru baterako, arauak marko seguru eta ordenatu bat eskaintzen digute. Arauek pertsona guztien eskubideak eta betebeharrak kudeatzen eta bermatzen laguntzen dute; izan ere, guztiok dugu errespetatuak izateko eskubidea eta baita besteak errespetatzeko betebeharra ere. Aldi berean, gizartearen aniztasuna aitortzeak, pertsona ezberdinekin harreman onak eraikitzea dakar, baita elkar zaintzeko eta laguntzeko jarrera garatzea ere.

Gure ikastolan hiru arau nagusi ditugu eta arau horiek ikastolako eremu guztietan modu proaktiboan lantzea eta betetzea komunitateko kide guztien eginbeharra da. Honako hauek dira arauok: pertsonetikiko errespetua, material eta instalazioekiko errespetua eta lan- eta jolas-giroarekiko errespetua. Hiru arau nagusi hauen aterkipean, ikastolako eremu edota ikasmaita bakoitzeko zehaztapenak egiten dira, toki bakoitzaren beharretara eta pertsona ezberdinen ezaugarrietara egokituz. Arauak modu positiboan ulerturik eta elkarbizitza on baterako duen

funtzioa nabarmendurik, ikasleek arau hauek bere egin ditzaten dugu helburu, modu horretan arauetikiko konpromiso pertsonala eta motibazioa areagotzen delako. Ikasleak ere arauen zehaztapenean eta jarraipenean partaide eta eragile egitea, elkarbizitzaren oinarri demokratikoaren adierazle argia da.

Besteekin bizitzen jakitea gaitasun bat dela esaten dugunean, ikaskuntza prozesu baten ondorio dela esan nahi dugu eta ikasle orok, prozesu horretan, bere eskubideak, nahiak eta beharrak aldarrikatzeaz gain, huts egiteko eskubidea ere badu. Halaber, bizitzan zehar, norbere ekintzen erantzukizuna bere gain hartzen ikastea, heldutasun seinale izan ohi da. Arauak ez betetzeak edo besteen eskubideak urratzeak dituen ondorioen jabe izatea eta eragindako kalteen zuzenketa egitea, norbere ekintzaren erantzukizuna hartzeko bide hezigarria da, bizitzarako eta etorkizuneko egoeretarako baliabideak eskaintzen dituenena. Bestelako neurri punitiboak, ondorio hezigarriek funtzionatzen ez dutenean erabiltzen dira, Nafar Gobernuak 47/2010 eta 204/2010 foru dekretuetan arautzen dituen jarraibideak erabiliz. Beti ere, neurri horiek ezartzeak, ikaslea ikaskuntza prozesuan laguntzea izango dugu xede nagusi; hau da, ikaslearen ekintzen gainean egingo dugu lan, ikaslea pertsona gisa epaitu gabe.

Elkarbizitza on baterako gaitasuna garatzeko, egunerokoak ikasbide aberatsa eskaintzen badu ere, gure curriculumaren baitan, bizikidetzarekin lotutako edukiak lantzea ere gakoa da. Horren bitartez, harreman osasungarriak eraikitzea, komunikazio ez-bortitzak sortzea eta elkarren arteko laguntza eta zaintzarako jarrera garatzea bilatzen dugu.

Berdinen arteko harremanaz gain, profesionalen eta ikasleen arteko harremanak ere berebiziko garrantzia du; hau da, elkarrekiko errespetuan eta parte-hartzean oinarritutako harreman onak eta seguruak ezartzea garrantzitsua da. Eredu gara, gainera, baita euren arteko harremanak eraikitzeke moduetan ere. Golden 5ek dioenez, ikasleengan eraginkorrak izateko haiekin tratua, erlazioa, eta elkarrizketa eduki beharra dago. Ikerketa ezberdinek erakusten dutenez, gainera, irakasleek eta gainerako helduek ikasleekin harreman positiboak dituztenean ikasleen emaitza akademikoak hobetzen dira; hau da, irakasleek ikasleak ezagutzen dituztenean, beraiekin kezkatzen direnean, hurbilak direnean, ikasleekiko itxaropen altuak dituztenean... ikasleen emaitza akademikoak hobetzen dira.

María Rosario Fernandez unibertsitate-irakasleak garatu beharreko hainbat jarrera aipatzen ditu ikasleen eta irakasleen arteko harremanean:

- Jarrerarik garrantzitsuena harreman jatorra izatea da. Hezitzailearen afektua, esaten duena eta ikasleenganako fedea benetakoak direla sumatzea ikasleek.
- Sakon entzuten jakitea. Gaizki jokatu arren, barru-barruan nolakoa den ikustea da kontua eta zer nolako ezaugarriak, mugak eta ahalmenak dituen aurkitzen saiatzea.
- Pertsonatik pertsonarako harremanak sortzea: ikaslea gustura sentituko delako, autoestimua handituko zaiolako eta lotura afektiboa sortuko delako.
- Maitasunez eta samurtasunez jokatzeko: den bezalakoa ikusten dutela sentitu behar du haurrak.
- Pertsona moduan errespetatu eta horrelaxe tratatu (ez heldu txiki moduan).
- Fedea izan ikaslearen gaitasun eta ahalmenetan. Iragarpen eta igurikimen negatiboak saihestea komeni da, bete egin baitaitezke bestela.
- Benetan eta baldintzarik gabe goraipatzen jakitea, autoestimua eta norberarenganako konfiantza handitzen laguntzen baitu.
- Pazientzia izan eta hutsegiteak, ahultasunak eta hanka-sartzeak onartzea.
- Ez epaitu, kritikatu edo etiketatu. Hezitzaileak badu sentimenduak zintzotasunez azaltzerik, baina pertsonaren osotasuna epaitu gabe. Zaila da pertsona moduan garatzea, alboan begirada kontrolatzaile bat duzula.
- Bere kabuz erabakitzen lagundu behar zaio ikasleari, inposatu gabe. Erabakiak hartu behar dituenean, beraren buruan pentsatzeko esan behar dio hezitzaileak eta adinaren arabera

erabakiak hartzen utzi behar dio.

- Garrantzi handiagoa eman behar dio pertsonari, dituen arazoei baino. Ikaslearen zailtasunen aurrean, haren errealitatea zein den jakitea komeni da.
- Jokabidearen arrazoiak jokabidearen beraren aurretik jarri behar dira. Jokabide negatiboek zauriak ezkututzen dituzte eta zauriok pertsona esanguratsuekiko harremanetan izan ohi dute abiapuntua.
- Lanarekiko interesa eta ilusioa erakustea, bai eta bizitzaren aldeko jarrera ere.
- Hazten laguntzen duten testuinguruak sortzea, ikaslearen beharrak aseko dituen giroa, arriskutik libre eta naturarekin lotua.

Horrez gain, irakasleek gelan sortzen diren giza harremanen etengabeko azterketa egin behar dute, ikasleen artean sor daitezkeen botere desorekak hautemateko eta horien gainean esku-hartzeko.

Eskuhartzearen alorrean, gatazken ebazpenaren eta jazarpen egoeren gaineko esku-hartzea egiten da.

Ikasle-irakasle, ikasle-ikasle, irakasle-irakasle nahiz irakasle-familia arteko gatazken ebazpenean, errespetuan oinarritutako komunikazioa funtsezkoa da. Rosenberg-en Komunikazio ez-bortitzaren metodologiak, komunikazioaren bi alderdiak lantzen ditu: adierazpena eta entzutea. Honela, “gidatu egiten gaitu geure burua nola adierazi eta besteei nola entzun berregituratzen jakiteko. Ohiko erreakzio automatikoen ordeztu, gure hitzak erantzun kontziente bihurtzen dira, hautematen, sentitzen eta nahi dugunaren kontzientzia irmo oinarrituz”. Honela, kontzientziaren argia 4 osagaietan jartzen da (behaketa, sentimenduak, beharrak eta eskaerak) eta osagai bakoitzean adierazi beharrekoa adierazteko eta esaten zaiguna enpatikoki jasotzeko estrategiak eskaintzen ditu.

Besteekin harremanak eraikitzean, gatazkei aurre egitea eguneroko erronka da gure bizitzan. Gatazkek, modu positiboan ulertuta, giza harremanak kudeatzen ikasteko aukera eskaintzen dute eta harreman sozial egokiak izateko baliabideak garatzeko testuinguru eraginkorra dira. Gatazkaren ebazpenean trebatzea, bizitzarako oinarritzko gaitasuna garatzea da eta bide horretan lagundu nahi ditugu ikasleak; hala nola, norbere emozioak eta beharrak identifikatzen, horiek kudeatzen, modu asertiboan komunikatzen, bestearen ikuspuntua kontuan hartzen, enpatia garatzen, gatazkari irtenbide demokratikoa bilatzen... Helduaren papera, gatazkaren ebazpenean bitartekari izatea da eta ikasleek gero eta autonomia handiagoa garatzea du helburu. Ikasleen adinaren arabera, helduaren esku-hartzea ezberdina izango da, noski. Txikiengan zenbait trebetasun modelizatu behar dira eta eredu onak eskaini behar zaizkie. Ondoren, behar diren abileziak barneratzen joan ahala, ikasleek gero eta autonomoagoak izatea da helburua eta, gazte garaian, berdinen arteko gatazketan bitartekari lanetan aritzen ikastera ere iris daitezke.

Jazarpenari aurre egiteko eta hautematen diren kasuetan esku-hartzeko, gure ikastolan Nafar Gobernuko protokoloek emandako irizpide eta jarraibideak jarraitu ditugu beti eta KiVaren ekarpenekin uztarturik, ikastolan ibilbide sakona egin dugu; alde batetik, zuzendaritza, orientazio mintegia eta bizikidetza taldea, jazarpenari buruzko prestakuntza sakona eginez, kasuen gaineko esku-hartze eraginkorrean trebatu egin da eta, bestetik, hezkuntza komunitate osoarekin batera egiten den lana da (irakasleen sentsibilizazio eta parte-hartze zuzena, langile ez-dozenteen inplikazio eta kolaborazio neurriak, familiekin sentsibilizazioa, formazioa eta elkarlana eta, nola ez, ikasleen inplikazioa eta parte-hartze zuzena).

2.4. Taldekatze eraginkorrak egitea.

Izaki sozialak garen aldetik, ikaskuntza taldean garatzen dugu. Lan indibidualerako tarteeek taldeari ekarpen bat egiteko helburua izan beharko dute. Neurozientziek argi utzi duten gisan, errekonozimendu soziala da garunarentzat ezagutzaren erabilgarritasuna justifikatzen duena.

Ikasleak taldekatzerakoan, taldekatze zurrunetatik atera eta malgutasunez jokatu nahi dugu eta antolaketak helburu pedagogikoen lorpena erraztu dezan nahi dugu. Honela, gela barnean edota, erreferentziazko taldetik haratago, talde nahiz adin desberdinetako ikasleen arteko taldekatzeak egiteko aukera garatu nahi dugu.

Taldekatzeak homogeneoak edo heterogeneoak izan daitezke. Taldeak homogeneoak direla esaten da, jarduera jakin bat egiterakoan, taldekideek ezaugarri edo gaitasun bat komunean dutenean edo maila beretsuan daudela antzematen denean. Garapen hurbileko eremua parekoa dutela esan liteke. Bestetik, taldeak heterogeneoak direla esaten da, taldekideek gaitasun maila ezberdinak dituztenean.

Taldeak zoriz egin daitezke, beste batzuetan ikasleek aukeratuta eta bestetan, berriz, irakasleak sortutako taldeak dira zenbait aldagai kontuan hartuta: ikasleen arteko harremanetan, ikasleek duten dominantzia mota (menderatzaile edo menderatua) eta lotura mota (bakezaleak ala oldarkorrak), adimen motak, profil linguistikoa, sexu- eta genero-aniztasuna....

Talde homogeneoak ala heterogeneoak egitea helburuen arabera erabakitzen da. Talde homogeneoek trebetasun jakin batzuk menperatzeko edo instrukziozko helburu batzuk lortzeko balio dezakete. Talde heterogeneoetan, ikasleek metakognizioaren lanketan parte hartzen dute, azalpenak sarriago jasoz eta emanaz, eta gairen inguruko iritzi trukaketa handiagoa ematen. Ulermen maila, arrazonamendu kalitatea eta epe luzearako memoria areagotu egiten da.

Oro har, talde heterogeneoetan lan egitea hobesten da. Talde homogeneoak zenbait momentutan, trebetasun jakin batzuk sendotzeko adibidez eraginkorrak izan daitezkeela ikusi da, baina denboran iraupen gutxikoak izatea komeni da, epe luzean ikasleen espektatibengan izan dezaketen eragina negatiboa izan daitekeelako.

Adin desberdinetako ikasleen arteko elkarrekintza eta ikaskuntza, aberasgarria ez ezik, eraginkorra ere bada, hainbat unetan. Hainbat adineko ikasleak nahasterakoan, zaintzeko senari erantzuten diogu, zaharrenak txikiagoak zaintzeko gogoia izan ohi dute eta.

Hartara, David Duran psikologo eta ikertzaileak, ikasleek elkarrengandik ikasten dutela argudiatzeko, ikerlan eta ebidentzia zientifikoak bildu ditu. Ikerketa horretan jasotako ondorioen artean, azpimarragarria da honakoa: ikasle batek beste bati gairen bat azaltzen dionean eta bestearekiko elkarriketan gaiari buruzko galderak erantzuten ditunean, honako prozesuak ematen dira:

- Norbere buruaren eta ikaslearen behaketa egitea.
- Ikasleari entzun eta bere zalantza edo prozeduren kontzientzia hartzea.
- Esperimentatzea: arazoen ebazpenerako beste modu batzuk probatzea.
- Zenbat eta elkarreragin handiagoa, orduan eta handiagoa izango da ikaspena irakasle lana egiten duenarentzat.

Elkarreragin hori talde kooperatiboetan eta adin desberdinetako ikasleen arteko ikaskuntza saioetan ematen da, ikasleek elkarri gaiei buruzko azalpenak eman behar dizkietelako eta norbere zalantzak eta besteenak argitu behar izaten direlako. Eta ikerketek frogatu dutenez, guztiz onuragarria da bai ikaslearentzat baita irakasten duenarentzat ere.

Taldekatzeak egiterakoan, beraz, azaldutako aldagai hauek guztiak unean uneko helburuen eta testuinguruaren arabera aplikatu beharko lirateke.

3. IRAKATSI ETA IKASTEKO BALDINTZAK

Galdere gidaria: Zer baldintza eskaini behar ditu ikastolak eta hezitzaileak ikasleari ikaskuntza prozesuan laguntzeko?

3.1. Ikaslea protagonista: ikaskuntza aktiboa

Azken urteetan, neurozientziaren eskutik datozkigun ikerketek zera baieztatzen dute: ikasi ahal izateko, ikasleak ezinbestean ongi sentitu behar du, hau da, egoera emozionalak ikaskuntza baldintzatu egiten du. Emozioak eta kognizioak binomio banaezina osatzen dute. Horregatik, ikaslearen ikaskuntza prozesua esanguratsua eta arrakastatsua izan dadin, metodologiaren gune ikasleak berak izan behar du eta ikaskuntza hori modu aktiboan garatu behar du, emozioek (eta motibazioak) bultzaturik.

Ikaslea metodologiaren gune dela esateak, ikaslea ikaskuntzaren eragile nagusizat hartzea dakar eta, honenbestez, hezitzaileari prozesu horretan bidelagun izatea dagokio.

Neurozientziak ikaskuntza nola gertatzen den ulertzeko hainbat gako eman dizkigu: hala nola, neuroplastizitatea, sare hebbiarren sorrera, emozioen eragina sare berri horiek finkatzerakoan, ezagutzak esanguratsuak eta erabilgarriak izatearen garrantzia...

Hori dela eta, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren hasieratik, ikaslearen motibazioa piztearen garrantzia gakotzat jotzen dugu, bere bizitzarekin, bere errealitatearekin eta bere interesekin lotutako proposamenak eskainiz eta bere egunerokorako nahiz etorkizunerako erabilgarriak izango zaizkion egoerak eskainiz. Ikaslearen motibazio intrintsekoa piztea da helburua, horrek emango baitio bidea ikaskuntza autonomo eta autoerregulatu bati. Hainbatetan, bestalde, motibazio intrintseko hori piztea zaila denean, autoerregulazio hori modu estrintseko batez integratzea beharrezkoa izaten da, proposatutako jardueren xedea norbere buruaren baloreekin eta beharrekin integratuz.

Ikaskuntza ezagutza eraikitzeke bitarteko bat da, eta kontzientea, inkontzientea, gorputza eta gainerako pertsonetikiko harremanak eta gertatzen den testuingurua jartzen ditu jokoan. Horregatik, ikaskuntza prozesua diseinatzean lau alderdi hartu behar dira kontuan: arrazonamendua, harremanak, emozioa eta gorputza. Arrazonamenduaren bitartez, ezagutzen ulermen sakon baterako eta haiek modu sortzailean eraldatzeko gaitasunak lantzea bilatzen dugu. Emozioari dagokionez, ikaskuntza-edukia gure nia inkontzientearekin lotzeak, motibazioan funtsezko zeregina du, ikasteari zentzua ematen dio eta gainerako pertsonetikiko lotura komunak ezartzeko baldintza pertsonaletan kokatzen gaitu. Harremanen bitartez, (lan kooperatiboa, berdinen arteko tutoretzak...) esanahia negoziatu egiten da, ikasitakoaren erabilgarritasunean pentsatzeko. Azkenik, gorputzaren bitartez, ikasten dena eraginkortasunez sartzea eta ekintza-balioa ematea lortzen dugu. Kontuan hartu behar da, halaber, lau alderdi horiek testuinguru jakin batean gaineen jarduten dutela eta testuinguru horrek berariazko ezaugarriak eta historia propioa duela. Beste modu batera esanda, ikaslea aktiboa nahi badugu, ikaslea bere osotasunean mobilizatu behar dugu (gorputzez ekinez, emozionalki, sozialki zein adimenez) eta testuinguruarekin elkarreraginean egon behar du.

Motibazio hori prozesuan zehar mantendu nahi bada, ikaslearen gaitasunak eta zailtasunak antzematea ezinbestekoa zaigu. Ikaslearen indarguneak loratuz, ikaslearen konpetentzia sentimendua elikatzen dugu eta, hortik abiatuz, suertatu daitezkeen zailtasunei aurre egiteko bidea ematen zaio ikasleari. Gai sentitzen den heinean, oztopoak gainditzen ahaleginduko da ikaslea eta, halaber, ahalegindu ahala ikasleak bere buruarekiko konfiantza garatuko du. Bide horretan, helduaren papera garrantzitsua da, ikaslea prozesuan zehar gidatu behar duelako, arrakastarako bidea erraztuz.

Ikaslearen motibazioa piztea eta haren gaitasunak eta zailtasunak antzematea, ikaskuntza aktiboa garatzeko premisatzat hartzen ditugu eta, hortik abiatuta, ikaskuntza aktiboak eta esanguratsuak honako baldintzak bete behar ditu:

- ikaslearen aurrezagutzak kontuan hartu behar dira. Izan ere, ezagutza berri oro aurretiko ezagutza batzuetatik abiatuta eraikitzen da. Pertsona batek zerbait berria ulertzeko,

barnean duen aurretiko ezagutza bat aktibatzeke beharra sentitzen du bere barnean egoera hori antolatzeke. Kontuan hartu behar da, gainera, aurrezagutzak oso egonkorrak izaten direla eta batzuetan oso errotuta dauden ideiak direla. Gainera, barne koherentzia erlatiboa dute, multzo zabal batek partekatu ohi dituen ideiak dira eta hitzez adieraztea zaila suertatu ohi da. Ikaskuntza prozesu guztian zehar landu behar dira. Hasieran aurrezagutzak aztertu eta prozesuan zehar fase desberdinetan berriz ere berrartu behar dira. Aurretiko ezagutzen eta ezagutza berrien artean zubiak eraikiz, ulertzen duten horretan arakatzuz eta beraien interpretazioetan identifikatuz. Mota desberdinetako baliabide eta dinamikak erabili daitezke aurrezagutzak lantzeko eta adimen aniztunak kontuan hartzea ezinbestekoa da

- Aniztasunari erantzuna eman ikaskuntza-prozesua diseinatzerakoan eta prozesu osoan zehar. Hezitzaileon ardura, ikasleen aniztasun horri erantzuteko, aukera eskaintza malgua eta irekia antolatzea da, irisgarritasun kognitiboa bermatzeko; Ikaskuntza Diseinu Unibertsalaren irizpidetik eta maila anitzeko programatzeko estrategiak erabiliz, helburuak lortzeko bide, maila eta baliabide ezberdinak modu proaktiboan eta inklusiboan eskaintzea, alegia.
- Ikasleen erritmo ezberdinak eta ikaskuntza estiloak kontuan hartu behar dira, bakoitzaren Garapen Hurbileko Zonaldeari dagozkion erronkak proposatuz, eta aurre ezagutzak ezagutza berriekin lotzeko behar diren aldarnak eskainiz.
- Adimen anizkunak kontuan izan behar ditugu. Howard Gardner-en adimen anizkunen teoriaren arabera, gizaki guztiek hainbat gaitasun ditugu, eta edozein ekintza aurrera eramateko gaitasun mota ezberdin horiek modu isolatuan nahiz integratuan aktibatu daitezke. Hainbat adimen mota bereizi dira: linguistikoa, logiko matematikoa, espaziala, musikala, intrapertsonala, interpertsonala, kinestesikoa, naturalista, existentziala... Gure ikasleek, adimen mota horietatik zenbaitetan berezko indargunea izango dute eta gure lana, ezagutza bat eraikitzeke, horiek baliatzeko aukera eskaintzea litzateke. Hau da, ezagutza bat eraikitzeke bide ezberdinak eskaini behar ditugu, adimen aniztasuna kontuan izanik. Horrez gain, euren indarguneak baliabide gisa erabili behar ditugu, zailtasunei aurre

egiteko eta beste gaitasunak garatzen laguntzeko.

- Eginez ikasten denez, esperimentazioa eta manipulazioa ezagutzak eraikitzeko ezinbesteko pausua da, beste ikaskuntza abstraktuago eta sakonagoetara murgildu ahal izateko oinarria. Ikaslearen errealitateko materialak erabiliz eta zentzumenak aktibatuz, ikaslearen jakin-mina piztearekin batera, ikerketarako bidea eskaini behar zaio.
- Goi mailako prozesu kognitiboen garapena sustatu behar da. Bloomen taxonomiak ageri duen moduan, proposatzen ditugun jardueren bidez, konplexutasun maila desberdina duten ataza kognitiboak lantzeko aukera ematen dugu. Tradizionalki, ezagutzak gogoratzeari, ulertzeari eta ezagutzak aplikatzeari eman zaio pisu gehien irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan. Horiek, behe mailako prozesu kognitibotzat jotzen ditu Bloomen taxonomiak eta oraindik ere oinarritzko prozesu gisa lantzen jarraitu behar ditugu. Baina, ikasleek etorkizunean beharko dituzten trebetasunak garatu ahal izateko, goi mailako prozesu kognitiboak ere lantzea ezinbestekoa zaigu. Hala nola, analisiak egitea, sintesiak egitea, ebaluazioak egitea edota zerbait sortzea ahalbidetzen duten jarduerak eskaintzea da erronka.
- Ikasleak, bestetik, pentsatzen ikasi behar du eta etorkizunean, norbera bere ikasteko moduen jabe izatea gaitasun gakotzat jotzen da. Zeregin horretan, Swartzen pentsamenduan oinarritutako ikaskuntzan oinarriturik, pentsatzeko trebetasunak, abileziak eta prozesuak garatzen lagunduko diogu ikasleari eta metakognizioaren bitartez, bere ikaskuntzaren autoerregulazioan trebatu nahi ditugu. Pentsamendu mapei jarraituz, ikasleak pentsatzeko estrategiak bereganatu ditzake eta estrategia horretan sortutako ideia eta ondorioak antolatzen ikas dezake. Horrek guztiak, edukietan sakontzea ahalbidetzen du eta, aldi berean, pentsatzeko prozesuaren gaineko metakognizioa egitean, ikasleak bere pentsamendu garapenaren balorazio kritiko eta sortzailea egin dezake. Azken finean, Amaia Anterok dioen bezala, “hezitzaileon egitekoa ikasleei pentsatzen ikasten laguntzea da erabakiak hartzen ikasteko, arazoei aurre egiten ikasteko eta kontzeptualizatzen ikasteko trebetasunak gara ditzaten”.

- Ikasleak ezagutzak komunikatzen ikasi behar du. Ikasleari esperimentazio bidez eraiki dituen ezagutza horiei hitza jartzea eskatzen diogunean, bere pentsamendua ordenatzeko eskatzen diogu, eta horiek hitzetan adierazterakoan, pentsamendu konkretutik abstrakturako bidea hartzen du. Pentsamenduaren garapenaz gain, komunikatzeko gaitasuna ere garatzen du, izaki sozialak garen aldetik, ezinbestekoa baitugu ingurukoekin komunikatzea eta ingurukoekin komunikatuz ikastea.
- Elkarrekin ikasten dugu: elkarri behatuz, kontatuz, lagunduz, erakutsiz... Txiki-txikitatik, inguruko pertsonengandik hainbat eta hainbat gauza ikasten ditugu eta ikaskuntza prozesuetan inguruekiko elkarrekintza ezinbestekoa da. Elkarlanean oinarritutako proposamenek, ikaskide gisa garatzen laguntzen duten proposamenek, alegia, gizarte honetan ezinbestekoa den balore eta gaitasunen garapena bermatzen dute. Ikasleak taldean lanean ari direnean, ikaskidetza (edo ikaskuntza kooperatiboa) bermatzeko hiru baldintza bete behar dira: helburu komuna, aurrez-aurrezko komunikazioa, norbanakoaren erantzukizuna eta elkarmenpekotasun positiboa.
- Ikaskuntza esanguratsua izan dadin, ikaslearen bizitzarekin eta errealitatearekin loturik joan behar du, adibide hurbilak jarritz alde batetik eta bere ingurune hurbilari ekarpen bat egiteko aukera emanez, bestetik. Komunitateari ekarpena egitea eta, horrekin batera, ingurukoaren errekonozimendu soziala jasotzea, garunean ezagutza berriei esanguratsutasuna emateko modurik eraginkorrena dela baieztatu dute neurozientzian adituek.
- Ikasleak ikaskuntza prozesuaren jabe izan behar du. Proposatzen zaizkion egoerek ikaslearentzat esanguratsuak izan behar dute, horrek ematen baitio zentzua ikaste prozesuari berari. Esanguratsuak izateaz gain, erronka bat suposatuta behar du, non arrakastarako aukera errealak eta motibagarriak topatuko dituen. Horrek, irakaslearen aldetik, ikaskuntza prozesuari buruzko ezagutza sakona eskatzen du, ikasleari eraikuntza horretan behar dituen pausuak modu progresiboan ahalbidetzeko. Prozesu horretan, halaber, irakaslearen papera feedback eraginkorrak eskaintzea izango da, ikasleari bere prozesuan aurrera egiteko pausuak ematen laguntzeko, ikaslearen erabakiak hartzeko

gaitasuna garatzeko eta bere ikaskuntza autoerregulatzen laguntzeko. Honek, ebaluazioaren ikuspegi jakin bat dakar, ezagutza jakin batzuen jabetze maila kalifikatzea baino haratago joanda, ebaluazio hezigarri baterantz abiatzeko. Hau da, ebaluazioak berak ikasleak bere ikaskuntza prozesua erregulatzeko balio behar du eta horrek, bidenabar, ezagutza maila on bat lortzeko bidea bermatu dezake.

Beraz, ikaslea erdigunean jarrita eta Ikaskuntza aktiboaren ezaugarriak aintzat harturik, metodologia ezberdinak aplikatu daitezkeela ulertzen dugu. Gure ikasleen irteera profilari begiratuta, lortu nahi diren helburuak argi edukita, alegia, horiek lortzeko jarraitu beharreko metodologiarik eraginkorrena erabiliko dugu uneoro: taldekatze mota ezberdinak, proiektu bidezko lanak, talde handiko dinamikak, talde txikiko saio gidatuak.... Metodologia, beraz, baliabide gisa ulertzen dugu eta ez dogma gisa. Metodologia jakin bati ertsiki lotzeak, ikaste estilo bakarrari erantzutea suposatuko lukeela ulertzen dugu eta, beraz, gaitasun ezberdinak dituzten ikasleei tresna eta baliabide ezberdinak eskaini behar zaizkiela defendatzen dugu.

3.2. Konpetentzietan oinarritua

Hezkuntzaren xedeak lortzeko bidea oinarrizko konpetentziak behar hainbat garatuta edukitzea da. Konpetentzien araberako hezkuntzaren ikuspuntua ez da paradigma akademiko-logozentrikoaren berdina. Izan ere, adierazpen-jakintza akademikoak eskuratzeak ezinbestekoa izaten badarrai ere, gaur egun ez da nahikoa gizarteko aldaketek eragindako hezkuntza-premiei erantzuteko. Horrenbestez, konpetentziek izan behar dute gure hezkuntza-sistemaren ardatz baldin eta behar horiek ase nahi baditugu.

Gizarte-aldaketen isla, eskolaren gaur egungo funtzioak ugariagoak eta konplexuagoak dira, izan ere, jakintzak transmititzeaz gainera, eskolari eskatzen zaio pertsona osoki garatzen lagun dezala maila guztietan (fisikoa, kognitiboa, estetikoa, komunikatiboa, soziala, afektiboa...), eta lagun dezala enplegurako prestatzen eta herritar arduratsuak prestatzen. Bestalde, jakintzen multzoa gero eta handiagoa da eta oso bizkor espezializatzen da, jakintzak zaharkituak geratzeraino, eta horrek zaildu egiten du garrantzitsutzat eta iraunkortzat jo daitezkeen edukiak hautatzea. Horretaz gainera, hezkuntza bizi osoko lana denez, jakintza akademikoak eskuratzea

erlatibizatu eta denbora-esparru zabalagoan sartzen dira. Ikuspuntua desberdina da, hortaz: ikasgaitik abiatu ordez, ikasleak funtsezko konpetentziak lortzeko behar diren edukiak hautatzen dira.

Ikasleak era konpetentean aritzeak esan nahi du adierazpen-jakintzak modu integratuan mobilizatzen jakitea bizitzako hainbat eremutan (pertsonala, soziala, akademikoa eta lanekoa) kokatzeko, bai eta horietan jarduteko ere, hartara bizitza-eremu horietan pertsonari sor dakizkiokeen egoera esanguratsu eta konplexuetako arazoei eraginkortasunez irtenbidea bilatzea prozedurazko jarrerak eta trebetasunak baliatuz.

Horretarako berme onena da oinarritzko konpetentziak (metadiziplinarrek eta diziplinarrek) eskuratzea. Oinarritzko konpetentziak dira, Europako Erkidegoaren Batzordeak proposatutakoaren arabera (2006), “pertsona guztiek behar dituztenak beren burua errealizatzeko eta garatzeko, bai eta herritasun aktiborako, inklusio sozialerako eta enplegurako ere. Oinarritzko hezkuntza amaitzean, gazteek behar hainbat garatuta eduki behar dituzte oinarritzko konpetentziak, helduarorako prestatuta egon daitezen, eta etengabeko ikaskuntzaren baitan, konpetentzia horiek garatzen joan daitezen”. Ikuspegi horretatik, gure gizartean bizitzeko ezinbesteko ikaskuntzak hezurramitzen dituzte oinarritzko konpetentziek.

Mundu mailako erakundeek ere (Worl Economic Forum-ak, DeSeCok, esaterako) XXI. mendeko profesionalek beharko dituzten abileziak eta konpetentziak definitu dituzte; hala nola, giza harremanetarako trebetasunak, adimen emozionala, elkarlanerako gaitasuna, sormena, problemen ebazpenerako gaitasunak, pentsamendu kritikoaren garapena... Eduki estatiko eta teknikoan transmisioetik haratago joan beharra dugula agerian uzten du honek, konpetentzietan oinarritutako lanketari behar duen tokia emanez. Horren isla da, Lomloek egiten duen curriculum-arkitektura, zeinetan ikaslea erdigunean jarritz, gaitasun-multzo bat eskaintzen den, “ikaslearen garapen pertsonala erdiesteko, bizitzaren askotariko esparruetan egoerak eta arazoak modu etikoan, kritikoan eta jasagarrian ebazteko, hobetzeko aukerak bilatu eta aprobetxatzeko, sozializazioa gauzatzeko, prestakuntza-ibilbidearekin segitzeko eta, orobat, gizartean aktiboki parte hartzeko”.

Argi izan behar dugu, halaber, konpetentzia eta ezagutza ez direla antagoinikoa, konpetentzia bakoitzak, berez, ezagutza jakin batzuk prozedurazko abileziekin eta jarrerazko edukiekin elkarlotzen dituelako.

Badakigu bizitzako jarduera guztietan gai izateko beharrezkoa dela ezagutza batzuk izatea (gertaerak, kontzeptuak eta sistema kontzeptualak), nahiz eta ezagutza horiek ez duten ezertarako balio ulertzen ez baditugu eta horiek erabiltzen jakiteko gai ez bagara. Horretarako, prozedura ugari menderatu behar ditugu (trebetasunak, teknikak, estrategiak, metodoak...), eta, gainera, horiek oinarritzen dituzten gogoeta eta baliabide teorikoak izan behar ditugu. Gaitasuna hobetzeak haren aplikazioari buruz hausnartzeko gaitasuna dakar, eta hori lortzeko beharrezkoa da ezagutza teorikoaren laguntza.

Irakaskuntza tradizionalak edukiak logika zientifiko bati jarraituz antolatu nahi izan ditu, elkarren artean loturarik ez duten arlo, irakasgai, modulu edo bloketan zatituz. Jakintzaren antolaketa hori, ziur aski beharrezkoa izan da zientziaren beraren garapenean, barne-logika handikoa baita. Baina modu horretan ikasleari bereziki zaila egiten zaio ikasten duenaren eta inguruko munduaren arteko harremana ulertzea. Curriculumaren zatiketa hori, gainera, errealitatea ulertzeko garunak duen funtzionamenduaren guztiz kontrakoa da, eta erabat bidegabea da ezagutza eraikitzeari dagokionez. Edukiak modu linealean eta aseptikoan aurkezten direnez, galdu egiten dute eguneroko errealitatea ikasleei azaltzeko gaitasunaren zatirik handiena. John Deweyk pedagogoa ere, “Demokrazia eta Hezkuntza” liburuan, halaxe kritikatu zuen edukien zatiketa hori: “ezagutza praktikatik urruti geratzen den informazio bilketa hutsa da hezkuntza munduan, ez da horrela gertatzen ordea abeltzain, marinel, merkatari, mediku edo laborategiko ikertzailearen munduan”.

Gaitasun baten ikaskuntza, beraz, oso urrun dago ikaskuntza mekaniko batetik, eta ahalik eta adierazgarritasun eta funtzionaltasun handiena eskatzen du; izan ere, gaitasun hori erabili ahal izateko, zentzua izan behar dute bai gaitasunak berak bai prozedura-, jarrera- eta kontzeptu-osagaiek ere.

Osagai horietako bakoitzak, gainera, berariazko lanketa behar du:

- **Gertaeren ikaskuntza:** eduki faktikoak edo gertaerak, eduki konkretuak dira (idazleen edo historiako pertsonaia ezagunen izenak, data historikoak, arte lanen izenak, mendien izenak, formula matematikoak, kodeak, sailkapenak...), ikasketa memoristikoa behar dutenak. Eduki hauen ikasketa errazteko, horien antolaketa edo asoziazio esanguratsuak erabili behar dira (eskemak, adibidez) eta jakintza horiek erabilgarri egiteko, ezagutza horri lotutako beste kontzeptuak ulertzea beharrezkoa da.
- **Kontzeptuen ikaskuntza:** kontzeptuak jakintza abstraktuak dira (barroko, ugaztun, aditz, hiri, kentzaile...) eta, horiek eskuratzeko, ulertzea ezinbestekoa da. Kontzeptuekin batera, printzipio edo arauak daude: teorema matematikoak, printzipio etikoak, aro jakin bateko literatur ezaugarriak, arkitektura estilo baten arauak... Kontzeptu eta printzipio horiek ulertutzat ematen dira, egoera jakin bat interpretatzeko, ulertzeko edota azaltzeko erabiltzen direnean, edo gertaera edo datu jakin batzuk kontzeptuak barnebiltzen duen esanahiairen arabera kokatzen direnean. Kontzeptuen ikaskuntzarako, norberaren aurrezagutzen eta ezagutza berrien arteko loturak eginez, esanahiez eta zentzuz jositako prozesu eraikitzaile bat ematea beharrezkoa da. Are gehiago, kontzeptuen ezagutza amaitezina izan liteke, beti baitago kontzeptu batean gehiago sakontzeko aukera.
- **Prozedurazko edukien ikaskuntza:** prozedurazko edukiak helburu baten lorpenerantz bideratutako ekintza sorta ordenatu bat dira. Irakurtzea, marraztea, behatzea, kalkulatzeko, inferitzea, sailkatzea... prozedurazko edukiak dira. Prozedurak ikasteko, eredu honetatik abiatuta, praktika gidatua, sistematizatua eta gogoetatsua egitea beharrezkoa da, aurrerapausu eta progresioak zainduta eta prozedura berberak egoera anitzetan landuta. Prozedurazko edukien alderdi teorikoa lantzeaz gain, horien funtzionaltasuna landu behar da.
- **Jarrerazko edukien ikaskuntza:** jarrerazko edukiak baloreak, jarrerak eta arauak dira. Guztiek osagai kognitiboak (ezagutzak eta sinismenak), afektiboak (sentimenduak eta

lehentasunak) eta konduktualak (ekintzak eta intentzioak) dituzte. Eduki hauen ikaskuntzarako, lotura afektibo handiko ataza konplexuak behar dira, zeintzuetan eraikuntza pertsonal bat egin behar den. Ereduei begira asko ikasten da, imitazioz, eta baita afektiboki inplikazio handiko egoeretan ere. Eta, bereziki, egoera gatazkatsuen gainean alde batera edo bestera kokatzeko gogoeta sustatzen denean ikasten da, egoera horretan bere jokabidea erregulatzaera behartzen baitu. Heteronomiatik autonomia moralerako bidea egitea da, azken finean.

Eduki batzuek izaera diziplinarra dute, beste batzuk diziplina bat baino gehiagoren artean kokatzen dira (interdiziplinarrek), besteek aldiz, ez daukate diziplina jakin batekin lotura zuzenik (metadiziplinarrek).

Oinarrizko konpetentzia metadiziplinarrek, eremu desberdinetako egoera guztiei aurre egiteko balio dutenak dira, bai diziplina-arloei lotutako egoerei, bai eta eguneroko bizitzakoei. Bestetik, diziplina barneko/diziplinarreko oinarrizko konpetentziak diziplina-arlo jakin baten/batzuen baliabide espezifikoak behar dituztenak dira. Azken horiek, eremu eta egoera zehatzagoekin dute lotura eta testuinguru espezifikoetan aritzeko beharrezkoak dira.

Denak dira oinarrizko konpetentziak, denak baitira beharrezkoak bizitzarako. Hobeto deskribatzeko bi motatako oinarrizko konpetentziak bereizten badira ere, erlazio estua dute. Izan ere, alde batetik, oinarrizko konpetentzia metadiziplinarrek ondo ikasi eta ebaluatzeko, integratu egin behar dira diziplinaren oinarrizko konpetentziak garatzen dituzten arloetako edukien ikaskuntza-prozesuan. Bestetik, oinarrizko konpetentzia metadiziplinarren bitartekaritza beharrezkoa da diziplinaren oinarrizko konpetentziak lortzeko.

Horren ondorioa, azkenik, argia da: diziplinako jakintza zientifikoaren lanketa ez da nahikoa konpetentziak lantzeko eta diziplinetan oinarritutako ikasgai antolaketa gainditu eta birformulatu beharra dago. Ikaskuntza Esperientzia Motak diseinatzea izango da gakoa, ikas-arlo eta gaitasunak, eduki-mailako aukerak eta aukera metodologikoak uztartuko dituzten esperientziak, alegia. Horrek, diziplinako jakintzen orden logiko eta zatitu horretatik, ikaskuntzaren diskurtso

narratibora pasatzea eskatzen du batetik, eta irakasleak eman eta ikasleak jasotzen duen paradigmatic atera eta ikaslearen bizipen eta ikaskuntza esperientzietan fokoa jartzea, bestetik.

3.3. Hizkuntzen trataera bateratua eta integrala

Ikastolak ikasle euskaldunak hezi nahi ditu, euskara erabiliz eta ongi menderatuz, euskararen eta euskal kulturaren transmisio, garapen eta indartzearekin konprometitua. Gauzak horrela, ikastolak euskal hiztunak hezi nahi ditu, haien jarreran nola motibazioan etengabe eraginez. Ikastolaren helburua, beraz, bizitzako zeregin askotarikoetarako kalitatezko euskara irakasteaz gain, euskararen sustatzaile izatea, hiztun euskaldunon komunitatea sendotzea eta erabilera-eremuak irabaztea da.

Era berean, harreman pertsonal, sozial eta profesionalak Euskal Herriko mugak gero eta gehiago gainditzen dituen Europako Elkartearen esparru barruan izango ditugula kontuan hartuz, Europar Batasunaren beste hizkuntzen ezaguerak eta erabilpenak ere Ikastolen hizkuntza-helburu dira. Honenbestez, Ikastolak euskal hiztun eleaniztunak prestatu nahi ditu.

San Fermin ikastolak hizkuntza eta kultura aniztasunari erantzuna emateko garaian, kultur integrazio barne-hartzailearen hautua egin du. Eskola barne-hartzaileak ateak irekitzen dizkio hizkuntza eta kultura aniztasunari. Aniztasunaren erronka era baikorrean ikusiz, San Fermin ikastolak uste du euskarak integratzeko tresna izan behar duela, eta ez baztertzaila. Modu horretan, euskara aukera berdintasuna lortzeko bidetzat hartzen du, euskararen hiztun eta erabiltzaile berriak irabazteko.

Honenbestez, San Fermin ikastolak honako hautuak eginak ditu helburutzat dituen hizkuntzak garatzeko orduan:

- Euskararen ardaztutako eleaniztasunaren alde egitea.
- Xedetzat ditugun hizkuntza guztiak barne hartzen dituen curriculum integratua eratzea.

- Euskara hizkuntza minorizatua izanik, haren indarberritzearekin eta normalkuntzarekin konpromiso aktiboa izatea.

Hezkuntzak, beraz, bi funtzio nagusi beteko lituzke; batetik, funtzio kontserbatzailea, hau da, gizarte jakin batek metatu duen kultur ondare hautatua belaunaldi batetik bestera igarotzen ahalegintzea; bestetik, funtzio berritzailea, hots, gizarteak dituen aldaketa beharrei eta eskaera berriei erantzuteko trebatzea.

Euskara du eskolako komunikazio- eta ikasketa-hizkuntza nagusi, ikastola barruan ahalik eta komunikazio eremu gehien harentzat irabazi nahian. Gaztelania du bigarren hizkuntza, gizartean duen lehentasuna aintzat hartuz, eta bereziki ikasketa-munduarekin loturiko erabilera formalak indartzeari begira lantzen du. Ingelesa (eta frantsesa) lanerako edo ikasketak jarraitzeko testuinguruarekin lotzen ditu, globalizazioaren gizartean hartu duten papera ikusirik.

Arestian aipatu bezala, euskaran ardaztutako eleaniztasuna garatu nahi bada, ezinbestekoa da hizkuntzen ikuspegi integratzailea eta horrekin batera doan curriculum bateratua gauzatzea.

Alde horretatik, curriculum proposamen integratu eta bakar batean bildu behar da hizkuntza guztien ikaskuntza-irakaskuntza. Horrela, ikaskuntzaren osagarritasuna ahalbidetzen da, baita hizkuntza bakoitzak dituen berariazko hizkuntza alderdiak alderatzeko lana eta hizkuntza batean ikasitakoa beste hizkuntza batzuetan aplikatzea ere.

Hizkuntzak berebiziko eginkizuna du hezkuntzaren konpetentzia orokor guztiak lortzeko orduan, bera baita giza garapenerako tresna nagusia, eremu guztietan eta gure egiteko guztietan erabiltzen dugun bitartekoa. Horrek, hizkuntzaren trataera integrala egin beharra dakar, ikasgai edo arlo guztietan hizkuntza gaitasunen garapena bermatzeko.

Bestalde, bizitzako egoerei eta beharrei erantzungo dieten hizkuntz konpetentzien garapen egokia ziurtatu ahal izateko, garbi dago egoera horiek ezin direla gela barrura mugatu, are gutxiago hizkuntzari dagokion arlora. Beraz, San Fermin ikastolak kontuan hartzen ditu

ikasleak bere inguruan bizi dituen askotariko hizkuntz esperientziak, eta guztiak era sistematikoan tratatzen ditu.

Ikaskuntza, hortaz, hiru dimentsiotan garatuko litzateke: maila indibidualean, ezagutza berriaren eta ikaslearen aurrezagutzaren arteko interakzioan; maila sozialean, irakasleekin eta ikaskideekin sortutako interakzioan; eta, azkenik, aprendizai hori gertatzen den testuinguruarekin interakzioan, bizi dituen egoerek ezarritako baldintzei erantzunez.

Ikastolan lantzen diren hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntza eta erabilerari dagozkien alderdiak bildu eta haien trataerari koherentzia ematen dion markoa eraikitzeko, San Fermin ikastolan Hizkuntza Proiektua dugu. Ikastolarentzat funtsezko proiektua da, dudarik gabe, Hizkuntza Proiektua. Ikastolako eremu guztietan eragiten du eta komunitate osoaren ardura eta parte-hartzea eskatzen du eta, beraz, eremu pedagogikoan nahiz eremu instituzionalean esku-hartzen du.

Pedagogikoan, eremu kurrikularra eta ez kurrikularra daude. Eremu kurrikularren baitan, hizkuntzen benetako erabileran oinarritzen den curriculumak garatzea dugu helburu. Hori dela eta arlo guztietan hizkuntzaren erabilera formala modu sistematikoan landu behar dugu, ikasleek egingo duten erabileraren mesedetan, denon esku baitago erabilera horretarako behar dituzten tresnak ematea. Helburu horiek gauzatzeko, hainbat alderdi zaintzen dira: hizkuntzen Curriculum Bateratua, hizkuntzaren trataera integrala, ikasmaterialen hautaketa eta etengabeko egokitzea, irakasleen prestakuntza... Bestalde, eremu ez kurrikularrean ere, hizkuntzaren erabilera informala sustatzen duten eremuak daude: atsedenaldiak, zerbitzuak, eskolaz kanpoko ekintzak... Aisia hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko eremua ere bada eta hori bermatzeko tresnak ere garatu behar dira: materialak, hezitzaileen jarrera eta prestakuntza... Are gehiago, eremu ez-kurrikularrak eremu kurrikularrean lantzen denari zentzua eta funtzionalitatea eransten dio.

Bestalde, eremu instituzionalean antolaketa eta komunikazioa, eta gizartea ditugu. Hala, lehenbizikoan aginte organoak, dokumentazioa, espazioen hizkuntza, hizkuntza politika eta langileen hizkuntza profila jasotzen dira, eta harremanetan aldiz, Ikastolako familiekin,

gizartearekin harremana biltzen da, ikasleen (hizkuntza) garapena, ikastola eredua eta lankidetzak, besteak beste.

3.4. Ebaluazio hezigarria

“Esaidazu zer eta nola ebaluatzen duzun eta esango dizut
zer eta nola irakasten duzun eta
zer eta nola ikasten duten zure ikasleak”
Neus Sanmarti

Ebaluazioa ulertzeko gakoak

Ebaluatzeko moduak, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua baldintzatzen du eta, beraz, bata eraldatzea ezinezkoa da bestea koherentziaz eraldatu gabe. Ikaslea ikaskuntza prozesuaren erdigunean jarri nahi badugu, ebaluazioaren erdigunean ere berak egon beharko du, bertan modu aktiboan parte hartuz.

Ebaluazioan jartzen dugun begiradak, gainera, ebaluazio mota ezberdinetan jarduteko modua baldintzatu egingo gaitu, bai irakasleak, bai ikasleak. Horregatik, behar beharrezkoa dugu begirada partekatua izatea.

Hona hemen, zenbait gako:

1. Ebaluazioak ikaskuntzaren eragile izan behar du. Ebaluatzea eta ikastea, prozesu beraren parte gisa ulertu behar ditugu.

Ebaluazioa erpin askotako elementua da. Askotan momentu batekin lotuta dago, kalifikazioarekin, baina hori baino askoz gehiago da ebaluazioa. Ebaluazioa ez da azken helburua, ikasten/irakasten ari denarentzako hurrengo urratsa zein den definitzeko bidea baizik. Ebaluazioak, funtsean, ikasteko balio behar du eta, honenbestez, ikasleari ikasten jarraitzeko gakoak eman behar dizkio eta ikasten jarraitzeko motibazioa sustatu behar du.

Ikaskuntzarako baldintza nagusia, gainera, motibazioa da, ikasteko interesa, intentzioa. Eta intentzio hori, prozesu osoan zehar elikatu egin behar da, galdu ez dadin. Horregatik, ikaskuntza prozesuan zehar, emozioek duten eragina kontuan hartu behar dugu. Helburuen lorpenerako prozesuan, etapa ezberdinak bereizi izan dira eta etapa horietan emozioen eragina agerikoa da. Hasierako etapan, gai berriekiko interes eta jakinminean eragiten dute, ondoren helburuak lortzeko ahaleginean pertseberantzia eta persistentzia baldintzatzen dute. Are gehiago, ikaskuntza prozesuan oztopoak edo zailtasunak agertzen direnean, frustrazioari aurre egiteko gaitasuna emozioak autoerregulatzeko gaitasunarekin lotuta egongo da, baita inguruarengandik jasotzen duen erantzunarengatik ere. Prozesuaren amaieran, helburuen lorpenerako, ezagutzak frogatzeko eta aplikatzeko motibazioa eta adorea behar da, lortutako emaitzen errekonozimenduekin batera.

Ebaluazioa, motibazioan eragiteko tresna bihur daiteke, ikaskuntza prozesuaren fase bakoitzean, ebaluazioak modu positiboan eragin dezakeelako.

Ikaste prozesuak berak, ebaluazio bat egitea dakar ezinbestean. Neus Sanmartín dioen bezala, “ikasteak eskatzen du gure ideiak eta egiteko eta hitz egiteko moduak ezagutzeko gai izatea, horiek azaltzen dituzten arrazoiak ulertzeko gai izatea eta, bereziki, horiek aldatzeko. Hau ebaluatzea da. Horregatik, esan daiteke ikastea ebaluatzea dela, eta ebaluazio hori gabe ezin da ikaskuntza esanguratsurik egon”. Ebaluatzea eta ikastea, beraz, prozesu beraren parte gisa ulertu behar ditugu.

2. Ebaluazioaren xede nagusia: ikaskuntza eta irakaskuntzaren erregulazioa da. Honela, irakasleak zein ikasleak, denak bihurtzen dira ebaluatzaile, ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuan parte hartzen duten elementu guztiei erreparatuz. Ebaluazioa helburuen arabera erabakiak hartzea da, eta erabaki horiek hurrengo ekintzak gidatuko diuzte. Arreta jarri beharreko hiru elementu ditugu:

- Erabakia: Ebaluatzeak ondorio bat dakar ezinbestean. Zerbait aldatu egiten da, zerbait mugitu.
- Helburua: helburuaren arabera ebaluatu behar da. Garbi izan behar dugun kontua da. Atzekoz aurrera diseinatu behar da: lortu nahi dugun horretatik, zer ebaluatuko dapugun erabakitzea. Eta horren arabera, zer egingo dugun erevaki
- Ekintza: Ebaluazioa ekintzak gidatuko dituen gidalerroa da. Ebaluazioak emango digu nola kokatu, zer jarduera egin... Helburu eta ebaluazio bati lotuta ez dagoen ekintzak ez du zentzurik.

3. Akatsak ikaskuntza erregulatzeko baliabide gisa erabili behar dira.

Gelan hitz egiteko, iritzia emateko, eztabaidarako tokia eman behar da, norberak bere buruarengan eta inguruarengan konfiantza izan dezan. Helburua, elkarlaguntzea eta ezagutza elkarrekin eraikitzea dela ongi barneratu behar dute partaide guztiek. Akatsa ikasteko bide gisa barneratu ahal izateko, akatsari zein tratamendu ematen zaion zaindu behar da. Koebaluazioak akatsen zuzenketan lagundu dezakete, beti ere kooperazio eta elkarlaguntza giroa bermatuta. Norberaren espektatibek duten eragina, gainera, zientifikoki frogatua dago. Hattieren ikerketan, eraginik altuena duen faktorea da. Ikasleek beren lorpenei eta erroreiei egozten dizkieten atribuzioek espektatiba horietan eragin zuzena dute. Irakasleak, feedback eraginkorraren bitartez, espektatiba horiek erregulatzen lagundu dezake.

4. Autoebaluazioa egiten ikastea da garrantzitsuena. Horretarako ikasleak helburuak, pentsamendu estrategiak, ekintzarako estrategiak eta ebaluazio irizpideak ezagutu behar ditu. XXI. mendean, ikasten ikasteko gaitasuna garatzea ezinbestekotzat jotzen da. Ikasleek bere buruaren ezagutza orekatua izatea beharrezkoa izango dute etorkizunean eta bere gaitasun kognitiboen autoerregulazioan trebatu beharko dira ezagutzen mundua hain globalizatua eta dibertsifikatua egongo den gizarte batean modu eraginkorrean eragiteko.

Gaitasun metakognitiboetan eta, oro har, ikasten ikasteko gaitasunen garapenean, ebaluazioak urrats garrantzitsuak ematen lagundu diezaioke ikasleari.

Autoerregulatzeko gaitasunak honakoa hartzen du bere baitan:

- Ikaskuntza helburuak zeintzuk diren jakitea.
- Jarduera egiteko behar diren eragiketak zeintzuk diren jakitea.
- Ebaluazio irizpideak zeintzuk diren jakitea.

5. Denek, irakasle zein ikasle, ebaluatu egiten dute, baina funtsezkoena ikasleak bere buruari egiten diona da.

6. Ebaluazioaren bidez egiten den kalifikazioa edota hautaketa ere garrantzitsua da, emaitza hauek erakusten baitute ebaluazio-erregulazioaren kalitatea. Ebaluazio kalifikatzailea ikaslea ariketa hori egiteko prest dagoenean egin beharko litzateke. Konpetentziak ebaluatzeak, egoera desberdinetan ezagutzak aplikatzen dakiten frogatzea dakar. Honek zera esnn nahi du: ebaluatzeko egoerak anitzak izan behar dira, konplexuak, material ezberdinak erabiliz eta froga estandarretatik kanpo (simulazioak, problema irekiak, rol jokuak, proiektuak...).

7. Ebaluazioak soilik kalifikatzeko balio duenean, ez du motibaziorik pizten. Erregulaziorik eraginkorra zailtasunak detektatu bezain laster egindako feedback-aren bitartez lortzen da, bukaerako ebaluazioaren aurretik egiten dena.

Erregulazioa pizteko edo estimulatzeko, beharrezkoa da:

- ebaluazio irizpideak lorgarriak izatea.
- Tresna anitzak ematea, norberak beretzat egokienak direnak aukeratu ditzan.

- Zailtasunak banaka eta modu ordenatuan (hierarkizatuan) aztertzea.
- Banakako lan konpromisoak zehaztu eta horien jarraipena maiztasunez egitea.
- Proposatzen diren jardueretan, ikasleak berak ikasten ari dela frogatzeko aukera izatea.

8. Ebaluatzeko tresnak anitzak behar dira. Helburu ezberdinek, informazioa jasotzeko modu ezberdinak behar dituzte. Datuen bilketarako eta ikaskuntzaren erregulaziorako erabiltzen diren estrategiek ikasleen autonomia bultzatu behar dute.

Tresnak ebaluazio helburuen arabera eta landu beharreko edukien arabera aukeratuko ditugu: galdetegiak, kontzeptu mapak, egunerokoak, aurkezpenak, ikerketak, orientazio oinarriak, kontrol zerrendak, errubrikak, portafolioak...

Ebaluatzeko jarduerak helburuekin koherentea izan behar du.


9. Kanpoko ebaluazioek irakaskuntza orientatzeko balio dezakete, beti ere, erabiltzen diren tresna eta metodoek, praktika berritzaileak sustatu behar dituzte.

Irakasle taldeari bere indarguneak eta puntu ahulak identifikatzen lagundu dezake eta hobekuntza planen diseinuan lagundu dezakete.

10. Irakaskuntza hobetzeko nahitaezkoa da ebaluazioa. Curriculum, honen oinarri teorikoa eta irakaslegoaren praktika baloratzeko balio du. Administrazioetik orientabideak ematen badituzte ere, irakaslegoak curriculum transformatzeko papera hartu behar du eta zer, noiz eta nola irakatsi eta ebaluatzen den erabaki behar du.

Ebaluazio motak

Ebaluazio mota desberdinak daude, ebaluazio prozesuan hartu beharreko erabakien arabera definitzen direnak.



Honela, ebaluazioak **planifikatzea** eskatzen du lehenik, hots, helburuak eta ebaluazio irizpideak definitzea. Bigarrenik, **datuak jasotzea** eskatzen du, ikaspenen ebidentziak jasotzea, alegia. Ondoren, **datuak aztertu eta interpretatu** egin behar dira, horren arabera, **erabakiak hartzeko**. Oztopo bat topatzean, ondoko urratsen oinarria izango da erabaki hori.

Erabakiak ondorio pedagogikoak edo sozialak izango ditu. Erabakiek irakaslearen jardunean eragiten dutenean, irakaskuntzarako baldintzaren batean aldaketaren bat egitea dakarte (jardueraren diseinua, metodologia, saioaren kudeaketa, kontsignak...). Irakasleak hartutako erabakien ondorioz, **ebaluazio hezitzailea** egiten dela esaten da.

Beste erabaki pedagogikoak, ordea, ikasleek erabaki hartzen dutenean ematen dira. Ikaslea ebaluazioan ahalduz dugun neurrian, ikaste prozesuaz jabetzen den neurrian, erabakiak har ditzake eta horri **ebaluazio hezigarria** deritzo.

Beste batzuetan, erabakiek ondorio sozialak dituzte. Kalifikazioa, lorpenen akreditazioa ematen denean, **ebaluazio batutzailea** egiten dela esaten da.

Edozein modutan, ebaluazioa ekintzak gidatuko dituen gidalerroa izango da, beti ere, planifikatutako helburuekin lotuta.

Ebaluazio mota horien artean, ezberdintasun argiak badira ere, elkar eragiten dutela esan liteke. Izan ere, batutzailean baloratzen ez dena, ikasleek ez dute hezigarrian ikusten. Gainera, ebaluazio hezitzailea egiterakoan erabiltzen ditugun betaurrekoek, ebaluazio hezigarria nahiz batutzailea erabat baldintzatu egiten dute.

Ebaluazioaren faseak

Ebaluazioak, azkenik, jarraia izan behar du. Ikaskuntza- eta irakaskuntza prozesuaren fase guztietan presente egon behar duena. Honela, hiru momentu edo fase bereizi izan ditugu: hasierako ebaluazioa, tartekoa eta bukaerakoa. Horietako bakoitzean, ebaluazio mota bakoitzean, zenbait erabaki hartu beharko dira eta erabaki horiek zenbait ekintza eragingo dute.

Ebaluazioaren faseak:

- **Hasierako ebaluazioa:** ikaskuntza prozesu jakin baten aurretik, ikasle bakoitzaren egoera aztertzea du xede; abiapuntuez jabetuz, prozesua antzemandako beharretara egokitzeko. Zer ebaluatu? Jarrerak, jokabideak, arrazoitze moduak, errepresentazio moduak, hiztegia, esperientzia pertsonalak, aurrezagutzak, “kontzeptu okerrak”...
- **Tarteko ebaluazioa:** garrantzitsuena. Ikasleei zailtasunak gainditzen laguntzen diona da: zailtasunak antzeman, akatsen jatorria ulertu eta autoerregulatu.

- **Bukaerako ebaluazioa:** helburu hezigarria eta kalifikatzailea. Ikasleari ikasitakoaz jabetzen lagundu behar dio, hasieratik bukaerara egon den aldeaz jabetuz. Ahalegintzen jarraitzeko, emaitza onak baino gauza motibagarriagorik ez dago.

Ebaluazio estrategiak

Hiru estrategia mota bereizten dira:

- Heteroevaluazioa: irakasleak edo beste heldu batek ikaslearen jarduera ebaluatzean datza.
- Koebaluazioa: berdinen arteko ebaluazioa da. Binaka edota talde txikian egin daiteke. Koebaluazioaren bitartez, besteen lanetan sortutako inkoherentziak identifikatzeaz gain, nork bere lanaren ebaluazioa egiten du. Koebaluazioak lan egiteko modu kooperatiboa dakar.
- Autoebaluazioa: Ikasleak bere buruari egiten dion ebaluazioa da. Azken xedea ikasleak modu autonomoan autoerregulatzeko gaitasuna garatzea da.

A.3. OINARRIZKO HEZIKETA LERROAK

Oinarrizko heziketa lerroek, konfiantzaren pedagogiaren hiru esku-hartze eremutan azaldutako baldintza guztiak 8 lerrotan laburbiltzen dituzte. Oinarrizko heziketa lerroak, gure eraldaketaren ezinbesteko gidalerroak dira, ezinbestean bete beharko ditugunak.

1. Pertsonaren garapen integrala.

Ikastola osatzen duen komunitate osoaren barne munduaren lanketa bultzatu nahi dugu heziketa formal nahiz informalean, adimen emozionala eta norberaren gaitasunen eta ahulezien autoezagutza bultzatuz, bere ongizate pertsonalean eta garapen kognitiboan eragiteko.

2. Ikaskuntza esperientzia esanguratsuak, ikaslea erdigunean jarritz:

Gure ikasleek bere buruarengan konfiantza, ibilbide autonomoa, ikasteko konpromisoa eta jarrera ekintzailea garatu dezaten nahi dugu, ikaslea heziketa esperientzien erdigunean jarritz. Honela, testuinguru errealak eta esanguratsuak eskaini nahi dizkiogu ikasleari, ikaskuntza prozesu aktiboa eta globalaren bitartez, ezagutzen eraikuntza zentzuz josita, pertsona bere osotasunean garatzeko baliagarria izan dadin. Gainera, ikasleari ikasteko, autoerregulatzeko, bere burua kokatzeko eta hobekuntzak proposatzeko balio dion **ebaluazioa** sustatu nahi dugu.

3. Hezkuntza komunitatearen elkarlanean oinarritutako ikaskuntza:

Gure ikastola, familia eta hezkuntzako profesionalen elkarlanaren ondorio den heinean, elkarrenganako konfiantza, koordinazio eta komunikazioa ezinbestekoa da ikaslearen heziketa integrala lortzeko. Denon ongizatea bermatzeko, bizikidetza giro atsegina eta abegikorra sustatu nahi dugu, diziplina positiboaren ildotik, eta kooperatibotasuna ikastolaren dimentsio guztietan integratu.

4. Eleaniztasuna helburu, euskara ardatz:

Ikasle euskaldun eleantzak hezteko, hizkuntzen trataera integrala eta bateratuaren ikuspegia jarraituko dugu. Euskara modu erosoan erabiltzea bermatzen duen hizkuntza politika garatu nahi dugu eta euskal kulturaren sustapenean eragile diren erakundeekin elkarlanean arituko gara.

5. Inklusibitatea:

Pertsona guztiak barne hartzen dituen heziketa inklusiboa bermatu nahi dugu. Ikastolak pertsona oro sentiarazi nahi du komunitateko partaide, aniztasunaren aberasgarritasunean oinarrituz, heziketa esperientzia irekiak eta malguak eskeiniz, irakaskuntza pertsonalizatua eta aukera berdintasuna bermatu nahi ditugulako.

6. Ikaskuntza espazioak eta denborak ikaskuntzaren zerbitzura:

Ikastolako espazioen eta denboraren diseinuak, erabilerak eta antolaketak ikaskuntza aktiboa ahalbidetuko du, garapenaren erritmoa eta ezaugarriak kontuan harturik eta lan kooperatiboak eta pertsonalak egiteko esperientziak eskainiz. Taldekatze desberdinen bitartez eta espazio eta denboraren kudeaketa eraginkorraren bitartez, komunikazio eraginkorra eta elkarrekintzarako testuinguruak sustatu nahi ditugu eta aldi berean, hausnarketa eta lan indibidualerako gune eta momentuak ere bermatu nahi ditugu.

7. Hezitzaile bidelagunak:

Ikastola osatzen duen komunitate osoaren barne munduaren lanketa bultzatu nahi dugu heziketa formal nahiz informalean, adimen emozionala eta norberaren gaitasunen eta ahulezien autoezagutza bultzatuz, bere ongizate pertsonalean eta garapen kognitiboan eragiteko. Hezitzaileak, bidelagun eta eredu izanik, ikasleari bere bizi proiektua definitzen lagunduko dio eta, ikaskuntza ekintza sozial gisa ulerturik, ezagutzaren eraikuntza partekatua garatuko du, bai ikasleekin, baita lankideekin ere.

8. Munduaren garapen iraunkorrerako helburuekin atxikita dagoen ikaskuntza.

Ikastolak gizartea eraldatzeko duen erantzukizunetik, giza balioak eta munduaren garapen iraunkorra bultzatzeko irizpideekin bat egiten duten ikaskuntza esperientziak diseinatu nahi ditu.

B) LIDERGO PARTEKATUA

Ikusi da lidergo eraginkorra beren eskolaren etorkizuna sortzeko ardura partekatzen duten hainbat pertsona eta talderen artean banatzen denean ematen dela. Eskola arrakastatsuek koordinazioa sustatzen dute, arazoak konpontzeko parte-hartzea, garapen profesionala, elkarrekiko laguntza eta laguntza bultzatzen duten lankidetza-inguruneak sortzen dituzte; alderdi horiek eta beste batzuek lidergo partekatua edo banatua deskribatzen dute.

Lidergo partekatua kontzeptuaren muinean ideia bat dago: lidergoa ez dela pertsona bakar batena bakarrik. Spillanek, Halversonek eta Diamondek (2004) iradokitzen duten bezala, lidergo partekatua liderren, irakasleen eta egoeraren elkarrekintzaren bidez eratzen da, eragina baitute hezkuntza-praktikan. Lidergoa, beraz, ez da zuzendari-kargua dutenei bakarrik esleitutako rola izan behar, erakundearen barruko gizabanakoen arteko dinamika baizik. Horri dagokionez, Muijsek (2007) dio horrelako lidergoarekin aukera ematen zaiela irakasleei eskolan gehien premiatzen dituzten hobekuntza-arloetako buru eta arduradun izateko.

Lidergo eraginkorrari buruzko azken ikerketen aurkikuntzarik kongruenteenetako bat da autoritateak ez duela liderraren pertsonan kokatu behar, baizik eta eskolan sakabanatu daitekeela. Horrek esan nahi du erakundean botere-harremanak berrantolatu behar direla, jarraitzaileen eta liderren arteko bereizketak txikitzen hasten diren heinean. Gainera, aukera ematen du irakasleak aldaketaren lider eta laguntzaile bihurtu daitezen, ez soilik hartzaile, ikasleentzat bezalaxe. Definizio horren funtsezko kontzeptua da lidergo horretan elkarrekin ikastea, esanahia eta ezagutza elkarlanean eraikitzea.

Egiaztatu da hobetzen diren eskolek hainbat lider dituztela, eta horiek ekarpen handiak egiten dituztela erakundearen garapenean. Agerian geratu da, halaber, buruzagi eraginkorrenak beste batzuen garapenean inbertituz garatzen dutela eskola-hobekuntzarako gaitasuna, erakundearen barruan lidergoa banatuz eta parte-hartze trebea bultzatzen duten sistemak garatuz. Eskolaren gainditze nagusia ezin da zuzendariak pertsonalizatutako autoritate-figura bakar baten bidez egin. Eskolako lidergoa parte-hartzaile guztiak gidatzeko, inspiratzeko eta motibatze gaitasunean oinarritzen da. Gaitasun hori ez da berezkoa, baina trebetasunaren, lankidetzaren eta parekoen arteko trukearen bidez sustatu eta gara daiteke.

Harrisek eta Lambertek (2003) argitu dute bi baldintza bete behar direla lidergo-gaitasun iraunkorra ezartzeko. Lehenik eta behin, beren eskolako ikuspegi partekatua, egiten ari diren lanaren irismena eta aurrera eramateko aukera ezagutzen duten irakasle lider trebeen kopuru esanguratsu baten parte-hartzea. Eta, bigarrenik, eskolen lan zentralarekiko konpromisoa, hausnarketak, ikerketak, elkarriketak eta bideratutako ekintzak eskatzen dituenak.

Bi dimentsio horietan oinarrituta, Lambertek (1998) hurrengo irudian erakutsitako lidergo-gaitasunaren matrize bat garatu zuen, eta horri esker ikertzaileek eskoletako lidergo-gaitasunaren maila desberdinak deskriba ditzakete. Ezaugarri horien artean daude zuzendariak eta beste batzuek lankidetzan, ikuspegian eta helburuan, informazio-fluxuan, erantzukizunen esleipenean, irakaskuntzaren kalitatean eta ikaslearen errendimenduan duten zeregina.

	Partehartze altua	Partehartze baxua
Gaitasun baxuak	Eskola trabatua: • Zuzendaria kudeatzaile autokratikoa da. • Ez du ikuspegi partekaturik. • Informazio-fluxu mugatua. • Errealki definitutako rolak. • Berrikuntzarik eza irakaskuntzan. • Ikaslearen errendimendua pobrea da.	Eskola zatikatua: • Zuzendaria permisiboa da. • Ez dago asmo partekaturik. • Informazioan koherentziarik eza. • Zehaztu gabeko erantzukizunak. • Loturarik gabeko programak garatzea. • Ikasleen errendimendu estatikoa.

Gaitasun altuak	Eskola mugimenduan: • Zuzendariak eta irakasleak talde gisa. • Helburua duen lidergoa, baina programaren koherentzia ahula. • Liderren arteko informazio-fluxua. • Batzuek rol tradizionalak dituzte. • Berrikuntza eta bikaintasuna irakaskuntzan. • Ikasle estatikoaren lorpena.	Eskola hobetuz: • Zuzendaria, irakasleak, gurasoak eta ikasleak lider trebeak dira. • Ikuspegi partekatua dute eta koherentziaz programan jaso. • Ikerketan oinarritutako informazioa. • Erantzukizun kolektiboa. • Ikaslearen errendimendua handia da.
-----------------	--	--

«Eskola hobetuz» izeneko koadranteak, «Trebetasun handiak» eta «parte-hartze handia» koordinatuetan, liderren parte-hartzea partekatua, bidezkoa eta irmoa den ikastetxeak irudikatzen ditu. Talde-prozesuak errazteko eskuratutako trebetasunen artean, praktikari, komunikarioari, lankidetzari, gatazken kudeaketari eta aldaketei buruzko hausnarketari emanten zaio lehentasuna.

C) KUDEAKETA AURRERATUA

C.1.) PERTSONAN OINARRITUTAKO ARRETAREN OINARRIAK:

«Hezkuntza eta prestakuntza prozesu ororen helburua, dituen pertsonen bizi-kalitatea hobetzera bideratuta egon behar du» (Down Espainia, 2013:14).

Horrela, bada, bizi-kalitatea esperimentatzen da gainerako pertsonen aukera berberak ditugunean helburu esanguratsuak jarraitzeko eta erdiesteko (Down Espainia, 2013). Azken batean, Pertsonarengan Oinarritutako Arretak aldaketa dakar pertsonen bizitza hobea izan dezaten eman beharreko laguntzak planifikatzeko moduan, autodeterminaziorako eta beren bizitzako protagonista izateko eskubidea bermatuz.

Definizio desberdinak ikusita, ondoriozta dezakegu eredu honen funtsezko suposizioetako bat pertsona bere bizitzako benetako protagonista gisa tratatu behar dela onartzea dela, erabakiak hartzeko gaitasuna duela, nahiak eta lehentasunak dituela. Eta bere bizitza-proiektu pertsonala gauzatzeko laguntza-baliabideak – materialak eta pertsonalak – izan behar dituela, beharrezko laguntzak emateko.

Aipatzekoa da, halaber, arreta indibidualizatua bilatzen duten beste ikuspegi klasikoago batzuen ikuspegi erabat desberdina ematen duela pertsonen zentratutako arretak (Martínez, 2013c). Pertsonen zentratutako arreta ereduaren ezaugarritik nagusia eta beste eredu tradizional batzuetatik bereizten duena ondokoa da: pertsonaren funtsezko papera aitortzen dela eta estrategiak proposatzen direla eguneroko bizitzan eragiten dioten gaiak berak kontrola ditzan (Martínez, 2011). Jarraian, Martinezengandik (2013c) hartutako eta egokitutako taula bat azaltzen da. Bertan, pertsonarengan oinarritutako arreta-ereduen eta zerbitzuan oinarritutako arreta-ereduen arteko desberdintasun nagusiak jasotzen dira.

PERTSONARENGAN OINARRITUTAKO ARRETA-EREDUAK	ZERBITZUA ARDATZ DUTEN ARRETA-EREDUAK
• Pertsonaren gaitasunetan eta indarretan jartzen dute arreta.	• Gabezietan eta zailtasunetan jartzen dute arreta.
• Esku-hartze globala bizitza-plan indibidualizatuekin.	• Eskuhartze partziala.
• Pertsonaren eta bere familiaren iritziak hartzen dira kontuan.	• Profesionalen erabaki bakarra.
• Pertsona inguratzen duten ingurunearen eta komunitatearen garrantzia.	• Pertsonak gizarte-zerbitzuetan isolatzea.
• Pertsonarentzako hizkera hurbila eta eskuragarria.	• Hizkuntza klinikoa eta teknizismoekin.

Pertsona ardatz duen arretaren jatorria Carl Rogers psikoterapeutak psikologia humanistikoaren korrontearen barruan egindako proposamenetik dator, Bezeroan Oinarritutako Terapia izenez ezagutzen dena (Rogers, 1961).

Psikologia humanista XX. mendean sortu zen konduktismoaren eta psikoanalisiaren kontrako mugimendu gisa, eta gizakiaren ikuspegi erredukzionista, mekanizista eta deterministatik aldendu nahi zuen. Horrekin adierazi nahi da pertsona bere zatien batura baino gehiago dela, bere existentzia gauzatzen duela eta giza testuinguru batean garatzen dela, kontziente dela, intenzionala dela eta hautatzeko gaitasuna duela. Horrek gizakiaren potentzialtasuna eta ezaugarriak azpimarratzen ditu: proiektiboa izatea, erabakitze gaitasunarekin, autoerrealizaziorako nahiekin eta sormenarekin (Rodríguez, 2013).

Korrante horren garapenean, Carl Rogers (1902-1987) mugimendu humanistaren egile nagusietako bat izan zen. Bere ekarpen nagusia bere metodo terapeutikoa izan zen, «Bezeroan zentratutako terapia» edo «zuzendaritzakoa ez den terapia» bezala ezagutzen dena (Rogers, 1961). Bezeroan barneratutako Terapia hipotesi nagusitik abiatzen da: gizabanakoak bere burua ulertzeko eta autokontzeptua, jarrerak eta jokabide autogidatua aldatzeko bitartekoak ditu bere baitan.

Rogersek terapeutaren jarrerak eta ezaugarriak — onartzeko gaitasuna, enpatia eta benetakotasuna — terapiaren emaitza onerako duten garrantzia azpimarratzen du, non zuzendaritzakoa ez den rol bat funtsezko gakoa den (Martínez, 2013c). Hau da, bien artean – Terapeuta eta pertsona – Laguntza-harreman bat egon behar da, hazkundera, garapen pertsonala eta funtzioen hobekuntza sustatzeko (Rogers, 1961). Harreman hori pertsona bakar batekin edo talde batekin gerta daiteke (Rogers, 1961). Terapia horrek bezero rola erabiltzen du, pazientearen rola baino, eta horri aitortzen eta ematen dio erantzukizuna eta askatasuna, bere prozesu terapeutiko propioaren eragile aktibo gisa (Rogers, 1961). Ildo horretan, terapeutak erraztailearen rola betetzen du, eta haren helburua izan behar da jarrera mesedegarrien giroa eskaintzea, pertsona edo bezeroak askatasunez jardun ahal izan dezan.

Horri dagokionez, terapeutak terapian edo prozesuan emaitza eraginkorra lortzeko izan behar dituen funtsezko hiru jarrera eta ezaugarri nabarmentzen ditu Rogersek, premisa horiek pertsonarengan oinarritutako arreta-ikuspegi berri horien oinarri gisa hartzeko interesa dutelako (Martínez, 2011:23):

Pertsonaren onarpen positiboa, baldintzarik gabe. Terapeutak inolako baldintzarik gabe onartzen du pertsona errebelatzeko eta agertzeko prest dagoen modua.

Terapeutak bezeroaren munduan sartzeko, bere lekuan jartzeko eta ulertzeko duen enpatia edo gaitasuna.

Benetakotasuna edo kongruentzia, terapeutari bezeroarekiko elkarriketa konstruktiboa ahalbidetzen diotenak. Terapeutak aditu gisa jokatzeko du, baina, aldi berean, gizaki gisa, bezeroari laguntzeko helburuarekin.

Rogersen ekarpenak hainbat esku-hartze eremutara eramanez, eta bertan profesionalek laguntza-harremanak dituzte, hala nola hezkuntzara — ikaslearengan oinarritutako arretaren kontzeptua erabiltzen da —, osasunera — pazientearengan oinarritutako medikuntza eta osasuna — edo desgaitasunera — pertsonarengan oinarritutako planifikazioa aipatzen da — (Martínez, 2013c).

Laburbilduz, ACPren ikuspegi globala – Jarduera-eremua edozein dela ere – Hiru zutabetan oinarritzen da, eta, horren ondorioz, ikuspegi horren barruan sartzen diren ereduak oinarri sendoa dute, eta oinarri horrek ikuspegi etikoa, ezagutza enpirikoa eta aukera-berdintasuna herritarren eskubideak gauzatzeko funtsezko elementutzat hartzen duten adierazpen eta araudi demokratikoak integratzen ditu (Martínez, 2013c).

C.2. IKASLEARENGAN OINARRITUTAKO ARRETA HEZKUNTZAN

Ezagutzaren transmisio hutsetik, ezagutzaren eraikuntza partekatura pasatzeak, hezitzaileen rola guztiz aldatu du. Huhezin argitaratu berri den liburuan jaso den gisan, “ikusitako ezagutza teorikoak ez direla nahiko irakasle izateko. Irakaslearen rol aldaketaz mintzo gara: irakaslea gida da, bidaide, entrenatzaile, sherpa, orkestra zuzendari, bidelagun da. Irakaslea, berriz, ikertzaile, bilatzaile, eraikitzaile. Irakaslea identitate berri baterantz eramaten saiatzen ari garen honetan, **irakaslea “erraztaile”** gisa definitzen dugu, eta bere egitekoa izango da testuinguruak sortzea eta prozesuak erraztea ikaslearen ikerketa eta sormena sustatzeko.

Honenbestez, agertoki berri horren aurrean, **irakasleen profesionaltasuna zabaldu, hedatu eta berritu** egin da. Eta profesionaltasun hori, aurrerago ikusiko dugun bezala, elkarrekintzan eraiki behar da, taldean, beste lankide batzuekin batera.”

Irakaslearen profilak honako dimentsio eta ezaugarriak biltzen ditu:

DIMENTSIOAK	EZAUGARRIAK
PERTSONA	Bere garapen pertsonala bilatzen du (norbera izatera iristea)
	Bere eta ikasleen garapen emozionala bilatzen du.
	Harremanetan jartzen da, komunikatzen du, motibatzen du.
AKTORE SOZIALA	Proiektu kolektiboetan parte hartzen du.
	Eguneroko egoeren erronka antrososozialak aztertzen ditu.
ERRAZTAILEA	Gelako prozesu eta harremanen erraztailea da.
	Transmisore izatetik bidelagun izatera pasatu da.
	Testuinuguruak sortzen ditu ikaslearen ikaskuntza eta motibazioa sustatzeko.
TEKNIKARIA	Tresna teknologikoak erabiltzen ditu.
	Ezagutza teknikoak eta arau formalak aplikatzen ditu.
ADITUA	Diziplinako eta diziplinarteko ezagutzak ditu.
	Ezagutza didaktiko eta epistemologikoak ditu.
	Ezagutza pedagogiko, psikologiko, soziologiko eta filosofikoak ditu.
PRAKTIKATZAILE ARTISAUA	Praktika menperatzen du eta ustiatzen du.
	Errutinak, eskemak eta ekintza testuinguratuak erabiltzen ditu.
	Irakasleari esleitutako jarduerak gauzatzen ditu (funtzio bakoitzaren barruan).
PRAKTIKATZAILE GOGOETATSUA	Bere praktikaz hausnartzen du (eta bere ondorioak ateratzen ditu)
	Gogoeta kolektiboaren bidez, ikuspegi globala eta ikasten duen komunitate profesionala suspertzen ditu.
	Bere garapen profesionalerako prozesuan dago, arduradun da.
	Tresna berriak sortzen ditu
IKERTZAILEA	Bere errealitatearen eraldatzailea da.
	Bizialdi osoan ikasten jarraitzen du.

Taula Perez, Azpeitia eta Ozaetaren lanetik (Huhezi,2021) hartua

Eraldaketaren motorra dira hezitzaileak, aunitz urtetan barreiatuak ditugun marko mental ugariak puskatu eta beste egiteko modu bat eraikitze garrantzitsua. Horregatik, garrantzitsua da hezitzaileen prestakuntza eta garapena zaintzea, praktika gogoetatsua sustatuz eta ikaskuntza prozesuen akonpainamendua eginez. David Perkinsek honela zioen: “Eskola adimentsu batek, edo hala izateko bidean dagoenak, ezin du soilik ikasleek gogoeta-ikaskuntza jarri arreta. Esparru informatu eta dinamiko bat izan behar du, irakasleei ikaskuntza gogoetatsua emango diena.” Hori posible izango da, profesionalen artean kalitatezko harremanak sustatzen baditugu eta elkarrekin euren gaitasunak garatzeko testuinguruak sortzen baditugu.

C.3. IKASLEAREN OINARRITUTAKO KUDEAKETA HEZKUNTZAN

Kudeaketa —egiturarekin bat datorrena, barne-politikek bideratzen dutena eta beharrezko baliabideen laguntza duena—, beraz, finkatutako helburuak lortzeko oinarritzko lanak lortzea bermatzen duten prozesu eta sistemen multzoa da. Eta gure kasuan, ezarritako helburua hezkuntza da.

Eskolaren kudeaketak lagundu egin beharko digu ikaslea erdigunean jartzen, eta, jakina, guztiz lerrokatuta egon beharko du hezkuntza- eta pedagogia-ereduarekin.

Gainera, erakundearen kudeaketan prozesuak identifikatzen ditugu, hau da, bi pertsona edo gehiago jarduerak egiteko eta helburuak lortzeko elkarrekin nola erlazionatzen diren modu inplizitu edo esplizituan. Prozesu horiek pixkanaka formalizatu eta hobetu egiten dira. Eta erakundeak gero eta konplexuagoak diren heinean, prozesu horiek erraztu, egituratu eta formalizatzeko sistemak behar dituzte. Sistema, beraz, konplexuago bihurtu diren prozesuen erlazio egituratua da.

Halaber, politikak eta egitura dira erakunde garatuen gobernantzan kontuan hartu beharreko bi elementuak. Erakundeak jardun behar duen esparru bakoitzean koherentzia bermatzen duten estrategia espezifikoak dira politikak. Egitura, berriz, erabakiak hartzen eta lehentasunak ezartzen laguntzen duten rol eta protokoloen multzoa.

D) ERALDAKETAREN EBALUAZIOA

Gero bat guran 2030 eraldaketa proiektuaren bereizgarrietako bat ebaluazioa izanen da. Izan ere, hezi nahi dugun pertsona ereduaren lortzeko helburuarekin, ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan birformulaketa ariketa sakona egiten ari gara eta eraldaketa arrakastatsua gauzatzeko ezinbestekoa izango da eraldaketa esperientzia aurreratuen ebaluazioa egitea eta horien jarraipenerako hobekuntza ildoak txertatzen joatea.

Ebaluazioa hiru mailan egingo da: ikasleen emaitzen ebaluazioa, esperientzia aurreratuaren ebaluazioa eta inpaktuaren ebaluazioa.

- **Emaitzen ebaluazioa:** ebaluazio honek eraldaketa aurreko eta ondorengo ikasleen errendimendu emaitzen ebaluazioa egitea ahalbidetuko du, ikasleen konpetentzia maila jasoko duelarik.
- **Esperientzia aurreratuaren ebaluazioa:** Diseinugintzan egin ohi den gisan, prestatutako eredu pilotoak aurretik proposatutako hipotesiak betetzen ote dituen aztertu beharko da, eta diseinatutakoa gelaratzean, prozesu osoan zehar ebaluazio jarraia egingo da, bai diseinuan doikuntzak egin ahal izateko, bai gelaratze prozesuan diseinatutakoari hobeto heltzeko.
- **Inpaktu edo eraginaren ebaluazioa:** Ebaluazio honek, gure eraldaketa hezi nahi dugun pertsona ereduaren garatzeko baliagarria den ebaluatzea du helburu. Horretarako, pertsona ereduaren dimentsio eta ezaugarri bakoitzerako, behagarri eta neurgarri diren adierazleak bildu eta ikastolaz kanpoko ebaluazio baten bitartez, gure eraldaketak ikasleen pertsona profilararen ezaugarrietan izango duen eragina neurtu ahal izango dugu. Gure kasuan, 7KP ikastolak eta Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak, Mondragon Unibertsitatearen kolaborazioa izango dugu. Unibertsitateko adituak, esperientzia aurreratuen aurretik eta ondoren, ikasleen profilararen inguruko ebaluazioa egiteko tresnak garatzen ari dira.

Hiru ebaluazio mota horiei esker, aldian-aldian beharrak antzeman eta Urteko Programazio Orokorrean hobekuntzarako helburuak proposatuko dira, urteko lan ildoak markatuz eta esperientzia aurreratua ziklo ezberidnetara hedatzeko planari jarraipena emanez.

03. ERALDAKETARAKO GURPILAK

Pertsona ereduia iparrean jarrita eta oinarritzko heziketa lerroen bitartez gure marko pedagogikoa definitu ondoren, horiek garatzeko eta artikulatzeko beharko ditugun gurpilak edo tresnak hautatu behar dira. Eraldaketa esperientzia aurreratua diseinatzeko garaian, ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuan parte hartzen duten elementuak modu eraginkorrean birformulatu behar dira, ikaskuntza esperientzia aberatsak garatzeko. Honela, ikasleen ikaskuntza esperientziak elikatzeke, aukera metodologikoak eta eduki mailako aukerak aztertu behar dira, programazio didaktikoetan esperientzia horiek gure heziketa lerroen arabera diseinatzeko.

Programazio didaktikoa da ikaskuntza esperientziak diseinatzeko tresna nagusia. Bertan, hautatutako eredu didaktikoak, konpetentziak, edukiak, jarduera didaktikoak, metodologia, elkarrekintza didaktikoa, teknikak, estrategiak, tresnak, baliabideak, taldekatzeak eta ebaluazio irizpideak jasoko dira, ikaslearen ikaskuntza errazteko helburuarekin. Jarraian, aukera metodologikoei eta eduki mailako aukerei erreparatuko diegu, programazio didaktikoen diseinuan gako baitira.

A) AUKERA METODOLOGIKOAK

Aukera metodologikoetatik ari garenean, gure marko pedagogikoa aurrera eramateko tresnetatik ari gara, besteak beste, ikasleen ikaskuntza errazteko, irakaslearen rola definitzeko, elkarrekintza egituratzeko eta baliabideen antolaketa helburuen zerbitzura jartzeko balio digutelako. Prozesu didaktikoan parte hartzen duten elementuen arteko loturak ezartzen laguntzen dute, eredu pedagogikoaren printzipioak, konpetentziaren osagaien edo edukien

izaeraren arabera eta unean uneko testuinguruen ezaugarrietara egokitzeko aukera ematen dutelako.

Gure marko pedagogikoaren baitan kontuan hartuko ditugun aukera metodologikoen artean, eredu pedagogikoak, metodo didaktikoak, metodologiak, teknikak, estrategiak zein baliabideak topatuko ditugu. Maiz, metodologia hitzez izendatu izan ditugu denak, elkarloturik dauden kontzeptuak baitira, baina komeni da bata eta besteen arteko ezberdintasunak argitzea.

Eredu pedagogikoak ikaskuntza-irakaskuntza prozesua ulertzeko moduak dira, ikaslearen eta hezitzailearen papera modu jakin batean ulertzen dutenak. Hezkuntza prozesuaren errepresentazio teorikoa litzateke, ikaskuntzari buruzko ikuspegia jasotzen duena. Ereduak dira, besteak beste, ikaskuntza dialogikoa, ikaskuntza heuristikoa, ikaskuntza manipulatioa, ikaskuntza konstruktibista, pedagogia sistemikoa, ikaskuntza kooperatiboa edota Flipped Learning ereduak, bakoitza ikaskuntza prozesatzeko eredu jakin batean oinarritzen delako.

Metodoak eredu pedagogikoa praktikan jartzeko moduak dira, irizpide ezberdinen arabera sailkatu daitezkeenak. Arrazonamenduaren eraikuntzaren arabera, metodo deduktiboak, induktiboak eta analogikoak bereizten dira. Ikaslearen rolari dagokionez, pasibo edo aktibo gisa sailkatu daitezke eta ezagutzaren trataerari dagokionez, metodo espezifikoak edo globalizatuak topa ditzakegu.

Metodologia irakasleak, eredu pedagogikoaren printzipioetan oinarriturik, modu kontziente batean planifikatutako prozesu bat da, jarduera, prozedura eta ekintza multzo batek osatua. Horren adibide dira, proiektuetan oinarritutako metodologia, pentsamenduan oinarritutako ikaskuntza, indagazio metodologia, gamifikazioa, testu generoetan oinarritutako metodologia, txoko bidezko metodologia, steam metodologia, praktika gogoetatsuaren metodologia...

Teknikak eta estrategiak, metodologia didaktikoaren baitan erabiltzen diren baliabideak dira, hala nola, instrukzio zuzena, behaketarako teknikak, esperimentuak, aldarnatze teknikak, elkarrekintza emankorrerako estrategiak, teknika kooperatiboak, komunikazio ez-bortitza, diziplina positiboa, rol-playingak, irudi bidezko pentsamendua, autoerregulazio teknikak,

mindfullnes, dramatizazioa, eztabaida, baterako irakaskuntza, berdinen arteko tutoretza... Estrategien artean bereziki aipagarriak dira Ikaskuntzaren diseinu unibertsala edota Maila anitzetan programatzeko estrategia, metodologia didaktiko ezberdinetan aniztasunari erantzuteko tresnak eskaintzen dituztenak.

Baliabideak, pentsamendu mapak, antolatzaile grafikoak, taldekatze motak, baliabide materialak zein digitalak, espazioaren antolaketa, ebaluazio tresnak...

Ikaslearen eredu pedagogiko ala metodologi didaktiko, teknika nola estrategia, horiek denak tresna gisa ulertzea da gakoa, dogma bihurtu gabe. Ikastolan hezi nahi dugun pertsona ereduak garatzen lagundu dezaten erabili behar dira, marko pedagogikoarekin lerrokaturik eta ikasleen adin eta ezaugarriak kontuan izanik.

Jarraian, aukera metodologikoei pertsona ereduaren ezaugarriei eta Oinarrizko Heziketa Lerroekin duten lotura taula batean irudikatu dugu:

AUKERA METODOLO GIKOAK PERTSONA EREDUAN	1. EUSKALDUN A			2. OREKATUA			3. EKINTZAILEA			4. MUNDURA ZABALIK		5. KOOPERATIBOA		
	1.1. Eu sk al hi zt un os oa	1.2. Eu sk al er ag ile	1.3. El ean it za	2.1. Ko nfiant za du ena	2.2. Hel dut asu n afe ktib oa	2.3. Be re bu ru a zai nt ze n du en a	3.1. Erref lexib oa	3.2. Erag inkor ra	3.3. Sort zail ea	4.1. Konpr ometit ua	4.2. Erres petuz koa	5.1. Lan kide a	5.2. Enp atiko a	5.3. Asert iboa
1. PROIEKTUA K	X	X	X	X			X	X	X	X	X	X	X	X
2. MAILA ANITZEKO IRAKASKUN TZA				X	X			X						
3. IKASKUNTZ A KOOPERATI BOA							X	X				X	X	X
4. PENTSAME NDUAN OINARRITU TAKO IKASKUNTZ A (TBL)							X	X	X					
5. EBALUAZIO HEZIGARRI A				X	X		X	X						

6. TESTU GENEROAK	X	X											
7. IKASKUNTZA DISEINU UNIBERTSALA				X			x						
8., IKASKUNTZA DIALOGIKOA			X			X			X	X		X	X
9. SAIO MAGISTRALA						X	X						
10 .GELA ATZEKOZ AURRERA (FLIPPED CLASSROOM)						X	X	X			X		X
11. GAMIFIKAZIOA							X	X			X		
12. IRUDI BIDEZKO PENTSAMENDUA													
13. MINDFULNES													
14. MAKER SPACES													
15. STEAM													

16. IKASKUNTZA HEURISTIKOA				X			X	X	X					
17. TXOKO BIDEZKO METODOLOGIA				X			X	X	X					
18. IKASKUNTZA ERAIKITZAILERA							X	X	X					
19. PRAKTIKA GOGOETATZUA	X													
20. BATERAKO IRAKASKUNTZA				X	X	X						X	X	X
21. DIZIPLINA POSITIBOA				X	X	X	X					X	X	X
22. KOMUNIKAZIO EZ-BORTITZA													X	X
23. PEDAGOGIA SISTEMIKOA													X	X

AUKERA METODOLOGIKO AK OINARRIZKO HEZIKETA LERRROETAN	1. HL: Heziket a integra la	2.HL: Ikaskunt za esangura tsua	3.HL: Hezkunt za komunit atea	4.HL: Eleanizta suna helburu, euskara ardatz	5.HL: Inklusibit atea	6.HL: Espazio ak eta denbor ak	7.HL: Hezitzai le bidelag una	8.HL: GIH
1. PROIEKTUAK	x	X	X	X	X	X	X	X
2. MAILA ANITZEKO IRAKASKUNTZA	x	X		X	X		X	
3. IKASKUNTZA KOOPERATIBOA	x	X	X		X		X	X
4. PENTSAMENDUA N OINARRITUTAKO IKASKUNTZA (TBL)	x	X			X		X	X
5. EBALUAZIO HEZIGARRIA	x	X			X		X	
6. TESTU GENEROAK	x	X		X				
7. IKASKUNTZA DISEINU UNIBERTSALA	x	X			X	X	X	
8., IKASKUNTZA DIALOGIKOA	x	X	X	x	X	X	X	
9. SAIO MAGISTRALA	x	X		X				
10 .GELA ATZEKOZ AURRERA (FLIPPED CLASSROOM)	x	X				X		
11. GAMIFIKAZIOA	x	X						

12. IRUDI BIDEZKO PENTSAMENDUA	x	X			X			
13. MINDFULLNES	x	X	X			X	X	
14. MAKER SPACES	x	X	X			X	X	X
15. STEAM	x	X				X	X	X
16. IKASKUNTZA HEURISTIKOA	x	X				X	X	
17. TXOKO BIDEZKO METODOLOGIA	x	X			X	X	X	
18. IKASKUNTZA ERAIKITZAILEA	x	X					X	
19. PRAKTIKA GOGOETATSUA	x	X	X				X	
20. BATERAKO IRAKASKUNTZA	x	X	X	X	X	X	X	
21. DIZIPLINA POSITIBOA	x	X	X		X		X	
22. KOMUNIKAZIO EZ BORTITZA	x		X				X	
23. PEDAGOGIA SISTEMIKOA	x		X				X	

B. EDUKI MAILAKO AUKERAK

Digitalizazioarekin, gaur egun ezagutza 12 hilabetetik behin bikoizten da eta 2030ean 12 ordutik behin bikoiztuko dela aurreikusten da. XX. mendeko azken hamarkadetatik aurrera, ikaskuntza eduki iraunkor eta mugiezinen ideia ezdeusean geratzen hasi zen eta oraingo mundu aldakor honetan, onartu beharra daukagu gaur egun ikastolan ikasten ari diren ikasleek oraindik ezagutzen ez ditugun lanbideetan lan egingo dutela. Ikasleen ongizatea bermatzeko gaur egun ezinbestekotzat jotzen ditugun edukiak ziurrenik etorkizunean aldatu egingo dira. Horregatik, azken urteotan indarra hartu duen ideia bat da gaurko ikasleek etorkizunean beren bizitza proiektua garatu ahal izateko bizitza osoan zehar ikasteko aukera emango dien ikaskuntza-ingurune pertsonala eraiki beharko dutela.

Gero bat gugan_2030 eraldaketa proiektu honetan, ikasleek ikaskuntza bizitzarako ezinbesteko ekintzat hartzea nahi dugu, beren errealitate zehatza ulertu eta aurkitzen dituzten arazo edo erronkei aurre egiteko. Ikaskuntza bizi esperientzia gisa garatu dezaten nahi dugu, ez eduki irenste hutsa.

Zerbait ikasteko ahalegina egiten dugunean, ikaskuntza hori inguruko munduaren ulermena hobetuko duen zerbait izatea espero dugu, hurbil ditugunekiko harremanak hobetuko dituen, eta hurbileko ingurunean jarduteko baldintza hobeetan kokatuko gaituen. Are gehiago, ikasten dugunak geure burua hobeto ulertzen lagundu behar digu. David Perkinsek (2017) metafora bat dakarkigu honen harira: Ezagutza bizikleta bat bezalakoa da, norabaitera garamatzalako.

Eduki aukerak aztertzean, ezinbestean honako galdera hauek egin behar dizkiogu geure buruari: zer ikasi beharko dute gure ikasleek etorkizunean beren ibilbidea arrakastaz egin dezaten? Zein ulermen-gai izango dira garrantzitsuak gure ikasleen heziketarako? Perkinsen metaforari helduta, zer jakintzak lagunduko die ikasbidaian aurrera egiten?

Galdera hauei erantzutea ez da inolaz ere erraza. Ur handitan gabiltza, zalantzarik gabe. Mundu mailako adituek gogoeta horretan dihardute, erantzun bakar eta egiazkorik ez dagoela ondorioztatuta. Erantzun bakarrik ezean, ordea, edukiak zuhurtziaz hautatzen saiatzea dagokigu eta, horretarako, irizpideak bilatu behar dira.

Gero bat gugan_2030 eraldaketa proiektuan, edukien hautaketarako honako irizpideak jarraitu nahi ditugu:

- Hautatutako edukiak, gure ikastolako pertsona ereduaren ezaugarriekin koherenteak izateaz gain, lagungarri izan behar dira horiek garatzen.
- D. Perkinsen aipuak dioen moduan, zerbaitetara garamatzan heinean hartzen du funtzionaltasuna jakintza batek eta, haren orientabideei jarraikiz, eduki hautaketa zuhur bat egin nahi badugu, ulermen-gaiek lau ezaugarri bete behar dituzte:
 - Informazio maila handikoak izatea, eduki horiek ulertzeak mundu fisiko, sozial eta artistikoaren funtzionamendua hobeto ulertzen lagunduko duelako.
 - Ekintza maila handikoak izatea, eduki horiek ulertzeak ikuspuntu politiko, sozial eta profesionaletik modu eraginkorrean ekiteko ahalmena ematen digulako.
 - Etika mailan handiak izatea, eduki horiek ulertzeak pentsaera eta jokabide etikoagoak, humanoagoak eta konprometituagoak garatzera bultzatzen gaituelako.
 - Aukera maila handikoak izatea, eduki horiek ulertzeko premia bizitzako momentu gakoetan eta testuinguru desberdinetan sor daitekeelako.
- Garapen iraunkorrerako helburuek, Nazio Batuen Erakundeak 2015ean definitutakoak, mundu mailako gatazka eta arazo nagusiei erantzuten dieten heinean, ulermenerako eta gogoeta sakonerako gaiak jasotzen dituzte. Eduki aukeraketa egitean horiek irizpide gisa

hartzea zentzuzkoa ikusten dugu.

- Mailaz mailako edukien hautaketa egiterakoan, errepikapenak saihestu beharko dira, eta progresio koherentea bermatu beharko da.
- Edukien izaera (diziplinarra, interdiziplinarra eta metadiziplinarra) eta horiek ikasteko ikaskuntza esperientzia mota koherenteak izango dira, kompetentzia osatzen duten osagaiei dagozkien ikaskuntza baldintzak eskainiz.

04. EZINA EKINEZ EGINA

Itsasoan urak handi dire, murgildu nahi dutenentzat
gure herriko lanak handi dire, astun dire, gogor dire, zatiturik gaudenontzat.

Xabier lete

Gero bat gugan_2030 eraldaketa-proiektuak Pertsona eredua du ipar eta marko pedagogiko honek bidea egiten lagunduko digun gida izan gura du. Ikastola osoa biltzen duen markoa da, ikasle, familia zein profesional oro barne hartzen duena eta hedatze prozesuan denon elkarlana beharko duena. Marko irekia eta dinamikoa da, halaber, etengabeko berrikusketa eta egokitze prozesuan egongo dena.

Dokumentu hau osatzeko, iturri askotatik edan dugu, pedagogia eta psikologia arloan aditu askoren lanak aztertu ditugu eta profesional askoren laguntza jaso dugu. 7KP ikastolak eta Reimagine Education taldea ere bidelagun izan ditugu, haien aholkuek eta esperientziek geure bide propioa egiteko aukera eman digutelako.

Marko pedagogikoan biltzen diren ideiak gauzatu daitezen eta hezkuntza eraldaketa benetan sakona izan dadin, eraldaketa pertsonaletik abiatu beharra daukagu. Horretarako, marko mental eta sinismen ugari puskatu beharra ditugu, bizitzari eta, ondorioz, gure haur eta gazteen

heziketari beste begirada batetik ekiteko. Naturak udazkeneko egin ohi duen bezala, kanpotik biluztu beharra dugu, barrutik janzteko.

Eraldaketa pertsonalean sortutako kimu berriek, eraldaketan norbanakoak duen arduratik, indarra emango diote eraldaketa kolektiboari. Aldi berean, eraldaketa esperientzia aurreratuak sistema osoaren eraldaketarako tresna izango dira, ikaste prozesu bilakaturik. Argi dago, beraz, bidea elkarrekin egin beharra daukagula, urratsez urrats, ekimenez eta erabakitasunez. Jakinik ere, akatsetatik ikasi beharko dugula eta mundu desegonkor batean gaudelarik, gaurkoak, agian, bihar ez duela balioko. Baina basamorturik amaigabeena ere, dunaz duna igarotzen da, hurrengo dunaren atzean zer dagoen ere ikusi gabe.

Hortaz, zentzuz jokatzeko dagokigu, marko pedagogiko honetako ardatzek gidatuta eta berau osatzeko baliatu ditugun oinarri zientifiko eta psikopedagogikoak etorkizun aldakorrari aurre egiteko euskarri sendo gisa hartuta.

05. BIBLIOGRAFIA ETA INFORMAZIO ITURRIAK

Liburuak eta artikulak:

ACASO, Maria (2013). Reduvolution: Hacer la revolución en la educación. Bartzelona. Paidós Educación.

ARAGAY, Xabier (2017). Reimaginando la educación. 21 claves para transformar la escuela. Barcelona: Paidós Educación.

ARIZMENDI IKASTOLA (2015). Konfiantzaren pedagogia. Arizmendi ikastolaren markoa. Arrasate. Ekoizpen propioa.

BUENO, David (2017) Neurociencia para educadores. Bartzelona: Octaedro.

CABRERA, Juan Silvio, FARIÑAS, Gloria (2014). "El estudio de los estilos de aprendizaje desde una perspectiva vigostkiana". Revista Iberoamericana de Salud. <https://rieoei.org/historico/deloslectores/1090Cabrera.pdf>

CRISTOBAL, Rafael (2010). El niño en la mirada del conocimiento. Una pedagogía de la confianza. Valladolid: Editorial de la Infancia.

DOMINGO, Angels, GOMEZ, M.Victoria (2017) La práctica reflexiva. Bases, modelos e instrumentos. Madril: Narcea.

DURAN, David (2016). Aprender. Evidencias e implicaciones educativas de aprender enseñando. Madril: Narcea

ELLIS, Jeanne (2004). Aprendizaje humano. Madril: Pearson Educación.

ETXARTE, A. (2006). "Hizkuntza tratamendu bateratua (HTB) Hegoalde ikastolan", Jakingarriak, 57, 28-35.

FRASER, Nancy (2008). "La justicia social en la era de la política de identidad: redistribución, reconocimiento y participación". Revista de trabajo, 4(6), 83-99.

FREIRE, Paulo (2002) Cartas a quien pretende enseñar. Buenos Aires: S.XXI

FUNES, Jaume (2010). 9 ideas clave. Educar en la adolescencia. Barcelona: Graó.

GARDNER, Howard (2001) La inteligencia reformulada. Las inteligencias múltiples en el S XXI. Barcelona: Paidós.

HARRIS, A. and LAMBERT, L. (2003). Building Leadership-Capacity for School-improvement. London, England: Open University Press

HERNANDEZ, J. (2021). Convivencia, rendimiento y bienestar en la escuela. Iruñea: Eunate.

HUGUET, Teresa. (2006) Aprender juntos en el aula. Una propuesta inclusiva. Bartzelona: Graó.

IBARROLA, Begoña (2013) Aprendizaje emocionante. Neurociencia para el aula. Madril: SM

JOHNSON, David, JOHNSON, Roger eta HOLUBEC, E. J. (1999): El aprendizaje cooperativo en el aula. Buenos Aires: Paidós

JOHNSON, David, JOHNSON, Roger (2004) La evaluación en el aprendizaje cooperativo. Cómo mejorar la evaluación individual a través del grupo. Madrid: Madrid.

JORBAL, Jaume, CASELLAS, Ester (1997) La regulación y la autorregulación de los aprendizajes. Madril: Síntesis.

LAMBERT, L. (1998). Building Leadership-capacity in Schools. Virginia, United States: Association for Supervision and Curriculum Development (ASCD)

LOPEZ, Coral (2013). Coaching educativo. Las emociones al servicio del aprendizaje. Madril: SM

MALPICA, Federico (2013). 8 ideas clave. Calidad de la práctica educativa. Barcelona: Graó.

MARTINEZ, T., DÍAZ-VEIGA, P., SANCHO, M., y RODRIGUEZ, P. (2014). Modelo de Atención Centrada en la Persona. Cuadernos prácticos. Vitoria: Departamento de Empleo y Políticas Sociales. Gobierno Vasco.

MARTÍNEZ, T. (2011). La atención gerontológica centrada en la persona. Guía para profesionales de centros y servicios de atención a personas mayores en situación de fragilidad o dependencia. Vitoria: Departamento de Empleo y Asuntos sociales. Gobierno Vasco.

MAYORDOMO, Rosa M., ONRUBIA, Javier (2015) El aprendizaje cooperativo. Bartzelona: UOC

MORA, Francisco (2013). Neuroeducación. Sólo se puede aprender aquello que se ama. Madril: Alianza Editorial.

MUIJS, D. and HARRIS, A. (2007). Teacher-leadership in action. Educational Management and Administration, 35(1), 111-134.

NELSEN, Jane (2001) Disciplina positiva. Mexiko: Rondine

OTTO SCHARMER, C (2017) Teoria U: Liderar desde el futuro a medida que emerge. Bartzelona. Eleftheria.

PALACIOS, Jesus, MARCHESI, Alvaro, COLL, Cesar. (2014) Desarrollo psicológico y educación. 1. Psicología evolutiva. Madril: Alianza editorial.

PALACIOS, Jesus, MARCHESI, Alvaro, COLL, Cesar. (2014) Desarrollo psicológico y educación. 2. Psicología de la educación escolar. Madril: Alianza editorial.

PALMER, Parker J. (2017). El coraje de enseñar. Malaga: Sirio.

PARELLADA, Carles, TRAVESET, Mercé (2016) Las redes sutiles de la educación. Las ideas claves de la pedagogía sistémica multidimensional. Bartzelona: Octaedro

PERKINS, David (2017) Educar para un mundo cambiante. ¿Qué necesitan aprender realmente los alumnos para el futuro? Madril: SM

RUIZ, Hector (2020). Conoce tu cerebro para aprender a aprender. Barcelona: ISTF

ROBINSON, Ken (2015). Escuelas creativas. La revolución que está transformando la educación. Bartzelona: Grijalbo

RODRIGUEZ, Isabel, SALAS, Rocío, LLADÓ, Guillermo (2020). Aprender todos juntos es posible. Estrategia de programación multinivel. Madril. Santillana activa.

RODRÍGUEZ, P. (2013). La atención integral centrada en la persona. Colección Papeles de la fundación, nº 1. Madrid: Fundación Pilares para la autonomía personal.

ROSENBERG, Marshall B. (2015) Non Violent Communication, a Language of life. PuddleDancer Press. (2020an Txatxilipurdi Elkarteak itzulia)

SANMARTÍ, Neus (2007). 10 ideas clave. Evaluar para aprender. Bartzelona: Graó.

SANMARTÍ, Neus (2019). Evaluar y aprender: un único proceso. Bartzelona: Octaedro.

SANTIAGO, Raul, BERGMANN, Jon (2016) Aprender al revés. Flipped Learnig 3.0 Metodologías activas en el aula. Bartzelona. Paidós Educación.

SPILLANE, J., HALVERSON, R. and DIAMOND, J. (2004). Towards a theory of leadership practice: a distributed perspective. Journal of Curriculum Studies, 36(1), 3-34.

SWARTZ, Robert (2014) El aprendizaje basado en el pensamiento. Madril. SM

TORREGO, Juan Carlos, NEGRO, Andrés (2014). Aprendizaje cooperativo en las aulas. Madril: Alianza Editorial

TRUJILLO, Fernando (2018). Activos de aprendizaje. Utopias educativas en construcción. Madril:SM.

VAELLO, Joan (2007). Cómo dar clase a los que no quieren. Bartzelona. Graó.

VERGARA, Juan Jose (2015). Aprendo porque quiero. El aprendizaje basado en proyectos (ABP) paso a paso. Madril: SM.

VERGARA, Juan Jose (2018). Narrar el aprendizaje. La importancia de la intención en el aprendizaje basado en Proyectos (ABP). Madril: SM.

WILD, Rebeca (2010) Educar para ser. Vivencias de una escuela activa. Bartzelona: Herder.

ZENBAITEN ARTEAN (2019). Pentsamendu trebetasunen lanketa Konfiantzaren Pedagogian. Lehen Hezkuntza. Donostia: **ekoizpen propioa**

ZENBAITEN ARTEAN (2016). Guia de coaching para docentes. Barcelona: El grano de mostaza.

ZENBAITEN ARTEAN (2021). Irakasleen prestakuntza gogoetatsua, berritzeko giltza. Huhezi.

ZENBAITEN ARTEAN (2017) Aprendizaje cooperativo. Teoría y práctica en las diferentes áreas y materias del curriculum. Madril: Piramide.

Sareko baliabideak, Bideoak

Hezkuntzaren digitalizazioa. Nagore Ipiña <https://www.youtube.com/watch?v=kqkiHBYvmbo>

Hezkuntza gizarte digitalean <https://www.youtube.com/watch?v=dim5LEUYF00>